# Familia giroan

## genero indarkeriaren biktima diren emakumeen haurrei laguntzeko eskuliburua



Hiru urteko haur baten marraskia


Egileak:

Save the Children
*Protegiendo a los niños desde 1919*

Irse.ebi

Ajuntament de Barcelona



Laguntzarekin:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

KOORDINAZIOA:

**Liliana Orjuela López.** Psikologoa. Save the Children.

liliana.orjuela@savethechildren.es

**Pepa Horno Goicoechea.** Psikologoa. Save the Children.

pepa@savethechildren.es

EGILEAK

**Liliana Orjuela López.** Psikologoa. Save the Children.

liliana.orjuela@savethechildren.es; liliorjuela@gmail.com

**Antonio J. Perdices.** Abokatua. IRSE-Bizkaia (Bizkaiko Birgizarteratze Institutua)

ajperdices@terra.es

**Montserrat Plaza.** Gizarte psikologoa, genero indarkerian aditua.

mplazaa@gmail.com

**María Tovar Belmar.** Psikologoa. Save the Children.

maria.tovar@savethechildren.es.; mariatovar8@yahoo.com

# FAMILIA GIROAN GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN HAURREI LAGUNTZEKO ESKULIBURUA

## AURKIBIDEA


1. SARRERA . . . . . 4

2. HAURRAK, FAMILIA GIROKO GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA . . . . . 6
- *a. Genero indarkeriaren kontzeptua . . . . . 6*
- *b. Genero indarkeriaren biktima diren haurrak . . . . . 10*

3. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN HAURREN ESKUBIDEAK . . . . . 14
- *a. Oztopoak kentzea, eta haurraren interesa gailen . . . . . 16*
- *b. Guraso ahala . . . . . 17*
- *c. Zaintza eta harrera . . . . . 18*
- *d. Adin nagusitasuna eta emantzipazioa . . . . . 19*
- *e. Giza Eskubideen Konbentzio Unibertsala . . . . . 19*
- *f. Eskubideak erabiltzea . . . . . 22*

4. HAURREN GARAPEN EBOLUTIBOAREN ALDERDI GARRANTZITSU BATZUK . . . . 24
- *a. Haurraren garapen ebolutiboko etapak: beharrak eta adierazleak . . . . . 25*
- *b. Gurasoaren eta semearen/alabaren arteko loturak haurren garapenean duen eragina . . . . . 34*
- *c. Aitaren lotura eta figura . . . . . 38*

5. GENERO INDARKERIAK HAURRENGAN DITUEN ONDORIOAK . . . . . 40
- *a. Genero indarkeriak haurrengan dituen eraginak . . . . . 40*
- *b. Genero indarkeriak nola eragiten dien gurasoek seme-alabekin dituzten harremanei . . . . . 43*
- *c. Arrisku faktoreak . . . . . 45*
- *d. Babes faktoreak . . . . . 46*

6. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN HAURREKIN ZUZENEAN ESKU HARTZEA . . . . . 47
- *a. Esku hartzea ingurunean nola txertatu . . . . . 48*
- *b. Balioztatzea . . . . . 58*
- *c. Nola lagundu beharrak eta jasandako indarkeria adierazten. Esplorazio elkarrizketetarako jarraibideak . . . . . 63*
- *d. Laguntasun emozionala . . . . . 73*
- *e. Genero indarkeriaren biktima diren haurrekin lan egiteko hezkuntza orientazioak . . . . . 77*
- *f. Zuzeneko esku hartzeari buruzko azken gogoetak . . . . . 80*

7. ONDORIOAK . . . . . 82

8. BIBLIOGRAFIA . . . . . 84

# 1. SARRERA

Save the Children erakundeak, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak laguntzarekin eta IRSE erakundearen eta Bartzelonako Udalaren lankidetzarekin, jarraian aurkeztuko dugun Familia giroan genero indarkeriaren biktima diren haurrei laguntzeko profesionalei prestakuntza emateko eskuliburu hau egin du.

Eskuliburu hau familia giroan genero indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza ematen lan egiten duten profesionalei eta gai horretan arlo juridikoan, polizialean, sozialean nahiz hezkuntza arloan eskudun diren Erakunde Publikoei dago zuzendua. Oro har, esparru horietan emakume horien seme-alaba diren haurrekin harremanetan diren guztiei dago zuzendua.

Hauek dira material hau egitean jarri ziren helburuak:

1. Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak zein indarkeriaren beraren zuzeneko biktimak ikusgai jartzea.
2. Haurren eskubideei, haien garapen ebolutiboari eta beren beharrei buruzko berariazko ezagutza ematea profesionalei.
3. Esku-hartze prozesuan haurren parte-hartzea errazteko teknikak irakastea profesionalei.
4. Genero indarkeriaren biktima diren haurren egoeraren eta beharren lehenengo balioztatzea egiteko teknikak irakastea profesionalei.

Helburu horiek bost gai orokorretan garatzen dira: familia giroan genero indarkeriaren biktima diren haurrak; genero indarkeriaren biktima diren haurren eskubideak; haurren garapen ebolutiboaren inguruko zenbait alderdi garrantzitsu; genero indarkeriak haurrengan dituen ondorioak; eta genero indarkeriaren biktima diren haurrekiko zuzeneko esku-hartzea dira bost gaiak.

Eskuliburu hau egiteko Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizateko Zuzendaritzaren laguntza izan dugu. Aurkezten ari garen eskuliburua Save the Children erakundeak haurrek familia giroan genero indarkeriaren ondorioz jasaten duten indarkeriaren inguruan egin dituen zenbait ekimen garrantzitsuren ondotik sortu zen. Horrela, 2006an, Save The Childrenek «Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabentzako arreta» izeneko ikerketa egin zuen. Aitzindaria izan zen estatuan, haurrak genero indarkeriaren biktima zuzen gisa erakustean, bigarren mailako biktima edo indarkeriaren lekuko gisa aurkeztu ordez. 2007ko otsailean, Gasteizen, Save the Children erakundeak Diziplina Arteko Lan Mahairako deia egin zien Erakunde Publikoei, Sektore Judizialari, Polizialari, Sozialari, Osasunekoari eta Hezkuntzakoari, Save the Children eta IRSE erakundeek Euskal Autonomia Erkidegoan egindako ikerketan bildutako gomendioak noraino aplikatu diren aztertze aldera. Lan Mahai horretan Ondorioen inguruko dokumentu bat egin zen, eta agiri horretan jaso zen, besteak beste, genero indarkeriaren biktima diren haurrei laguntza egokia eman ahal izateko profesionalek berariazko prestakuntza jasotzeko beharra dutela. Azkenik, Bartzelonako Udalak «Pautes orientatives d'exploració i de intervenció amb els fills et filles de les dones ateses per situacions de violència de gèneres» lana argitaratu zuen 2007ko martxoan. Hortaz, dokumentu horren egileetako bat den Montserrat Plazaren ekarpen teknikoa izan dugu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu eskuliburuaren egile hauei, egin duten lan baliotsu eta eskuzabalagatik: Montserrat Plaza, genero indarkerian aditua den psikologo sozialari; IRSE-Bizkaiko (Bizkaiko Berriz Gizarteratzeko Institutua) Antonio J. Perdices Mañasi; Save the Children erakundeko Haurren Eskubideen Sustapen eta Babeserako Saileko Pepa Horno, Maria Tovar eta Liliana Orjuelari; bai eta

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizateko Zuzendaritza Nagusiari, argitaratzea ahalbidetu duelako, eta Bartzelonako Udalari eta IRSE-Bizkaiari ere, egínkizun horretan lankidetzan aritu delako.

*Liliana Orjuela Lopez*

Save the children

# 2. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN HAURRAK

*«Askorentzat, salbu izatea ateak eta leihoak ixtean eta toki arriskutsuak saihestean datza. Beste batzuen ustez, ez dago ihesbiderik, indarkeriaren mehatxua ate horien atzean baitago, ingurukoen begietatik ezkutuan.»*

*(Gro Harlem Brundtland, Osasunaren Mundu Erakundeko zuzendari nagusia)*

## A. GENERO INDARKERIAREN KONTZEPTUA

### *i. Indarkeriaren definizioa*

Osasunaren Mundu Erakundeak -OME- honela definitu du indarkeria: «Norberaren, beste pertsonaren baten edo talde edo komunitate baten aurka indar fisikoa edo boterea berariaz erabiltzea, mehatxuetan edo indarkeria gauzatuz, eta lesioak, heriotza, kalte psikologikoak, garapenaren nahasmenduak edo gabeziak eragiten edo eragiteko aukera handiak dituena». Definizio horrek barne hartzen ditu ekintza fisikoak, bai eta larderia edo mehatxuak ere.

Nazio Batuek egindako lanak honela definitzen du haurren aurkako indarkeria: «indarraren edo boterearen berariazko erabilera, egiazkoa edo mehatxu gisa, eta ondorioz lesioak, kalte psikologikoa, garapen akastuna, gabeziak edo heriotza bera eragin dezakeena».[1]

### *ii. Genero indarkeriaren definizioa*

Definizio horiei jarraikiz, **Save the Children** erakundeak ulertzen du genero indarkeriaren **biktima** diren emakumeen seme-alabak indarkeria horren biktima direla, eta indarkeria hori psikologikoa eta, batzuetan, fisikoa izan daiteke. Hain zuzen ere, biktima dira emozionalki beren zaintzaileen mende daudelako eta amaren aurka gauzatutako indarkeriak ondorioak dituelako haurren garapenean. Nazio Batuek haurren indarkeriaren inguruan egin duten lanean gomendatu denari jarraikiz, herrialde guztiek haurren aurkako indarkeria bukaraz dezakete eta bukarazi behar dute. Horrek ez du esan nahi erasotzaileak zigortzera mugatu behar denik; beharrezkoa da gizarteen pentsamoldea eta baldintza ekonomikoak eta sozialak (azpian daudenak, indarkeriari loturikoak) aldatzea.

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen eskubideak bermatzean, haien seme-alaben eskubideak babesten ditugu, baina haien beharrei arreta emateko berariazko neurri gehigarriak jarri behar dira. Indarkeria kontzeptuan kontuan izan behar diren bi elementu garrantzitsu dira, alde batetik, boterearen gehiegizko erabilera eta, bestetik, indarkeria egoeraren ondorioz garapenean gertatzen den kaltea.[2]

Europako Kontseiluak, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteari buruz NBEk egindako deklarazioan (1993) eta Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentzian onartutako ekintzarako Plataforman (Beijing, 1995) xedatutakoari jarraikiz, honela definitu du «**emakumeen aurkako indarkeria**»[3] kontzeptua (aurrerantzean **genero indarkeria**):

1 http://www.unicef.org/violencestudy/spanish/index.html

2 Kontzeptu horiek sakonago azaldu dira lan honetan: «Amor, poder y violencia», Save the Children, 2005.

3 Ministroen Batzordeak estatu kideei egindako REC 2002-5 gomendioa, emakumeak indarkeriatik babesteari buruzkoa, 2002ko apirilaren 20an onartua.

*«... sexu arrazoiengatiko indarkeriazko edozein ekintza, kalte fisikoa, sexuala edo psikologikoa edo emakumearengan sufrimendua eragiten duena edo eragin dezakeena, ekintza horiek egiteko mehatxuak, askatasuna kentze arbitrarioa edo bortxa barne, horiek jendaurrean edo bizitza pribatuan gertatzen direnean. Horrek barne hartzen ditu hurrengoak, baina ez du honek mugatzen:*

*a. familian edo etxean gertatzen den indarkeria, besteak beste, era honetakoa: eraso fisikoak eta mentalak, abusu emozionala eta psikologikoa, indarkeria eta sexu abusuak, intzestua, eta ezkontideen, noizean behingo lagunen edo lagun egonkorren eta bizikide diren pertsonen arteko bortxaketa;*

*b. ohorearen izenean egindako krimenak, genitalen mutilazioa eta emakumeen sexu mutilazioa eta emakumeentzat kaltegarriak diren bestelako jardute tradizionalak, hala nola, ezkontza behartuak;*

*c. komunitatean, oro har, gertatzen den indarkeria, besteak beste, bortxaketa, sexu abusuak, sexu jazarpena eta larderia lantokian, erakundeetan edo beste edozein tokitan, sexu esplotazioa eta esplotazio ekonomikoa eta sexu turismoa helburu duten emakumeen legez aurkako trafikoa;*

*d. Estatuak edo haren ofizialek gauzatutako edo onartutako indarkeria;*

*e. emakumeen giza eskubideak urratzea gatazka armatuko egoeretan, bereziki bahituak hartzea, lekualdatze behartuak, bortxaketa sistematikoak, sexu esklabotasuna, haurdunaldi behartuak eta sexu esplotazioa eta esplotazio ekonomikoa xede duten tratuak egitea...»*

Kontzeptu horrek «**etxeko indarkeria**» kontzeptuak baino errealitate mugatzaileagoari edo zehatzagoari egiten dio erreferentzia. Europako Batzordearen arabera[4], honela defini genezake:

*«... edozein motatako indarkeria fisikoa, sexuala edo psikologikoa, familiako kideren baten segurtasuna edo ongizatea arriskuan jartzen duena; indarkeria fisikoa edo xantaia emozionala erabiltzea; indar fisikoa erabiltzeko mehatxua, sexu indarkeria barne, familian edo etxean. Kontzeptu horrek barne hartzen ditu haurren kontrako tratu txarrak, intzestua, emakumeen aurkako tratu txarrak eta etxe berean bizi den edonoren aurkako sexu abusuak edo bestelako abusuak...»*

Genero indarkeria eta etxeko indarkeria kontzeptuak aldez aurretik bereiztea funtsezkoa da eskuliburu honen xederako. Etxeko indarkeria kontzeptua ikuspuntu zabalagotik erabiltzen da: etxe inguruan familia unitateko edozein kideren aukako edozein motatako indarkeria, haurren kontrako tratu txarrak barne. Hala ere, kontzeptu edo definizioetatik haratago, errealitateak erakusten digu indarkeriaren azken hartzailea emakumea denean, bi definizioak gainjartzen direla. Dokumentu honetan, genero indarkeria aipatzen dugunean [5], emakumeek familian jasotzen duten indarkeriaz ari gara.

---

4 Berdintasunerako 100 hitzen glosategia. Gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunari dagozkien terminoen glosategia. Europako Batzordea (1999).

5 Genero indarkeria jasateko askotariko moduen inguruko eztabaida zabala den arren, eskuliburu honetan horrela definitu da, 1/2004 Lege Organikoko azalpenarekin bat etor dadin.

Hauek dira genero indarkeriaren oinarrizko ezaugarriak[6]:

- Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aldean oinarrituta dago eta kode patriarkaletik eratorria da.
- Genero indarkeria gizartean nahiko ikusezina den indarkeria modua da.
- Emakumeen gaineko kontrol mekanismo edo zigor gisa erabiltzen da.
- Jasaten duenarengan erruduntasun sentimendua eragiten du.
- Genero indarkeriak eragin ohi duen harremanean, bai erasotzailea, bai eta biktima ere, harrapatuta geratzen dira: alde batetik, boterea; eta, bestetik, beldurra eta mendekotasuna.

«Hauek dira genero indarkeriatzat jo dadin bete behar diren lau baldintzak:

- ERASOTZAILEA: beti gizonezkoa izan behar da.
- BIKTIMA: beti emakumezkoa izan behar da.
- KAUSA: sexuen arteko botere harremanak, sozializazio orokorra dela eta (gizonezkoen menderaketa eta emakumearen mendekotasuna).
- XEDEA: emakumeak kontrolatu eta menderatzea.[7]»

*iii. Genero indarkeriak biziraun dezan laguntzen duten alderdiak*[8]

Kulturakoak

- Generoan oinarritutako aldeak
- Sexu eginkizun egokien kulturako definizio estereotipatua
- Harremanetan askotariko eginkizunei esleitutako aukerak
- Gizonezkoak jaiotzetik hobeak direla uste izatea
- Gizonezkoei emakumeen eta haurren gaineko jabetasun eskubidea ematen dien balio sistema
- Familia gizonezkoaren kontrolpean dagoen eremu pribatu gisa ikustea
- Ezkontzako tradizioak (emaztegaiaren prezioa, ezkonsaria)
- Indarkeria gatazkak konpontzeko bitarteko dela onartzea

Ekonomiakoak

- Emakumeak ekonomia arloan gizonezkoen mende izatea
- Etxeko dirua eskuratzeko eta aurrekontua maneiatzeko mugak izatea
- Herentzia, jabetasun eskubideak, lursail publikoen erabilera eta dibortziatuen eta alargunen mantenu-pentsioen ordainketa arloetan lege diskriminatzaileak izatea
- Sektore formaletan eta informaletan, enpleguetarako sarbidean mugaketak izatea
- Emakumeek hezkuntzara sartzeko eta trebakuntza eskuratzeko mugaketak izatea

[6] Alberdi, I. Matas, N. La violencia doméstica. Informe sobre los malos tratos a las mujeres en España. La Caixa fundazioa 2002
[7] Osasunerako Emakumeen Elkartetik harturiko definizioa («La Boletina» aldizkaria, XXIII. zk., 2004ko azarokoa).
[8] Heise, 1994, Innocenti Digest autoreak aipatua, 6. La violencia doméstica contra mujeres y niñas, 2000.

Legezkoak

- Zuzenbide arloan emakumezkoen gutxiagotasuna, bai lege idatzien bai ohiturazko zuzenbidearen arabera, eta haren aplikazio praktikoa
- Dibortzio, seme-alaben zaintza, mantenu-pentsioak eta herentzia arloetan lege diskriminatzaileak
- Bortxaketaren eta etxeko abusuen definizio juridikoak
- Emakume izateagatik dituzten eskubideen gaineko ezagutza urria
- Jarrera estereotipatuak eta aurreiritziak, poliziak eta zuzenbide arloko jendeak emakumeak eta haurrak hartzen dituztenean

Politikakoak

- Botere esparruetan, politikan, komunikabideetan eta mediku eta zuzenbide lanbideetan emakumeen ordezkaritza urria
- Etxeko indarkeria behar besteko seriotasunez ez hartzea
- Familiako bizitza gai pribatu eta Estatuaren kontroletik at dagoen eremu gisa ulertzea
- Status quoari edo erlijio doktrinei desafio egiteko arriskua
- Emakumeak indar politiko gisa antolatzeko mugaketak
- Emakumeek sistema politiko antolatuan parte hartzeko mugaketak

Genero indarkeria da azken urteotan Espainian gizartearen eta erakundeen aldetik arreta handiena jaso duen indarkeria moduetako bat. Arreta hori gorenera iritsi zen zenbait lege onartu zirenean, besteak beste: Etxeko indarkeriaren biktimak babesteari buruzko Agindua arautzen duen 27/2003 Legea (2003ko uztailaren 31koa); Genero indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoa (2004ko abenduaren 28koa); eta Etxeko indarkeriaren aurkako neurriei buruzko II. Nazio Plana, 2001-2004, Etxeko indarkeriaren eta genero indarkeriaren Behatoki Nazionalaren esparruan.

Dokumentu hau egiteko 1/2004 Lege Organikoa bera ere hartu da erreferentziatzat. Izan ere, I. Zioen azalpenean, etxeko indarkeria kontzeptuaz dihardu: «*Emakumeei zuzentzen zaien indarkeria da, emakume izate soilagatik, erasotzaileek uste dutelako emakumeek ez dutela askatasun, errespetu eta erabakiak hartzeko gutxieneko eskubiderik*». Lege horretako 1.3 artikuluan ere aipatzen da: «*Lege honek hizpide duen genero indarkeriak indarkeria fisikoa edo psikologikoa dakarren edozein ekintza barne hartzen du, sexu askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, bortxaketak edo askatasun kentze arbitrarioa barne*».

1/2004 Lege Organikoan «tratu txarrak jaso dituzten emakumeen sindromea» aipatzen da (zioen azalpenean), eta onartzen da horrelako egoerek «familian dauden adingabeengan ere eragina dutela [...]» (II. Zioen azalpena). Hala ere, Legearen garapenak eta haren aplikazioak eta abian jartzeak dakartzan baliabideen garapenak oinarrizko kezka hau eragin dute Save the Children erakundean: genero indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alaba adingabeei arreta ematea. Legeak ez ditu diren bezala aintzat hartzen: izan ere, haiek ere genero indarkeriaren biktima dira.

### iv. Arazoaren garrantziaren inguruko zenbait datu[9]

- 2005eko ekainetik gau arte Genero indarkeriari buruzko Legearen aplikazioari bi urte eta erdian segimendu juridikoa eta penala egin zaio, eta hau ikusi da:
  - 50.086 gizon kondenatu dira bikotekideei edo bikotekide ohiei tratu txarra emateagatik; hori delitu mota hauen inguruan eman diren epai guztien % 72 da.
  - Jarduera judizial horiei esker, lehen erasotzaileen alde egiten zuen zigorgabetasun sentipena bukarazi da, baina ezin izan dira erasotzaileak gerarazi.
- Botere judizialaren Kontseilu Nagusiak (BJKN) babestutako Etxeko indarkeriaren eta genero indarkeriaren Behatokiak adierazitakoaren arabera, 2007ko urtarrila eta martxoa artean 29,277 salaketa egin ziren genero indarkeria dela eta. Horien artean % 80 biktimak jarri zituen zuzenean, % 9 poliziaren esku-hartzearekin jarri ziren, % 10 ospitaleek lesio txostenen bitartez aurkeztu zituzten, eta % 1 senitartekoek. Biktimek jarritako salaketen % 9 kendu egin ziren erasotzailearen aurkako prozedurarekin jarraitzeari uko egiteagatik (aurreko urteetan ehunekoa handiagoa izan zen).
- 2005. urtean 52 emakume hil zituzten beren mutil lagunek edo senarrek, 2006an 62 emakume eta 2007ko abenduaren 17ra arte 71 emakume hil zituzten. Era berean, behatokiaren datuen arabera, azken bosturtekoan urtero 58 hilketa izan dira, genero indarkeria dela eta.
- Hildako emakumeen artean % 30ak baino ez zuen jarri bikotekidearen aurkako salaketa.

## B. Genero indarkeriaren biktima diren haurrak

Haurrak, genero indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak, ere genero indarkeria horren biktima dira. Eta, biktima direnez, babes sistemak arreta eman behar die eta aintzat hartu behar ditu[10]. Biktima dira, maiz, zuzeneko erasoak jasaten dituztelako, gurasoen artean indarkeria ikusten dutelako eta/edo indarkeriazko harremanen eta boterearen abusuaren inguruan bizi direlako soilik. Indarkeria justifikatzen, legezkotzen eta eragiten duen testuinguru hori harreman afektiboen eta pertsonalen zati da, eta haurren garapena kaltetzen duen eredu negatiboa barneratzen du. Ama babeslea ikusi ordez, tratu txarrak jasaten dituen ama ikusten eta horrekin sufritzen dute. Aita babeslea ikusi ordez, tratu txarrak ematen dituen aita ikusten eta horrekin sufritzen dute. Profesionalen prestakuntzako oinarrizko irizpide bat da haurrei ikusaraztea indarkeria ez dela soilik eraso fisikoa. Eta genero indarkeria horren erakusle da: ez dira lesio fisikoak emakumeak eta haurrak biktima bezala maila berean jartzen dituztenak; jasaten duten beldurra eta baliogabetzea, baizik.

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alaben arreta osoari generoaren ikuspegitik eta eskubideen ikuspegitik ekin behar zaio, bai azterketa egiteko bai eta emakume horiei eta haien seme-alabei arreta emateko proposamenak egiteko ere. Horrek berekin dakar hainbat alderdi sustatzera bideratutako neurriak barne hartuko dituzten politikak eta legeak sortzea. Hauek

9 http://www.observatorioviolencia.org/documentos.php?id=120. Genero indarkeriako delituak barne hartu dira: erailketa, abortua, fetuari lesioak eragitea, lesioak eta tratu txarrak, askatasunaren aurkako erasoak, sexu askatasunaren eta sexu ukigabetasunaren aurkakoak, osotasun moralaren aurkakoak, familiako eskubide eta betebeharren aurkakoak, eta bestelakoak.

10 Save the Children erakundeak ikerketa lan bat egin zuen 2005. urtean (2006an argitaratu zen), ea sistemak haurrak genero indarkeriaren biktima gisa aztertzen zituen ikusteko, eta ea horrek berekin zekarrena betetzen zen ikusteko: alegia, baliabideak ematea, taldeak sortzea eta haur horiekin egin beharreko esku-hartzea profesionalizatzea.

sustatu beharko dituzte, besteak beste: genero ekitatea (biktimen eskubideetan eta eskubide horiek erabiltzeko legeak sortzean oinarritutako neurriak); emakumeen eta haurren autonomia aintzat hartzea, eskubideak dituzten aldetik; eta emakumeen eta haurren parte-hartzea guztiz aintzatestea, eragiten dieten neurrietan eta erabakietan. Azkenik, indarkeria prebenitzeko, hari arreta emateko eta desagerrarazteko baliabideak sortzea ere barne hartzen du.

### i. Genero indarkeriaren biktima diren haurrei buruzko zenbait datu

- Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabei dagokienez, garrantzitsua da nabarmentzea Espainian ez dagoela Botere judizialaren Kontseilu Nagusitik eta babes aginduetatik zentralizatutako segimendu estatistikorik. Hala ere, haien amei buruzko datua sartu da. Autonomia Erkidego mailako datuetan baino ez dira aipatzen harrera etxeetan amekin dauden haurrak.
- Behatokiak berak, *fetuari lesioak eragitea*[11] kategorian, adierazi du 2007ko lehen hiruhilekoan 13 kasu agertu direla Extremaduran, bat Gaztela eta Leonen eta 34 Madrilen. Bigarren hiruhilekoan 288 kasu izan ziren Andaluzian, eta bat Gaztela-Mantxan.
- Emakume bananduen eta dibortziatuen elkarteen federazioan[12], 2007an genero indarkeriagatiko heriotzaren biktima izan ziren lau haurren kasu jaso ziren, komunikabideetako segimenduaren arabera.

Jarraian, bikotekideen edo bikotekide ohien genero indarkeriaren ondorioz hildako emakumeei buruzko estatistikak aurkeztu dira, adin taldeka. Ikus daitekeenez, genero indarkeriaren ondorioz hildako emakume gehienak 21 eta 40 urte artekoen taldean daude. Eta, hain zuzen ere, adin talde horretan daude beren kargu eta emozionalki beren mende dauden seme-alabak dituztenak.

BIKOTEKIDEEN EDO BIKOTEKIDE OHIEN (1) GENERO INDARKERIAREN ONDORIOZ HILDAKO EMAKUMEAK, ADIN TALDEKA

http://www.mtas.es/mujer/mujeres/cifras/tablas/W807.XLS

| | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 otsailak 1 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 16 urtetik beherakoak | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 16-17 | 1 | 1 | 0 | 2 | 1 | 1 | 1 | 0 | 0 | 0 |
| 18-20 | 2 | 2 | 0 | 2 | 0 | 5 | 4 | 2 | 2 | 1 |
| 21-30 | 9 | 15 | 18 | 16 | 16 | 13 | 14 | 15 | 18 | 2 |
| 31-40 | 17 | 26 | 18 | 11 | 27 | 17 | 15 | 27 | 16 | 0 |
| 41-50 | 6 | 8 | 5 | 6 | 15 | 9 | 10 | 9 | 15 | 2 |
| 51-64 | 3 | 7 | 5 | 7 | 4 | 11 | 3 | 5 | 10 | 2 |
| 64 urtetik gorakoak | | 4 | 4 | 9 | 7 | 11 | 10 | 10 | 10 | 0 |
| Ezezaguna | 9 | 0 | 0 | 1 | 1 | 2 | 1 | 0 | 0 | 0 |
| GUZTIRA | 54 | 63 | 50 | 54 | 71 | 72 | 58 | 68 | 71 | 7 |

*Iturria: 1999-2005: Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren azterlana, prentsako berriak eta Barne Ministerioaren datuak abiapuntu hartuta. 2006. urtetik aurrera: Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Gobernuko Ordezkaritza Bereziaren datuak.*

[11] Ez da zehaztu zein indarkeria mota den, baina haurdun dauden emakumeen aurkakoa dela uler daiteke. Horrela bada, laugarren kapituluan genero indarkeriak haurdunaldian jasaten denean fetuan zer nolako ondorioak dituen azalduko dugu.

Halaber, azken urteotan bikotekideek edo bikotekide ohiek emandako tratu txarrak jasaten dituzten 18 eta 20 urte arteko neskek gero eta salaketa gehiago egin dituztela ikusi da.[13]

Genero indarkeriak biktimaren seme-alaben garapen psikologikoan eta emozionalean izan ditzakeen **ondorioei eta eraginari** dagokienez (laugarren kapituluan garatuko da luze eta sakon) honako hau baieztatu da:

*Ikusi ahal izan da etxean genero indarkeriaren aurrean izateak haurtzaroan eragin negatiboak eragiten dituela, indarkeria hori jasaten duten haurren adina edozein izanik ere: askotariko arazo fisikoak (atzerapena hazkuntzan, loaren eta elikadurarena saldurak, mugimenduzko gaitasunak gutxitzea...), asaldura emozional larriak (herstura, haserrea, depresioa, autoestimu baxua, trauma ondoko estresaren asaldura...), zenbait arazo kognitibo (hizkuntzan atzerapenak, eskola errendimenduan eragina...), hainbat jokabide arazo (gizarte gaitasun gutxi, oldarkortasuna, arreta falta eta hiperaktibitatea, heldutasunik eza, delinkuentzia, substantzia toxikoen mendetasuna...). Ikusitako asaldura horiek abusuen zuzeneko biktima diren haurren kasuan azaldutako ereduari gainjar dakizkieke. Horregatik, haurren kontrako tratu txar moten barruan sartzen hasi da adingabekoak etxean bertan genero indarkeriaren aurrean izatea.*[14]

Bestalde, Familia eta Komunitateko Medikuntzako Espainiako Elkarteko Previnfad taldeak honela definitu ditu haurren kontrako tratu txarrak: «haurrari bere eskubideak eta ongizatea eragozten, bere garapen fisikoan, psikikoan edo sozialean eragina duen eta/edo garapen hori mehatxatzen duen ekintza, ez egite edo jardute axolagabe oro, pertsonek, erakundeek edo gizarteak berak eginak. Haurren kontrako tratu txarretan barne hartzen dira mehatxuak edo min fisikoa, psikikoa edo soziala»[15]. Tratu txar emozionalen eta/edo psikologikoen barruan sartu da indarkeriaren lekuko izatea.

Genero indarkeriak eragin handia du familia nukleoan (alegia, pertsonen arteko harremanen oinarriak eratzen diren unitatean), eta modu orokorrean ekin behar zaio, eta biktima guztiei arreta eman: emakumeei, haurrei, adinekoei eta mendeko bestelako pertsonei.

*ii. Genero indarkeriaren eraginari dagozkion zenbait datu*

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabei dagokienez, Emakume Progresisten Elkarteak (2005) azterlan bat egin zuen Espainiako harrera etxeetan eta zentroetan, tratu txarrak jasan zituzten emakumeekin. Azterlan horren arabera, emakumeen % 80k bere buruaz beste egiteko asmoa izan zuen genero indarkeria denbora luzez jasan izan ondoren. Azterlan horretako emakumeen batez besteko adina 33 urte zen, eta haien artean % 72k bi seme-alaba zituzten, batez beste. Etsipen egoerak, beldurrak, erruduntasunak eta autoestimu baxuak beren buruaz beste egitean pentsatzera eramaten ditu emakume horiek, nahiz eta beraiekin seme-alabak izan.[16]

Mestrek eta Valentziako Unibertsitateko laguntzaileek (2006) beren proiektuan azaldutakoaren arabera, parte hartu duten emakumeen **% 26k** adierazi du **erasotzaileak adingabekoei ere tratu txarrak eman dizkiela**. Gainera, amen % 16k baino gehiagok jakinarazi du haurdunaldian tratu txarrak jasan dituela.[17]

---

12 http://www.separadasydivorciadas.org/violencia.asp

13 Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa (2006).

14 Aguilar Redorta, L. (2004) «Hijos e hijas de la violencia», Emakume bananduen eta dibortziatuen elkarteen federazioa.

15 Soriano Faura, F.J. (2001) «Prevención y detección del maltrato infantil», PrevInfad. Familia eta Komunitateko Medikuntzako Espainiako Elkarteko lantaldea.

16 Lorente, Sánchez de Lara, Naredo (2005).

17 Ikus Mestre Mº V., Ana Mª Tur, A. eta Samper P. (2006).

Adin eta sexu taldeka, familian tratu txarrak jasan dituzten adingabeei buruzko datuek baieztatzen dute neskatilek dutela tratu txarren biktima nagusi izateko joera eta, gainera, mutilekiko aldea gero eta handiagoa dela. 2001. urtean, tratu txarrak jasan zituzten biktimen % 55 neskatilak izan ziren, eta % 44 mutikoak. 2005. urtean, 4.077 neskatilek jasan zituzten tratu txarrak (% 63,3) eta 2.361 mutiko izan ziren tratu txarren biktima (% 36,7).[18]

Horrela, familiako egitura hierarkikoaren barruan, *generoa eta adina* dira desorekaren ardatz; hain zuzen ere, emakumeak, haurrak eta adin nagusikoak dira familian indarkeria jasaten duten biktima nagusiak.[19]

Seme-alabak beren amek jasaten duten genero indarkeriaren biktima direlako premisa abiapuntu hartzen badugu, aipatutako estatistikak kontuan izanik, ondorioztа dezakegu gehiago direla indarkeria hori jasaten duten haurrak, biktima diren emakumeak baino.

[18] Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa (2006).

[19] Patró eta Limiñana (2005).

# 3. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN HAURREN ESKUBIDEAK

Zuzenbide arloan genero indarkeriaren biktimekin lan egitean, bi oztopo handi daude: alde batetik, gaiaren konplexutasuna eta arreta ematen zaien biztanleen ezaugarriak (beren gaitasun eta trebetasun pertsonalak direla eta, zuzenbideko terminologia ulertzeko zailtasunak izan ditzakete). Eta, bestetik, profesionalaren gaitasun edo ezagutza falta kontzeptu horiek azaltzeko orduan; batez ere, kontuan izan behar baita hainbat zerbitzutan dihardutzen profesionalek berengana jo dutenen konfiantza lortu behar dutela, eta haien beharrak ezagutzea ahalbidetuko dioten enpatia sortu behar dutela, behar horiek beren interesei ahalik eta modu egokituenean betetze aldera.

Argitasun eta soiltasun beharra eta zenbait oinarrizko ezagutza juridikoren zehaztasuna bateratuz, ibilbide juridiko txiki bat proposatu da, eta gai bakoitzari dagozkion erreferentziak egin dira.

Hau da proposatu den lehenengo gaia: zein gauza egin ditzakete haurrek beren kabuz? Erantzunik zehatzena hau izango litzateke: «gure antolamendu juridikoak debekatzen ez dizkien guztiak». Erantzun hori «**kontzeptu juridiko zehaztugabeak**» deituriko multzoan sartuko litzateke. Hain zuzen ere, multzo horretakoak izango lirateke lehen begiratuan kontrolatzeko edo neurtzeko gai izango ez ginatekeen kontzeptu orokorrak.

Ordenamendu juridikoa osatzen duen arau multzoari, hizkera arruntean, «**Zuzenbide**» esaten diogu, eta guztion ongizaterako giza jokabideak antolatzeko saiakera da.

Ordenamendu juridikoa iturri esaten zaien arau multzo batek osatzen du, eta arau horiek askotarikoak izan daitezke. Hortaz, hauek dira gure ordenamendu juridikoko iturriak: Legea, ohitura eta Zuzenbideko printzipio orokorrak[20], eta multzo hori osatzen dute nazioarteko itunek eta, egoera jakin batzuetan, epaileek ordenamendu juridikoaren gainean egiten duten interpretazioak edo jurisprudentziak.

Araua demokratikoki hautatutako herriaren ordezkariek egiten dute, eta gure nahimena hautestontzietan ematean herritarrek ematen dieten agintea onartzen dute (botere legegilea). Teknikoki gara dadin, Administrazio publikoetako hainbat erakunderi eman edo ahalmena ematen zaie, baina erakunde horiek ezin dute arauak zehaztutako jarraibideetatik irten (botere betearazlea). Epaileek eta auzitegiek dute arauak behar bezala betetzen eta garatzen direla zaintzeko ardura (botere judiziala).

Ordenamendu juridikoaren irudi nagusia «**pertsona**» da, eta Zuzenbidearen xedea da pertsonaren duintasuna aintzatestea eta babes irmoena eta baldintzarik gabea ematea.

Pertsonak eskubideen titular izateko eta harreman juridikoen zati izateko ahalmenari «**gaitasun juridiko**» esaten zaio, eta ez du pertsonak inolako jarduerarik egin dezan eskatzen. Gaitasun hori ez da ematen, pertsona izate soilagatik dagoeneko badugulako (duintasuna). Zuzenbidea arduratzen da guztiz aintzatetsita izan dadin, eta osotasunean gozatu eta garatu dadin mekanismoak sortzen ditu.

«**Jarduteko gaitasuna**» pertsonok geure kabuz geure eskubideak gauzatzeko dugun ezaugarria da; alegia, geure nahia kontzienteki adierazteko dugun ezaugarria. Hori posible ez balitz, gaitasun hori osatzen duena legezko ordezkaria izango da, dela legezko xedapenez, dela agindu

---

[20] Kode Zibileko 1.1. artikulua, Konstituzioko 96. artikuluarekin bat, eta Kode Zibileko 1.5. artikulua. «... Nazioarteko itunak, baliozki eginak. Behin Espainian ofizialki argitaratzen direnean, barne ordenamenduko zati izango dira...». Horrek berekin dakar Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena gure ordenamendu juridikoaren zati izatea.

judizial bidez (aita, ama, tutorea, eta abar). Aldearen adibide bat izan daiteke jaioberri bat zaldi baten jabe dela pentsatzea:

- Ba al du gaitasun juridikorik? Bai, zaldiaren jabea izan daiteke, eta horrek ez dio haurrari jarduerarik eskatuko.
- Ba al du jarduteko gaitasunik? Ez, besteak beste, ezin duelako bere nahia kontzienteki adierazi.

Egunero esaten dugu zerbait egin dezakegula hura egiteko «**eskubidea**» dugulako; hau da, arau batek interes bat babesten du gure alde. Aurkitu dugun adierazpen grafikoena eta osoena De Castro irakaslearena da[21]: «... *eskubide subjektiboa da pertsona bati nolabaiteko errealitate sozialaren gainean emandako botere egoera jakin bat (komunitate juridikoko kide aktibo gisa), eta haren erabakimenaren pean uzten da haren jarduera eta defentsa* ...». Agian, adibide batekin ikusiko dugu definizioan ez dagoela ezer sobera. Pentsa dezagun bozketa bidez hauteskundeetan parte hartzeko eskubidean:

- Gure inguruan bizi diren guztiek ezin dute bozkatu; adibidez, turistek edo legezko egoitza baimenik ez dutenek (teknikoki, ez dira komunitate juridikoko kide aktibo).
- Botere egoera zehatza nahimena adieraztea da, hautestontzien bitartez, jartzen den egunean eta zehaztutako orduen barruan, eta, betiere, erroldan behar bezala izena emanda daudenean.
- Bozkatzeko edo ez bozkatzeko erabakia (eskubidea erabiltzea) edo norbaitek bozkatzea eragozten digunean erreklamazioa egitea (defendatzea) geuri dagokigu.

Laburbilduz: zenbait gaitasun seme-alabek landu behar dituzte zuzenean (ematen zaien hezkuntza barneratzea edo gazteen elkarte bateko kide izatea), eta beste gaitasun batzuetan gaitasun horiek legez dituztenek jarduteko gaitasuna osatu beharko dute (higiezin bat erostea, adibidez).

Interesgarria da Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa aztertzea, haurren aurkako indarkeriaren inguruan esparru juridikoan den dokumentu eta oinarri garrantzitsuena baita.[22]

**Konbentzioa, baldintza orokorretan, haurrek gizaki diren aldetik (hau da, eskubideen gizaki aktibo, eta ez babestua izateko eskubidearen objektu pasibo soil) dituzten eskubideen nazioarteko aintzatespena ezarriko duen lehen itun unibertsal eta alde anitzekotzat jo daiteke**. Ikusmolde hori haurren aldeko lanerako ikuspegi berriaren oinarria da. Giza eskubideetan du oinarria eta ez, lehenago bezala, ikuspegi tradizionalean, alegia, beharrak laguntza eta karitate ikuspuntutik betetzean zetzan hartan. Konbentzioa egin zenetik, nazioartean haurren eskubideak betetzen direla bermatzeko betebeharra dago.

Nazioarteko konbentzio batek Estatu baterako Lege maila izan dezan, Estatu horrek sinatu eta gero berretsi egin behar du. Konbentzioa aho batez onartu zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1989ko azaroaren 20an, eta nazioartean berretsiena den dokumentua da. Garrantzi handia du, Estatuek dokumentua nahitaez berrestu beharra dutelako. Nazioarteko Lege izaerak, lehenagoko bestelako testuek ez bezala, Estatu kideak behartzen ditu legea ezarriko dela ziurtatzera. Horretarako, beren barneko legedia konbentzioaren testura eta haren eskumenari atxikita dagoen haur bakoitzera egokitu beharko dute. Orobat, haurrak babesteko neurri egokiak sustatzera ere

21 Introducción al estudio del Derecho. Ricardo de Ángel Yagüe, Deustuko Unibertsitatea, 1978, 264. orrialdea.

22 Save the Children, Educa no Pegues kanpaina (1999)

behartuko ditu, bai eta, Nazioarteko Komunitatearen aurrean, haurren eskubideak errespetatzeko beren ekintzen erantzule izatera ere.

Laburbilduz, **Konbentzioa legezko testu loteslea da berretsiko duten Estatuetan**. Gaur egun, hain zuzen ere, Nazio Batuetako kide diren estatu guztietan, AEB eta Somalian salbu. **Espainiak 1990eko urtarrilaren 26an sinatu zuen konbentzioa; urte bereko azaroaren 30ean berretsi zuen, eta 1991ko urtarrilaren 5ean sartu zen indarrean**.

Haurren eskubideei buruzko konbentzioak giza eskubideen esparru guztia biltzen du. Hau da, eskubide zibilak eta politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturakoak hartzen ditu aintzat, eta inplizituki baieztatzen du eskubide bat izatea ezin dela bereizi gainerakoez gozatzeko aukeratik: haurrek, beren gaitasun fisikoak, intelektualak, moralak edo espiritualak gara ditzaten, osasun arreta edo hezkuntza egokia behar dute, bai eta gizarte eta familia giro osasuntsua eta segurua ere, elikadura orekatua edo komunikabideen jarduera arautuko duten gutxieneko arauak ere.

Funtsezko oinarrizko printzipioen zirriborroa aurkezten duen hitzaurreak eta 54 artikuluk osatzen dute testua. Artikuluak hiru ataletan daude egituratuta:

- lehen atalak 1 eta 41 arteko artikuluak hartzen ditu, eta Nazioarteko Komunitateak haurrei aintzatesten dizkien eskubideak zehazten ditu (Estatu kideek hartzen dituzten betebeharren ikuspuntutik adierazi dira);
- bigarren atalak 42 eta 45 arteko artikuluak biltzen ditu, eta konbentzioan xedatutakoa beteko dela kontrolatzeko mekanismoa ezartzen du. Horretarako, **Haurren Eskubideen Batzordea** eratzea adostu zen, Estatuak konbentzioa ezartzean egindako aurrerapenen segimendua egin zezan. Batzordeak Estatu kideek aldian-aldian aurkezten dituzten txostenak aztertzen ditu eta gomendioak egiten ditu;
- hirugarren atalak 46 eta 54 arteko artikuluak hartzen ditu barne, eta konbentzioa ezartzeko baldintzak xedatzen ditu: indarrean sartzea, zuzenketak, erreserbak, eta abar.

Genero indarkeriaren biktima diren haurrei eman beharreko arreta juridikoa aztertzeko orduan, argitu beharreko zenbait kontzeptu garrantzitsu daude.

## A. HAURRAREN INTERESA GAILENTZEN DA

Konstituzioko 9.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, botere publikoei dagokie:

- gizabanakoaren eta hura barne hartzen duten taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izateko baldintzak sustatzea;
- oztopoak kentzea, baztertzea edo saihestea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, bai eta ekonomian, kulturan eta gizartean ere.

Haurren interesa gailentzeak berekin dakar pertsona diren aldetik beren funtsezko eskubideak, beren duintasuna, babestea eta bermatzea, eta Konstituzioko 10.1. artikuluan aintzatetsitako beren nortasuna[23], balioak eta eskubideak libreki garatzea sustatu behar dira (duintasuna eta nortasuna libreki garatzea eta oinarrizko eskubideak).

[23] Horri lotuta, ikus CDNko 1. artikulutik 41.era artekoak eta, besteak beste, Konstituzioko 10. artikulua.

Eta, era berean, Konstituzioko 39. artikuluan honako hau dago xedatuta:

1. Botere publikoek familiaren babes soziala, ekonomikoa eta juridikoa ziurtatuko dute.
2. Botere publikoek, halaber, seme-alaben babes osoa ziurtatuko dute; seme-alaba horiek berdinak izango dira Legearen aurrean, beren eta amaren familia lotura kontuan izanik, edozein dela ere bere egoera zibila. Legeak aitatasunaren inguruko ikerketa egitea ahalbidetuko du.
3. Aitek ezkontzan edo handik kanpo izandako seme-alabei laguntza eman behar diete adingabeak direnean eta legez egoki izango diren gainerako kasuetan.
4. Haurrek beren eskubideez arduratzen diren nazioarteko hitzarmenetan xedatutako babesa izango dute.

Save the Children erakundearen ustez, haurraren interesa gailentzearen printzipio horretan oinarrituta, haurrak izan behar du lehentasuna beharrak ebaluatzean eta beharrei egokitutako laguntza ematean, genero indarkeria nozitzen duen familiaren bat aurkitzen denean.

## B. GURASO AHALA[24]

Jarduteko gaitasuna osatzeko aurreikusitako irudia da. Kode Zibileko 154. artikuluaren arabera, guraso ahalak eginkizun eta gaitasun hauek barne hartzen ditu:

- Zaintzea
- Beren lagun izatea
- Elikatzea
- Heztea eta prestakuntza osoa ematen saiatzea
- Haien ordezkari izatea
- Haien ondasunak administratzea

Seme-alabek zentzu nahikoa badute, entzun egin beharko zaie haiengan eragina izango duten erabakiak hartu aurretik. Gainera, gurasoek, beren agintea gauzatzean, agintarien laguntza eskatu ahalko dute.

Seme-alabek, gurasoen agintepean dauden bitartean, betebehar hauek izango dituzte:

- Gurasoei jaramon egitea eta haiek beti errespetatzea
- Familiako zamak arintzen ekitatiboki laguntzea, ahal duten neurrian

Hauek dira guraso ahalaren ezaugarri nabarmenenak:

- ukaezinezkoa,
- emanezina eta
- preskribaezina da.

Hau da, uko egin ezin zaion betebeharra da, eta behar hori alde batera uztea familia abandonatzea esaten zaion delitua izan daiteke. Ezin da transmititu, salbu administrazioaren babeseko, egitezko zaintza, zaintza administratiboko edo adopzio kasuetan. Adin nagusitasunera iristean, burujabetzean, hiltzean edo heriotza-adierazpena egitean iraungiko da (ezgaitasunak dituztenean izan ezik).

[24] Kode Zibileko 154 - 171. artikuluak. Ikus 54/2007 Legea (2007ko abenduaren 28koa), nazioarteko adopzioari buruzkoa (BOE, 2007-12-29, <http://www.boe.es/días/2007/12/29/pdfs/A53676-53686.pdf>). Lehenengo azken xedapenean, 154. artikuluko azken tartekia desagerrarazi du: «arrazoizko zuzenketa» ahalbidetzen zuena, alegia.

## c. Zaintza eta harrera

Babes betebeharrak betetzen ez diren edo behar ez bezala gauzatzen diren kasuetan, haurrak *behar duen laguntza* moralik edo materialik ez duenean, haurra babesgabetasun egoeran dagoela esaten da. Kasu horietan zaintzailearen irudia ezartzen da; zaintzailearen bitartez, erakunde publiko batek hartzen du behar horiek betetzeko ardura.

Batzuetan, «*behar duen laguntza*» hori familiak jasan duen tratu txar egoerak eragiten du. Tratu txar horiek fisikoak edo moralak izan daitezke, eta tratu txar ekonomikoa esaten zaion horretan adierazten da bortizki. Tratu txar ekonomikoan biktimaren nahia gainditzeko beharrezko zapalkuntza gertatzen da, eskubidea gehiegi erabiliz edo eskubidea modu antisozialean erabiliz, biktimei loturiko alderdi ekonomiko guztietan. Horrela, itxuraz legezkoa den amaraunean gatibu aurkitzen dira, erasotzailearen mende. Legeak ez du horrelako egoeretan laguntzen.[25]

Hori dela eta, eta geroago azalduko dugunaz gain, ez gaitu beldurtu behar edozein tratu txar mota salatzeko aukerak. Salaketa horrek ez dizkigu guk gure seme-alaben gainean ditugun eskubideak kenduko, ez dizkigute gure «seme-alabak kenduko». Alderantziz: benetako egoera argitara emango du eta haurren portaera arauak sendotuko ditu. Hori bai: interesgarria da aldez aurretik aholkua eskatzea, teknikoki eraginkorra izango den eta egin beharko diren administrazio izapideak edo izapide prozesalak saihestea ahalbidetuko digun estrategia prestatzea, eta izapide horietatik pasatzea libreki onartzea. Bukatzeko, esan genezake ezin dugula txirristatik behera geure burua bota, aurrez handik nola jaitsi azaldu ez badigute.

Egiazki, behin-behinean, «*behar duen laguntza*» falta den kasu horietan, harrera irtenbide iragankor interesgarria da, jarraian azaldu diren ñabardurak kontuan izanik.

**Harrera** esaten zaio erakunde publiko eskudunak adingabearen zaintza eta babesa bere gain hartzeari, gurasoek edo tutoreek hala eskatzen dutenean (inguruabar larriak direla eta adingabea ezin dutenean zaindu) edo Legeak erakunde horiei ematen dioten babes eginkizuna gauzatzean.

Hauek dira familia-harrera modalitateak, xedearen arabera:

- **Familia-harrera soila**: babes neurri egonkorrago bat adostu arte adingabearen zaintza bermatzea du xede. Behin-behinekoa da, adingabea bere jatorri familian berriz sartzea aurreikusten delako edo babes neurri egonkorragoa hartu arte adostu dena delako.
- **Familia-harrera iraunkorra**: adingabeen adinaren edo haien edo beren familien bestelako inguruabarren arabera, hala gomendatzen delako erabiltzen da. Horrelako kasuetan, erakunde publikoak epaileari eska diezaioke hartzaileei beren erantzukizunak gauzatzea erraztuko dieten tutoretza gaitasunak eslei diezazkiela.
- **Adopzio aurreko familia-harrera**: normalean, adopzio aurreko egoera izaten da, eta adingabearen eta beren adopziozko familia izango dela aurreikusiko den familiaren arteko aldez aurreko bizikidetza aldia ezartzea du xede, ea haien artean hasiko den harremanak familia loturen garapen ona iragartzen duten egiaztatze aldera. Erakunde publikoak formalizatuko du, agintari judizialak adingabearen adopzio proposamena egiten duenean. Ahalik eta iraupen laburrena izango du eta, edozein kasutan ere, ezingo du urtebete baino luzeago iraun.

[25] Kode Zibileko 7.2. artikulua.

## D. Adin nagusitasuna eta emantzipazioa

Guraso ahala luzatzen den edo pertsonaren baten ezgaitasuna adierazten den kasuetan salbu, jarduteko gaitasun osoa adin nagusitasunera iristean lortuko da. Adin hori, bai gure ordenamendu juridikoan, bai eta Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan ere, 18 urte izango da.[26]

Hala ere, printzipio orokorra den arren, baditu salbuespenak; eskubide guztiak ezin dira erabili une horretatik aurrera. Horrela, ikus dezakegu laneko erretiro pentsioa jasotzeko beharrezkoa dela gutxieneko kotizatze aldiak betetzea[27] edo gutxieneko adina izatea.[28]

Bestalde, adin hori bete aurretik ere izan daiteke negozio jakin batzuetarako gaitasuna, emantzipazioa gertatu baldin bada.

Emantzipazioa egoera juridikoa da, eta horri jarraikiz, 16 eta 18 urte artekoa bere buruaren eta ondasunen jabe izan daiteke adin nagusikoa balitz bezala (Legean xedatutako kasu berezietan izan ezik). Guraso ahala dutenek emantzipazioa eman dezaten, adingabeak hamasei urte beteta izan beharko ditu eta ados izan beharko da. Emantzipazioa eskritura publiko bidez emango da edo, bestela, erregistroko arduraduna izango den epailearen aurrean agertuta.[29]

## E. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

Nahiz eta egia den estatu bakoitzeko arauek zuzentzen dituztela giza eskubideen aldarrikapen unibertsala (Batzar Nagusiak bere 1948ko abenduaren 10eko 217 A (III) ebazpenean onartua eta aldarrikatua)[30] eta Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa (New Yorken onartua, 1989ko azaroaren 20an)[31], onuragarrienak izan daitezkeen moduetan, haurren eskubideak kategoria hauen arabera sailka daitezke:

- **Bizirauteko eskubideak**: bizitzeko eskubidea eta behar oinarrizkoenak (elikatzea, janztea eta osasun babesa) betetzeko eskubidea babestea eta bermatzea dute jomuga.
- **Garatzeko eskubideak**: haurren garapen osoa (fisikoa, espirituala, morala eta soziala) babestea eta bermatzea dute xede; besteak beste, hezkuntzarako, kulturarako, jolaserako eta pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasunerako eskubideak.
- **Babestuak izateko eskubideak**: abusurik, arduragabekeriarik eta esplotaziorik jasan ez dezaten babestea eta halakorik jasango ez dutela bermatzea dute jomuga; besteak beste, izena izateko eskubidea (nortasuna), herritartasuna izateko eta zaindua izateko eskubideak.
- **Parte hartzeko eskubideak**: eragiten dieten erabakietan eta beren komunitateetako eta herrialdeetako jardueretan parte hartzea bermatzea eta babestea dute helburu; adierazpen askatasuna, esate baterako.

26 CDNko 1. eta 37. artikuluak, eta 1978ko Konstituzioko 12. artikulua.

27 Beraz, legearen arabera 16 urte baino lehen lanean hasi ezin denez -eta, ondorioz, kotizatzen hasi ezin denez-, ezinezkoa izango zaie gutxieneko aldi hori izatea.

28 25 urte, Cc-ko 175. artikuluaren arabera.

29 Kode Zibileko 214. artikulua eta hurrengoak

30 http://www.justizia.net/Docuteca/ficheros.asp?intcodigo=2828&IdDoc=SP&Idioma=sp

31 Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa, Batzar Nagusiak bere 44/25 ebazpenean (1989ko azaroaren 20koa) onartua eta sinatzeko eta berresteko irekia. 1990eko irailaren 2an sartu zen indarrean, 49. artikuluari jarraikiz. http://www.unhchr.ch/spanish/html/menu3/b/k2crc_sp.htm

Konbentzioa, baldintza orokorretan, haurrek gizaki diren aldetik (hau da, eskubideen gizaki aktibo, eta ez babestua izateko eskubidearen objektu pasibo soil) dituzten eskubideen nazioarteko aintzatespena ezartzen duen lehen itun unibertsal eta alde askotakotzat jo daiteke. Haurren giza eskubideen alde lan egiten da, ez soilik gizarte laguntzaren edo karitatearen ikuspegitik haien beharrak asetzearen alde. Konbentzio horri esker, nazioarteko komunitateak haurren eskubideak beteko direla bermatzeko eta haien duintasuna zaintzeko betebeharra dute.

Nazioartean berretsiena den dokumentua da. Ez da behar atxikimendu kopuru jakinik indarrean sar dadin. Nahitaezkoa da berresten duten Estatuetan[32] eta barneko legedia Konbentzioaren testura egokitzeko betebeharra dakar berekin. Gainera, konbentzioaren jurisdikzioari atxikitako haur guztiei aplikatu behar zaie. Halaber, sinatu duten Estatuek haurren babesa bermatzeko neurri egokiak sustatu beharko dituzte, eta Nazioarteko Komunitatearen aurrean haurren eskubideei dagokienez egindako ekintzen erantzule izan beharko dira.

Haurren eskubideei buruzko konbentzioak giza eskubideen esparru guztia biltzen du. Hau da, eskubide zibilak eta politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturakoak hartzen ditu aintzat, eta inplizituki baieztatzen du eskubide bat izatea ezin dela bereizi gainerakoez gozatzeko aukeratik: haurrek, beren gaitasun fisikoak, intelektualak, moralak edo espiritualak gara ditzaten, osasun arreta edo hezkuntza egokia behar dute, bai eta gizarte eta familia giro osasuntsua eta segurua, eta elikadura orekatua edo komunikabideen jarduera arautuko duten gutxieneko arauak ere.

Funtsezko oinarrizko printzipioen zirriborroa aurkezten duen hitzaurreak eta 54 artikuluk osatzen dute testua. Artikuluak hiru ataletan daude egituratuta:

- lehen atalak 1 eta 41 arteko artikuluak hartzen ditu, eta Nazioarteko Komunitateak haurrei aintzatesten dizkien eskubideak zehazten ditu (Estatu kideek hartzen dituzten betebeharren ikuspuntutik adierazi dira);
- bigarren atalak 42 eta 45 arteko artikuluak biltzen ditu, eta konbentzioan xedatutakoa beteko dela kontrolatzeko mekanismoa ezartzen du. Horretarako, Haurren Eskubideen Batzordea eratzea adostu zen, Estatuak konbentzioa ezartzean egindako aurrerapenen segimendua egin zezan. Batzordeak Estatu kideek aldian-aldian aurkezten dituzten txostenak aztertzen ditu eta gomendioak egiten ditu;
- hirugarren atalak 46 eta 54 arteko artikuluak hartzen ditu barne, eta konbentzioa ezartzeko baldintzak xedatzen ditu: indarrean sartzea, zuzenketak, erreserbak, eta abar.

Gure ordenamendu juridikoan aplika daitekeen oinarrizko araudia ere aurki dezakegu, besteak beste[33], gorputz juridiko edo erakundeen erreferentzia hauetan:

- Beijineko arauak.
- Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna.
- Conventions du Conseil de l'Europe sur les droits de l'enfant.
- Haurren babesari eta nazioarteko adopzioen arloko lankidetzari dagokion hitzarmena, 1993ko maiatzaren 29an Hagan egina.
- Espainiako 1978ko Konstituzioa.[34]
- 1/1996 Lege Organikoa (1996ko urtarrilaren 15ekoa), Adingabeen Babes Juridikoari buruzkoa.

[32] Gaur egun, Nazio Batuetako herrialde guztiek berretsi dute, Estatu Batuek eta Somaliak izan ezik. Espainiak 1990eko urtarrilaren 26an sinatu zuen konbentzioa; urte bereko azaroaren 30ean berretsi zuen, eta 1991ko urtarrilaren 5ean sartu zen indarrean.

[33] Ikus bibliografia aipuak.

[34] Ikus, gutxienez, 9.2., 12. eta 39. artikuluak.

- 3/2005 Legea (2005eko otsailaren 18koa), haurrei eta nerabeei arreta eta babesa emateari buruzkoa. (Euskal Herrian aplikatzekoa).
- 5/2000 Lege Organikoa (2000ko otsailaren 12koa), adingabeen erantzukizun penala arautzen duena.
- Kode Zibila.
- Reina Sofía zentroa, Autonomia Erkidegoko araudia aipatzeko.
- Arartekoa, adingabeei buruzko hainbat erreferentzia.

Haurrei eta nerabeei arreta eta babesa emateari buruzko 3/2005 Legean (2005eko otsailaren 18koa, Euskal Herrian aplikatzekoa) jasotako eskubideen eskema:

- oinarrizko eskubideak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . (10-17. artikuluak)
- osasunerako eta osasun arretarako eskubidea . . . . (18-21. artikuluak)
- hezkuntzarako eskubidea . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . (22-25. artikuluak)
- kulturarako eskubidea . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . (26-33. artikuluak)
- denbora libre aktiborako eskubidea . . . . . . . . . . . . . (34-35. artikuluak)
- ingurumenerako eskubidea . . . . . . . . . . . . . . . . . . . (36-37. artikuluak)
- ingurunerako eskubidea . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . (38-39. artikuluak)
- gizarteratzeko eskubidea . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . (40-44. artikuluak)

Sinopsi gisa, Kode Zibileko eta Euskal Herriko araudiko arauen arteko alderaketa txikia erantsi dugu:

ARAUDIAREN ALDERAKETA

| | KODE ZIBILA | EUSKAL HERRIKO 3/2005 LEGEA, 2005-02-18[35] |
|---|---|---|
| Betebeharrak | 155. artikulua | 45. artikulua |
| Legezko ordezkaritza | 162. eta 163. artikuluak | 46. artikulua |
| Ondasunak administratzea | 164-168. artikuluak | |
| Guraso Ahalaren iraungitzea | 169-171. artikuluak | |
| Zaintza eta harrera | 172. artikulua | 64-69. artikuluak |
| Adopzioa | 175-180. artikuluak | 82. eta 85. artikuluak |
| Tutoretza | 215-222. artikuluak | |
| Egitezko zaintza | 303. artikulua | |
| Adinez nagusia | 314. artikulua | |
| Emantzipazioa | 314-324. artikuluak | |

[35] 3/2005 Legea (2005eko otsailaren 18koa), haurrei eta nerabeei arreta eta babesa emateari buruzkoa.
http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&f=20050330&a=200501476
http://noticias.juridicas.com/base_datos/CCAA/pv-l3-2005.html

Dagoeneko azaldu dugunez, botere publikoei dagokie eskubideak eta askatasunak guztiz betetzeko oztopoak kentzea.

Araudi prozesala, bere jurisdikzio guztietan, adin nagusiko pertsonentzat dago pentsatuta. Hori dela eta, bere-berezko eskubideen kasuan salbu, haurren jarduteko gaitasuna osatu egin behar du guraso ahala duenak edo Ministerio Fiskalak (babesgabetasun edo interesen arteko gatazkak daudenean). Arreta ematen du nazioarteko adopzioari buruzko 54/207 Legeak (2007ko abenduaren 28koa) Kode Zibileko 180.5 artikuluari eman dion idazkerak. Izan ere, artikulu horretan, adopzioan hartu den pertsonaren datu biologikoak ezagutzeko eskubidea ematen da, eta oraindik ere xedatuta dago beren kabuz egin beharko dutela behin adin nagusitasunera iristen direnean edo, adingabeak izanik, adopziozko gurasoek ordezkatzen dituztenean. Horretarako, eskatzaileei aholkua eta laguntza emateko zerbitzu berezitua sortu da.

Ministerio Fiskalak adingabeen eta ezgaien interesak zaintzeko legezko betebeharra du, eta aktiboki jardun beharko dute adingabeek eta ezgaiek bere eskubideak eta askatasunak guztiz erabil ditzaten ahalbidetzeko. Hori lortze aldera, babeserako administrazio erakundeek esku har dezaten eragin dezakete[36] edo, bestela, beren interesa lortzeko zentzuko iritziko dieten neurri guztiak judizialki susta ditzakete. Garrantzi berezia du haurren intimitatea babesteko duten zaintza eginkizunak.[37]

Haurrak entzun egin behar dira haiengan eragina duten gai guztietan, betiere zentzu nahikoa dutenean. Baina, jardutean, interpretazio arazoak sortu ohi dira, eta prozesu askotan parte-hartze txikia izaten dute. Epaileek eta auzitegiek hartuko dute erabakia, beren jakinduria eta ulertze leialaren arabera, haurren iritzia baliozta edo bidera dezaketen teknikarien laguntzarik gabe.

Bai prozesu zibiletan, bai eta zigor prozesuetan ere[38], haurrak lekuko izan daitezke 14 urtetik aurrera, beti ere arrazoiaren edo zentzumenen erabilera kenduta ez badute. Hala ere, hamalau urtetik beherakoek lekuko gisa deklaratu ahalko dute, baldin, epaimahaiaren iritziz, egia adierazteko eta ezagutzeko ezaguera nahikoa badute[39]. Eta guraso ahalari loturik eztabaidatu diren gaiei dagokienez, haur horiei entzun ahalko zaie zentzu nahikoa badute eta, nolanahi ere, hamabi urtetik gorakoak badira.[40]

---

[36] Babesgabetasuna dagoela jotzen denean.

[37] 1/2007 Instrukzioa (2007ko otsailaren 15ekoa) jurisdikzio jardunei eta adingabeen intimitateari buruzkoa.
http://www.fiscal.es/csblob/INSTRUCCIÓN%201-2007.doc?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fmsword&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1109248173454&ssbinary=true

[38] Ikus gai hauen inguruko artikuluak:
- Espainiako Prozedura Kriminalaren Legeko (LECr) 433. artikuluko adierazpena, LECr-ko 448. artikulua (adingabekoei buruzkoa), LECr-ko 706. artikuluari lotua.
- auzi kriminalen lekukoak babestea: 19/94 Lege Organikoko (1994ko abenduaren 23koa) 2.b. artikulua.
- jurisdikzio zibilean: 361 LEC artikulua, lekuko izateko gaitasuna:
«Pertsona oro izan daiteke lekuko, salbu modu jarraituan arrazoirik edo zentzumenik erabiltzerik ez dutenak, gertakizunak zentzumen horien bitartez baino ezagutu ezin dituztenean.
Hamalau urtetik beherakoek lekuko gisa deklaratu ahalko dute baldin, epaimahaiaren iritziz, egia ezagutzeko eta adierazteko beharrezko ezaguera badute.»

[39] Gogoan izan, Kode Penaleko 180.1.3 artikuluaren arabera, pertsona hamahiru urtetik beherakoa denean bortxaketatzat jotzen dela.

[40] Kode Zibileko 156. artikulua.

Ondareari loturiko gaiez haratago (zaldi baten jabea izatea, adibidez), adingabeen parte-hartzea beren legezko ordezkarien bitartez egiten denean, Familia Zuzenbideko prozesuetatik eratorritako gaietan, adingabeen parte-hartzea ekipo tekniko psikosozialen bitartez bideratu beharko litzatekeela ulertzen dugu. Hori izan da haien erantzukizun penala eskatzeko prozesuetan erabili izan den irtenbidea. Familia barneko harremanei dagozkienetan, baina (zaintza, babesa, tutoretza, eta abar)[41], ahal hori epaitzailearen erabakimenaren mende geratzen da. Epaitzaile horrek, era berean, agenda judizialean zehaztutako produktibitate oztopoen eta helburuen mende jokatu behar du.

Azken urteotan hainbat jurisdikziotan gauzatutako aldaketa prozesalek gatazka jakin batzuk azkarrago ebaztea eta kautelazko neurriak modu arinagoan hartzea ekarri du. Era berean, baina, prozesu horietan eta prozesuon ondorioetan haurrek duten «ikusezintasuna» nabarmenago egin dute. Babesteko Aginduen eta epaiketa azkarren arteko elkarketa horren adierazle argia da. Dena den, Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiak sortzeak disfuntzio horiek zertxobait bigundu ditu, kontuan hartuta, prozesu penalaren bideratzeaz gain, Familia Zuzenbide arloko gaietan neurriak hartzea erakartzen dutela haienganantz.

Aurrekoa gorabehera, gatazkak ebazteko bestelako sistema bat erabiltzea -alegia, bitartekotza erabiltzea- posible den egoeretan[42], haurrek parte-hartze aktiboagoa dute eta diziplina anitzetako ekipoetako adituek bideratzen dute hori. Izan ere, aditu horiek parte-hartzaileen beharrak egiaztatzen dituzte, eta haietarako egokiak diren konponbideak proposatzen.

Laburbilduz, «oztopoak kentzea» ahalik eta modu egokienean haurren beharrak ezagutzeko mekanismoak sortzean eta, behar horiek betetzen saiatuz, haurren gizarteratze osoa erraztean datza. Haurrak ezin dira izan amen bizkarzorro soil. Halaber, haiei loturiko neurriak hartu ez ezik, amak alde batera utzita balioztatu behar diren beren beharrak dituzte, eta formalki aintzatesten zaien duintasuna onartu behar zaie.

41 Kode Zibileko 92.6 artikulua.

42 Horri dagokionez, ikus: adin txikikoen zigor arloko jurisdikzioan gauzatzen diren kalte ordain prozesuetan egiten diren jarduerak; bitartekotza penalean berriki egin diren esku-hartzeak; familia bitartekotzako ekipoen esku-hartzea edo hezkuntza ordezkaritzetako bizikidetza batzordeen esku-hartzea.

# 4. HAURREN GARAPEN EBOLUTIBOAREN ALDERDI GARRANTZITSU BATZUK

Gizakia da erabat independente izan aurretik gurasoen mende denbora luzeenez izaten den ugaztuna. Hori aldatu egiten da garatzen diren familiaren, gizartearen eta kulturaren arabera baina, hori gorabehera, haurra ez da gai osasuntsu hazteko bizitzako lehen urteetan, gutxienez, gurasoen afekturik, hezkuntzarik eta haiek emandako jakirik jaso gabe.

Zer behar dute haurrek osasuntsu hazteko? Agerikoa da guztiontzat haurrek janaria, aterpea, ariketa fisikoa eta lo ordu asko behar dutela fisikoki osasuntsu hazteko, eta badakigu eskolara joatea behar dutela adiskideak egin eta irakurtzen eta idazten ikasteko. Baina, zer behar dute haurrek emozionalki osasuntsu hazteko eta ingurukoekin harreman egokiak izateko? Horretarako, lotura osasuntsuagoa eta seguruagoa behar dute beren bizitzako lehen urtetan haiek hazteaz arduratuko diren helduekin.

Haurtxoak, oso gazte direnetik, gai dira gurasoen gogo aldarteari antzemateko, eta haien begirada, irribarrea eta kontsolamendua bilatzen dute lasai eta kontsolatuta senti daitezen. Bestela, haurrek gurasoengandik lasaitasunik eta euskarririk jasotzen ez badute, herstura eta artegatasuna sortzen zaie bizitzako lehen hiletan. Haurrek gurasoekin ezartzen duten harreman mota eta gurasoen artean ezartzen den harremanak eragin zuzena du haurren garapen emozionalean.

Haurren garapen ebolutiboaz hitz egitean haurrak ondo egon daitezen esku hartzen duten askotariko alderdiak aipatzen dira. Haur bakoitzak, igarotzen ari den etapa ebolutiboaren arabera, beren garapen arlo askotarikoetan gaitasunak eskuratzen ditu. Etapa horiek zuzeneko lotura dute heltzearekin. Haur guztiek bizi izaten dituzte etapa horiek, baina aldeak agertzen dira jokabide horiek azaltzen diren uneetan, bestelako familietan eta gizarte inguruetan hazten direlako. Hala ere, badira garapen hoberena bermatzen duten gutxieneko baldintza batzuk, jakina, eta baldintza horiek haurren eskubideen agirian daude jasota. Orobat, haurrek dituzten testuinguru, estimulazio eta motibazio motek ere eragin handia dute haien garapen moduan.

Haur psikologian egin diren ikerketan[43] garrantzi handia eman zaio lehen haurtzarotik haurren garapen prozesuan haurren eta atxikita dauden irudien artean izan daitezkeen askotariko lotura motek duten eraginari.

Haurren ongizatea eta haien eskubideak bermatzea gurasoek egiten duten ekarpenetik abiatuz lortzen da, bai eta komunitate osoaren gizarte laguntzatik ere, erakundeek maila guztietan eskaintzen dituzten babes baliabideak barne. Ongizate proposamen hori *erantzukidetasun* printzipioan dago oinarrituta. Printzipio horren arabera, guztiok dugu haurren eskubideak bermatzean nolabaiteko erantzukizuna.

Horrek esan nahi du gurasoek ezin dutenean bermatu haurrek behar duten oinarrizko zaintza, erakundeek zaindu behar dutela zaintza hori gauzatuko dela.

Haurren beharrak aldatu egiten dira denbora igaro ahala, eta erantzunak bestelakoak izan behar dira eta aldaketa horietara egokituak izan behar dute. Beharrak betetzean kontuan izan behar dira haurren prozesu ebolutiboak, eta helduek bermatu behar dute eremu fisikoek, afektiboek eta sozialek haurren garapen egokia sustatuko dutela.

[43] Bolwbly (1989), Barudy Jorge eta Dantagnan Maryorie. (2005), Crintteden (2005)

Genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeekin lan egiteak behartu egiten gaitu haien seme-alabak garatzen ari diren baldintzak zaintzearen gainean arreta jartzera. Zein irizpiderekin gainbegiratuko dugu garapen hori? Genero indarkeriaren biktima izan diren seme-alaben arretan erantzun egokiak bermatzeko komenigarritzat jotzen da **haurraren garapen ebolutiboa** aztertzea, eta haien garapen psikomotorreko, kognitiboko eta sozioafektiboko jarraibide orokorrak laburbiltzea. Geroago, **oinarrizko beharrak** azalduko dira, etapa horiekin bat.

## A. Haurren garapeneko etapak: beharrak eta adierazleak

Egokia da haurren garapen ebolutiboaren inguruko ideia orokor bat ematea. Hori hazkuntzan dituzten lorpenen gaineko zenbait adierazle ezagutzean datza.

Hiru arlo hartu dira aintzat: arlo psikomotorra, gaitasun fisikoak tartean dituena; arlo kognitiboa, pentsamendu, hizkuntza, ikaskuntza eta oroimen gaitasunei dagokiena; eta, azkenik, arlo sozio afektiboa, afektibitate, sozializazio eta nortasuna eratzeko harremanak barne hartzen dituena.

Jarraian, haurren garapen ebolutiboko jarraibide nagusiak azaldu dira, lau adin tartetan sailkatuta: 0 eta 2 urte artean, 2 eta 7 urte artean, 7 eta 12 artean eta 12 eta 18 artean. Adinak erreferentetzat hartu behar dira, izan ere, haurrek gaitasun horiek eskura ditzaketen adinean gorabehera handiak izan baitaitezke.

### *i. 0 eta 2 urte arteko haurren garapena*

Garapen psikomotorra

- Bularra bilatzeko eta zurrupatzeko erreflexua (jaiotza unean)
- Oratze erreflexua (jaiotza unean)
- Objektuak eskuetan eustea (lau hilabete)
- Bira osoa ematea (sei hilabete)
- Burua jasotzea ahuspez etzanda egonik (sei hilabete)
- Esertzea (zortzi hilabete)
- Herrestan ibiltzea (bederatzi hilabete)
- Pilota jaurtitzea (hamar hilabete)
- Katamarka ibiltzea (hamar hilabete)
- Koilara hartu eta ahoan sartzea (urtebete)
- Zerbaiten kontra zutik jartzea (hamar hilabete)
- Oinez ibiltzen hastea, bere kabuz (urtebete)
- Eusteko eta askatzeko eskuak ederki erabiltzea (urtebete eta sei hilabete)
- Ederki oinez ibiltzea (urtebete eta zazpi hilabete)
- Esfinterra trebatzen hastea (urtebete eta zortzi hilabete)
- Korrika egitea, noizean behin eroriz (bi urte)

Garapen kognitiboa

- Jaiotzean mundua zentzumenen, ahoaren eta objektuak manipulatzearen bitartez aztertzen du.
- Irribarrea agertzen du jaiotzen den unetik.
- Beharrak adierazteko negar egiten du.
- Aurpegi eta soinu ezagunak ezagutzen ditu (lau hilabete)
- Objektuei begiekin jarraitzen die (lau hilabete)
- Zezeldu eta barre egiten du helduekin harremanetan (lau eta sei hilabete artean)

- Ihes egin duen objektuak bilatzen ditu (zortzi hilabete)
- Soinuak imitatzen ditu (bederatzi hilabete)
- Lehen hitzak edo soinuak (urtebete)
- Gauzak, ikusi ezin dituen arren, badirela ulertzen du; hau da, bere buruaz haratago mundua dagoela onartzen du (hamazortzi hilabete)
- Agindu errazak ulertu eta gauzatzen ditu (urtebete eta bi urte artean)
- Bigarren urtearen bukaeran, haurrarengan komunikaziorako interes handia sortzen da, eta 50 hitz inguru eta bi hitzeko esaldien egitura ezagutzen ditu.

Garapen sozioemozionala

- Atxikipena duten irudiarekiko erabateko mendetasuna, zainketa fisikoen, higienearen eta laztanen bitartez jasotzen den konfiantza eraikitzen da.
- Begiradak, keinuak eta bokalizazioak trukatzen dira.
- Negar egiten du edo lotsa agertzen du ezezagunen aurrean (zortzi hilabete)
- Atxikipen loturak eraikitzen dira.
- Haurtxoak negarraren, keinuen, zezeltzeen eta lehenengo hitzen bitartez adierazten ditu bere nahiak eta beharrak. Gurasoek eskaera horiek interpretatu eta betetzeak segurtasuna eta sendotasuna ematen dizkio haurrari.
- Objektuen ezaugarriak ezagutzen hasten da.
- Jolasten ari den bitartean aztertu egiten du.

Alderdi kritikoak:

- Haurra gauean hainbat aldiz esna daiteke.
- Negar egin dezake etengabe elikatuta dagoenean eta haur oihala aldatuta duenean ere.
- Negar egiten du ezezagunen aurrean eta ez du nahi izaten oso hurbilekoak ez direnek besoetan har ditzaten.
- Bere irismenean dauden objektu guztiak ukitzeko nahia.
- Etengabe jarduera edo jolasen bat egin dadin eskatzen du.
- Amorrualdiak edo haserrealdiak gero eta sarriago.

*ii. 0 eta 2 urte arteko haurren beharrak*

Behar fisikoak:

- Amagandiko edoskitzea; edo, halakorik ezean, edoskitze artifiziala.
- Haurraren adinaren arabera, beste elikagai batzuk sartzea (ez erabili inoiz elikagaiak sari edo zigor gisa).
- Osasunaren eta garapenaren aldian behingo kontrola, pediatrarenean.
- Adinari dagozkion txertaketak.
- Higiene fisikoa zaintzea (gauero bainatzea gomendatzen da)
- Eguraldi baldintzetara egokituta janztea.
- Lo eta atseden ordu beharrezkoak. Ordutegi egonkorrak eta haurraren beharrei egokituak. Ohera joateko, bainua hartzeko eta otorduetarako ohiturak jartzea oinarrizkoa da haurraren herstura kontrolatzeko.
- Bestelako zaintzaileen jarduera gainbegiratzea.
- Etxean jarduerak eta ariketa eskaintzea.
- Tabakismo pasiboa saihestea.
- Ibilgailuetan segurtasuna.
- Etxebizitzaren ingurua segurua izan dadin eta istripuak saihesteko egokituta izatea, eta

jolas librea eta katamar eta oinez ibiltzeko aukera erraztea (entxufeak babestea, segurtasuna eskaileretan...).

Behar afektiboak:

- Lotura afektiboak ezartzea. Zaintzaile bat edo zenbait uneoro haurrarekin izatea. Helduen gogo aldartea haurtxoengana kutsatzen da; hortaz, haien negarraren eraginez ez artegatzen ikasi behar da eta adinari dagokion gauza normala dela ulertu behar da.
- Zainketa lanak banatzeko eta akidura saihesteko zaintzaile bat baino gehiago izan dadin saiatzea.
- Helduen eta haurren arteko jolaserako eta elkarrekintzarako eremuak eta aldiak:
  - o Musika jarri.
  - o Objektu distiratsuak eta mugitzen direnak erakutsi.
  - o Hozka egin, ukitu eta jaurti ditzaketen objektuak eman.
  - o Haurtxoak dioena entzun eta hari erantzun, bere soinuak imitatuz.
  - o Maiz hitz egin haurrei. Haurrek hitz egiten hasi baino lehenago ulertzen dute; baina ez da espero behar dena errepikatzeko edo ulertzeko gai izan behar dutenik.
- Norbere gorputzaren miaketa.
- Autonomia eraikitzea: «neure kabuz egin dezaket» erako jokabideak erraztea eta haietan arreta jartzea.
- Parekoen arteko harremanak sustatzea, indarkeriarik gabe.
- Urtebete betetzen dutenetik aurrera, independentzia zentzua indartzen hasi behar da. Independentzia bere kabuz lekualdatzen eta bere hitzekin komunikatzen hasteko gaitasunekin sortzen da.
- Pixagura duela ohartarazteko hizkuntza bereganatzen duenean eta bere gorputza libratzeetarako prest dagoenean, pixontzia erabiltzen ikasten hasi.

### *iii. 2 eta 7 urte arteko haurren garapena*

Garapen psikomotorra

- Badaki koilara eta edalontzia erabiltzen (bi urte)
- Bi hankekin salto egiten du (bi urte eta sei hilabete)
- Sei kuboko dorreak egiten ditu (bi urte eta sei hilabete)
- Esfinterra kontrolatzen du (bi eta hiru urte artean)
- Korrika eta jauzi egiten du, eskailerak igo eta jaisten ditu, objektu astunak jasotzen ditu (hiru urte)
- Begien eta mugimenaren koordinazioa ongi garatzen du (hiru urte)
- Oin puntetan ibiltzen da (hiru urte)
- Eskailerak jaisten ditu oinak txandakatuz (hiru urte)
- Liburuetako orriak pasatzeko gai da (hiru urte)
- Bere kabuz janzteko gai da (hiru eta lau urte artean)
- Pilota urruti jaurtitzeko gai da (lau urte)
- Mugimenduak eta bulkadak ondo kontrolatzen ditu (lau urte)
- Berari jaurtitzen dizkieten pilotak harrapatzeko gai da (bost urte)

Garapen kognitiboa

- Gauzei edo pertsonei deitzeko ikurrak eta hitzak erabiltzeko gaitasuna, edo objektu bati erreferentzia egiteko beste objektu bat erabiltzea; koilara telefonoa izan daiteke, esate baterako (bi urte).
- Esaldi errazak egiten ditu (bi urte eta sei hilabete)
- Esaten zaion ia guztia ulertzen du (bi urte eta sei hilabete).
- Ikusten ari ez diren ekintzak imitatzen ditu (hiru urte)

- Gauzen zergatia jakiteko jakin min handia sortzen zaio (hiru urte)
- «Ni» kontzeptua sortzen da (lau urte)
- Genero eta numero ideiak (lau urte)
- Hizkuntza ondo finkatua, esaldi konplexuak egiten ditu (bost urte)
- Irakurtzen eta idazten ikasten du (bost eta sei urte artean)
- Oroimena eta arreta nabarmen handitzen da.
- Hiztegia zabaltzen da.
- Kausa-ondorio harremanak ulertzen ditu.
- Intuiziozko pentsaera garatzen da.

Garapen sozioafektiboa

- Autonomia garatzen du mugimenduaren eta hizkuntzaren bitartez.
- Norbere zaintzako ohiturak bereganatzen ditu: jantzi, garbitu eta dutxa hartu.
- Egozentrismo handia eta besteen tokian jartzeko zailtasunak erakusten dituen etapa (lau urte arte)
- Haserrealdiak eta kasketaldiak agertzen dira, loturik dagoen irudiengandik bereizi nahi baitu, baina irudi horiek bere zerbitzura izan nahi ditu.
- Adiskideekin partekatzen ditu gauzak eta modu laguntzailean jolas egiten ikasten du.
- Generoa identifikatzen du.
- Gorputzaren eta sexualitatearen inguruko jakin-mina. Haurren jaiotzaren eta bikote harremanen inguruko ardura du.
- Biraoak esateak grazia egiten dio.
- Araua kontzeptua ulertu eta bereganatzen du heldu hurbilenen ereduen eta ikasbidearen bitartez.
- Bere atxikipen irudi nagusietan oinarritutako eredua eraikitzen du.
- Irudimena asko garatzen zaio, eta hartan oinarritzen ditu beren jolasak edo idealak.
- Bost urtetik aurrera gutxiago izaten dira haserrealdiak, eta bere inguruan sar daitekeela ikusten du; halaber, bere inguruak aintzat har eta onar dezan bilatzen du.
- Etxeko lanetan edo irakasleari laguntzeko nahia agertzen da.
- Gaueko beldurrak agertzen dira, eta munstroen, animalien eta antzekoen beldurra izaten dute.

Alderdi kritikoak:

- Gauetako beldurrak gero eta sarriago izaten dira, eta horiek gurasoen atsedena eteten dute.
- Helduei proba egiten die, haserrealdi eta kasketaldien bitartez beren nahiak bete ditzaten, eta manipulazioa erabiltzen dute nahi dutena lortzeko.

### *iv. 2 eta 7 urte arteko haurren beharrak*

Behar fisikoak:

- Elikadura haurren adinera egokitu.
- Lotarako ordutegi egokiak erregulatu eta ezarri.
- Bere kabuz jaten irakatsi.
- Zentzumen urritasun posibleak gainbegiratu.
- Motrizitate xehea eta larria gainbegiratu eta sustatu.
- Esfinterra kontrola dezan hezi. Haur oihala kendu, lehendabizi egunean zehar eta, geroago gauetan. Gogoan izan zailagoa dela oihala gauetan kentzea, eta mutilek denbora gehiago behar izaten dutela neskek baino esfinterra kontrolatzeko.
- Adinaren araberako txertoak eman, eta taldeko arriskuak edo arrisku pertsonalak.
- Bere higiene fisikoa zain dezan irakatsi, ahoaren eta hortzen higienea barne.

- Tabakismo pasiboa saihestu.
- Ibilgailuetako segurtasunera egokitu.
- Segurtasunera egokitutako eskolaren antolaketa.
- Igeri egiten, bizikletaz ibiltzen eta bide hezkuntza irakatsi.
- Ohera joateko errituak eta loaren higienea sustatu.

Behar afektiboak:

- Arauak ezarri:
  - o Denen artean hartuko dira erabakiak, baina azken hitza gurasoek izango dute. Horrekin, haurrari erabakiak hartzean parte hartzeko, ulertzeko eta erabaki duenaren erantzukizuna bere gain hartzeko aukera emango zaio.
  - o Arau gutxi izan behar dira.
  - o Argiak eta soilak; idaztea edo marraztea lagungarri izan daiteke.
  - o Etxeko kide guztiekin hitz egin arauen inguruan, eta guztiek bete dezatela dagokiena: koherentzia eta eredua.
  - o Behar adina aldiz eta lasaitasunez errepikatu.
  - o Ez haietaz hitz egin gatazka dagoenean.
  - o Arau horiek izaten jarraitu.
- Parekoekin parte hartu eta elkarrekintzan aritu.
- Jolas sinbolikoak eta arau jolasak.
- Estimulazio egokia, bai fisikoa, bai eta intelektuala ere.
- Harreman gune zabala eta askotarikoa.
- Sexu identitatea eskuratzea.
- Parekoen arteko harremanak sustatu, indarkeriarik gabe.
- Sexuaren inguruko jakin-minaren lehenengo adierazpenak eta parekoen arteko edo beren buruarekiko lehenengo sexu jolasak baimendu, eta ez zentsuratu. Egiten dituzten galderei erantzuna eman eta informazioa eskaini, beren inguruan ikusten dutena uler dezaten.
- Sexu abusuaren aurrean beren burua babesteko tresnak garatu.
- Telebistaren edo webguneen bitartez eskuratzen duten informazioa kontrolatu eta haren aurrean babestu.
- Lo egiteko arazoak baldin badituzte, hona hemen zenbait gomendio:
- Entzun beren beldurrak eta eman babes sentipena, gauetako izualdiak izanez gero lasai daitezen.
- Babesa eman laguntza eskatzen dutenean.
- Ura edatera eraman, berriz ohera eraman eta lagun egin lo hartzen duen arte.
- Lotara joan aurretik estutuko dituzten filmik ikus ez dezaten saiatu, eta ahalegindu egunean zehar eztabaida egin duten haiekin adiskidetu daitezen. Horrek lasaiago lo egin dezaten lagunduko die.

## v. 7 eta 12 urte arteko haurren garapena

Mugimenaren garapena

- Oso azkar hazten da, garaierari eta pisuari dagokienez.
- Trebetasun motor xeheak nabarmen garatzen ditu (margotu, ebaki, idatzi).
- Indarra, bizkortasuna eta bere gorputzaren gaineko kontrola eskuratzen du jolasetan, kiroletan eta, oro har, taldekoak izaten diren jarduera fisikoetan parte hartzearen bitartez (dantza, futbola, bizikleta).

Garapen kognitiboa

- Egozentrismo txikiagoa erakusten du eta ingurukoekiko eta bere inguruarekiko jakin min handiagoa sortzen da; horrek kontzeptu berriak ulertzea eta erabiltzea ahalbidetzen dio.
- Gauzak aldatu eta berriz lehengo egoerara itzul daitezkeela ulertzen du (itzulgarritasuna).
- Gauzen itxura aldatzen den arren, haien egoera, pisua, bolumena, garaiera, kopurua eta hartzen duten tokia berdin mantentzen direla ikasten du (mantentzea).
- Eztabaidak eta arrazoiketak agertzen dira.
- Gauzak kategorietan sailkatzen eta hierarkizatzen ikasten du.
- Moralaren eta arauen inguruan gogoeta egiten du.
- Ekin aurretik pentsatzen ikasten du.

Garapen sozioafektiboa

- Gizarte funtzionamendua, haren arauak eta eskakizunak zein diren ikasten du.
- Bere adineko jendearekin harremana izateko behar handiagoa. Mutikoek mutikoekin izaten dute harremana, gehienbat, eta neskatilek neskatilekin; eta ez dituzte oso atsegintzat jotzen beren sexukoak ez direnak.
- Bere gizarte gunean tokia hartu nahi du, bai etxean bai eta adiskideekin ere, eta ingurukoek (bereziki gurasoek) aintzat har ditzatela funtsezkoa da beren autoestimurako.
- Ikastetxean gutxiago delako sentimenduak izan ohi ditu; horrelako egoeretan, familia nukleoaren laguntza oso garrantzitsua da haurraren krisiei eusteko.
- Etapa horretan, bere energia eta bulkadak jarduera sortzaileetara eta konplexuetara bideratzen du, eta horrek bere nortasunaren gainean segurtasuna sentitzen laguntzen dio.
- Ekoizkortasuna eta lehia gero eta garrantzitsuago bihurtzen dira, eta onuragarriak dira, neurrian baldin badira.

Alderdi kritikoak:

- Motibazio falta, eskolako lanak egiteko.
- Haurrek beti kalean egon nahi izaten dute, adiskideekin jolasean.
- Kontra egiten hasten dira eta independentzia handiagoa lortze aldera borroka egiten dute.

### *vi. 7 eta 12 urte arteko haurren beharrak*

Behar fisikoak:

- Elikadura eta nutrizio hezkuntza.
- Ahoaren eta hortzen higienea bere kabuz zaintzea.
- Lotarako ordutegi egokiak erregulatu eta ezartzea.
- Ohitura toxikoen edo mendekotasuna sortzen duten ohituren prebentzioan heztea.
- Bide hezkuntza, bakarrik ibiltzen diren haurrentzat.
- Kirola eta jarduerak aire zabalean.
- Haurrei, bakarrik daudenerako, beren janzteko eta etxeko higieneko beharrak betetzen irakastea.
- Adinari dagozkion txertaketak.
- Garapen puberala, zentzumen gabeziak edo ikasketan gorabeherak eragingo dituzten arrazoi fisikoak gainbegiratzea.
- Esfinterra behar bezala kontrolatzen ez badute esku hartzea.
- Elikagaien higienea ikastetxeko jantokietan, eta istripuen prebentzioa ikastetxean.
- Segurtasuna parkeetan eta lorategietan.

Behar afektiboak:

- Adinera egokitutako sexu hezkuntza.
- Eskolako eta eskolaz kanpoko hezkuntza.
- Aisialdirako eta denbora librerako guneak.
- Familiako erabakietan parte-hartzea.
- Parekoen taldea eratu eta sendotzea.
- Parekoen arteko harremanak sustatzea, indarkeriarik gabe.
- Arauak eta erregelak ikastea.
- Emozio aldaketak adierazi eta kontrolatzea.

### *vii. 12 eta 18 urte arteko haurren garapena*

Garapen fisikoa eta mugimenaren garapena

- Mugimen funtzioak helduta daude dagoeneko, nahiz eta baldartu egiten diren etapan berezkoak diren aldaketa fisikoak direla eta.
- Bigarren mailako sexu karaktereak agertzen dira (11 eta 13 urte artean): biloa, ahots aldaketa, gorputza aldatzen da.
- Ugalketa funtzioak heltzen dira (menarkia emakumezkoetan, esperma agertzen da gizonezkoetan).
- Hormona jarduera handia; jarduera horrek hau eragiten du: gosea, suminkortasuna, izerdia, ezgaraiko aldarte aldaketak.

Garapen kognitiboa

- Nerabeak pentsamendu abstraktua garatzen du.
- Unekoak diren edo ez diren askotariko egoeren inguruko hipotesiak egiten ditu.
- Bere buruaren eta bere idealen inguruan amets egiteko joera izaten du.
- Fenomeno bat osatzen duten hainbat faktore sartzen ditu.
- Bere inguruko giroaren eta bere buruaren inguruko arazo intelektualak aurkez ditzake.
- Bere hezkuntza eta kultura mailaren arabera, hainbat mailetan arrazoiketa morala garatzeko gai da: hasieran, nerabeek arau moralak betetzen dituzte ingurukoei plazer emateko; gero, barneratu egiten dituzte eta gizartean onartuta dauden bi arauren arteko gatazkan sar daiteke. Geroago, beren ongizateaz gain, ingurukoenaz ere

arduratzen dira eta, azkenik, barneratutako arauak onartzen dituzte. Oro har aplikatzen dituzte arau horiek, jakin baitakite hala jokatuko ez balute bere buruaren aurka egingo luketela.

Garapen sozioafektiboa

- Nortasuna bilatzea da bere eginkizunik garrantzitsuena. Horrek nolabaiteko nahasketa dakar berekin, eta nahasketa hori heroi edo idoloak gurtzean, haurren oldarkortasunean eta ingurukoenganako tolerantziarik ezean islatzen da.
- Gurasoengandik bereizteko beharrak eraginda jokabide bihurriak erakusten ditu, gurasoen mende izaten jarraitzen duen arren.
- Beste batzuk, aldiz, oso lotsati eta inguruko eskakizunen aurrean beldurti bihurtzen dira; nahiago izaten dute bakarrik edo beren adineko jende gutxirekin egotea, baina beren adineko horiekin benetan identifikatuta sentitzen dira.
- Beren adin bereko adiskide talde bateko kide izatea funtsezkoa da; izan ere, talde nortasunak «munduan toki bat izatea ziurtatzen» dien kide izateko sentimendua babesten du.
- Gauza berriak probatzeko eta askotariko eginkizunak gauzatzeko gogoa izaten du, bikoteko eginkizuna barne. Oro har, hori lehenago gertatzen da emakumeetan, gizonezkoetan baino.

Alderdi kritikoak

- Gurasoak edo irakasleak bezalako aginte irudien aurrean jokabide kritikoa erakusten du edo haien aurrez aurre jartzen da, haiengandik bereizteko beharrak eraginda.
- Gogo aldartea bat-batean aldatzen zaio.
- Itxura fisikoak gehiegi kezkatzen du.
- Parekoen taldera egokitzeak gehiegi kezkatzen du.
- Maiz, heldu gisa har dezaten eskatzen du eta, beste batzuetan, haur gisa.

### *viii. 12 eta 18 arteko haurren beharrak*

Behar fisikoak:

- Elikadura eta nutrizio hezkuntza, adinaren arabera.
- Ahoaren eta hortzen higienea.
- Sexu heltzeari egokitutako higiene fisikoa.
- Segurtasuna kirol jardueretan.
- Sexu orientazioa adin talde honetarako.
- Sexu transmisiozko gaixotasunen prebentzioa eta haurdunaldia.
- Adinari dagozkion txertaketak.
- Gaixotasunen bat duten nerabeen bere buruen zainketa betetzea.
- Lotarako ohiko arauak.

Behar afektiboak:

- Parekoen arteko harremanak sustatzea, indarkeriarik gabe.
- Gurasoekin eta erreferentzia irudiekin elkarrizketa irekiak, jakin-mina pizten dieten gaien inguruan (sexua, drogak, bidaiak eta abar).
- Arauak eta zigorrak adinaren arabera berriz planteatzea, beti bere iritzia eta kezkak kontuan hartuta.
- Harreman afektiboak edo bikote harremanak.
- Eskolako eta eskolaz kanpoko hezkuntza.

- Informazio egokia eta egiazkoa tabakoaren, drogen eta alkoholaren gehiegizko kontsumoaren inguruan.

Behin zerrenda hori aztertu eta gero, haurren behar nagusietan sakonduko dugu, haien askotariko garapen arloen arabera:

*1. Behar fisiologikoak, fisikoak*

Haurra dagoen eremu eta inguru fisikoa hartuko dira barne, eta horretan bilduko dira segurtasuna bermatuko duten, indarkeriarik izango ez den eta osotasuna mehatxatuko duten arriskurik egongo ez den eremuak eta giroak. Era berean, bizirauteko beharrezko diren behar fisiologikoak ere aipatzen ditu. Barne hartzen ditu, halaber, osasun, higiene eta elikadura laguntza egokia ematea eta garatzeko beharrezko duten jarduera fisikoa egitea ahalbidetuko duten lekuetan bizitzea.

*2. Lotura afektibo seguru eta jarraituak*

Garrantzitsua da komunitate bateko kide delako sentimendua garatzea. Horrek haurrak elkarrekikotasuneko gizarte dinamiketan parte har dezan bermatuko du. Arreta emateko prest eta baldintzarik gabeko onarpena eta tratu ona emateko gai izango diren helduekin lotura afektiboak bermatzea behar dute haurrek.

Erakunde eta/edo zaintzaileak aldatzeko administrazioko erabakietan garrantzitsua da kontuan izatea haurrak afektiboki lotzen zaizkiela zaintzaile gisa jarduten dutenei, eta komenigarria da, ahal den neurrian, gai horretan aldaketa gutxi izan dadila, atxikipen lotura antolatu gabeak ez sustatze aldera. Geroago aipatuko dira horren ondorioak.

Lotura afektiboak indartzeko arau argiak, koherenteak eta inolako indarkeriarik gabeak behar dira, errespetuan oinarrituak direnak eta, era berean, autonomia sustatzen dutenak. Harreman fisikoaren bidezko maitasun eta afektu adierazpen agerikoak eta hitzezko komunikazioak segurtasuna eta sendotasuna ematen die haurrei. Maitatuak diren haurrak bestelako harreman afektiboak ezartze aldera motibatzeko gai izango dira, bai eta maitasunez eta zainketaz beteriko eremu seguruan jolasteko eta ikasteko ere.

*3. Behar kognitiboak*

Helduek beharrezko estimulazioa, motibazioa eta informazioa eman behar diete haurrei bizileku duten mundua ezagutzeko jakin mina eta beharra betetzeko, bai eta beren errealitatea osatzen duten askotariko alderdien inguruko jakin mina asetzeko ere. Hori guztia haurren adina eta ulermen maila kontuan izanik egin behar dute, alde batetik, kanpo utz ez ditzaten eta, bestetik, beren aukeretatik haratago doazen itxaropenik izan ez dezaten. Garrantzitsua da adinarekin eta heltze prozesuekin bat etorriko diren esperientzia berriak sar daitezen sustatzea.

Behar horiek estaltzeko ekintzen artean hezkuntza eskubidea bermatuko dutenak daude: hezkuntza formalera sarbidea izan dezaten ahalbidetzea, haurren banakako aukeren arabera gauzatze akademikoa sustatzea eta gauzatze horretan laguntzea, eta gurasoekin eta irakasleekin harreman egokiak bultzatzea.

Jolasak gaitasun kognitiboak sustatzen dituen eremuaren zati dira eta, haurrek jolas laguntzaileak gauzatzeko gaitasuna duten neurrian, gizarteko gaitasunak garatzea ere ahalbidetzen dute. Garrantzitsua da aipatzea gaur egun haurrek erabiltzen dituzten bideo joko askok sozializatzeko eremu garrantzitsuak ixteko joera dutela, eta haietako ugarik anti balioak sustatzen dituen edukia eta emoziozko adimenerako garrantzitsuak diren gaitasunak (besteak beste, enpatia, emozioak

adieraztea, asertibitatea) garatzeko aukerak ixten dituen edukia dutela. Eta, horrekin, gizabanakoen eta gizartearen hazkuntzarako garrantzitsuak diren aukera etikoak mugatzen dira.

#### *4. Gizarte beharrak*

Behar horiek komunitate bateko kide direlako sentimenduak gizakientzat duen garrantzia nabarmentzen dute. Lotura afektiboak izateko eta tratu onean eta haurren eskubideetan oinarritutako arau argiak, koherenteak eta egonkorrak dituzten gizarte eremuak izateko beharraren luzapena dira behar horiek.

Aipatutako beharrak bete daitezen haurren komunikatzeko gaitasunak sustatu behar dira jolasaren eta parekoekiko harremanaren bitartez. Komunikatzeko gaitasun horiek haurrei entzungo zaien eta, horrela, beren emozioak, nahiak, bizipenak eta pentsamenduak adierazteko aukera izango duten eremuak sustatzea abiapuntu hartuta ere garatuko dira. Era berean, garrantzitsua da komunikatzeko bestelako bideak ere ematea, hala nola, jolasaren eta artearen bitartez.

Oinarrizkoa da kontuan izatea haurrak familia egoera arriskutsuan baldin badira, haur horiek beren familia, gizarte eta eskola inguruarekin harremana izan dezaten bermatu behar dutela erakundeek, ahal den neurrian.

### B. Gurasoaren eta semearen/alabaren arteko loturak haurren garapenean duen eragina

Lotura, gizakiak beste batzuekin intimitate jokabideen bidez (hurbiltasuna bilatzea eta hurbiltasun horri eustea, besarkatzea eta irribarre egitea) harremana izateko jaiotzetik duen beharra da, eta babesa, laguntza eta lasaitasuna emateko gai izango den beste horren erantzuna jaso nahi izaten du. Haurrentzat lotura irudi nagusiak beraiek zaintzeaz eta babesteaz arduratzen direnak izaten dira, beren guraso biologikoak izan nahiz ez izan. Oraingo honetan aita eta ama esango diegu eginkizun horiek betetzen dituzten irudi esanguratsu horiei.

Hortaz, pertsona batek bere buruan hurbileko harremana eskaintzen dion eta erreferentzia garrantzitsua den beste batekiko ezartzen dituen sentimenduek, fantasiek, oroitzapenek, itxaropenek eta nahiek osatzen dute lotura. Haurrak garatzen duen lotura mota helduak haren afektibitate eskaeraren aurrean emango dion erantzun motaren araberakoa izango da.

Zein unetan hasten da ezartzen gurasoen eta haurren arteko lotura? Aitak edo amak seme edo alaba bat izateko **nahia** duen unean. Hauek hartzen ditu barne: izan nahiko lukeen haurraren inguruko fantasiak, zein izen jarriko dioten pentsatzea, haurdun geratu aurretik gurasoek gauzatzen dituzten zainketak (ohitura aldaketak, higienea, ordutegiak, eta abar), haurra iristen denerako eremu fisikoa prestatzea, beren gain hartuko dituzten erantzukizunez jabetzea eta, batez ere, familiako kide berria maitasunez zaintzeko prestasuna.

Haurrak, iritsi aurretik, badu dagoeneko bere tokia bai gurasoen buruan bai eta haien hitzetan ere. Zein toki hartuko du haur horrek familian? Berebizikoa litzateke haur maitatuaren, haziaren eta babestuaren tokia har dezala, baina benetan ez da maiz horrela izaten. Haur askok beraiei ez dagokien eginkizuna gauzatzen dute familian. Sarri entzuten da emakume batzuk beren bikoteak utz ez dezan geratzen direla haurdun, edo haurrak izaten dituztela bakarrik ez geratzeko, edo aitona-amonei ilobatxoa ematearren, ama izateko egiazko nahirik izan gabe ere. Gauza bera gerta daiteke gizonezkoen kasuan ere; esate baterako, emakumea beren ondoan izateko seme-alabak izaten dituztenak, edo aita izateko egiazko nahirik gabe beren gizontasuna erakusteko egiten

dutenak daude. Interesgarria da gurasoekin gogoeta egitea. Zein eginkizun izango du haurrak familiako dinamikan? Zein eginkizun du haurraren etorrerak?

Haurtzaroan, harreman lotesleak haurrek helduaroan beren bikotekideekin, familiarekin eta adiskideekin izango dituzten maitasun harremanetarako lehen ereduak dira. Eredu horietan, eguneroko bizitzan nahiz une estresagarrietan, hurbileko harremanen funtzionatzeko moduaren inguruko zenbait postulatu ikasten dituzte.

Bikoteak funtsezko eginkizuna du aitak eta amak haurrarekin ezartzen duten lotura motan. Aita edo ama ez seguruak lotura segurua sor dezake bere eta bere seme edo alabaren artean, baldin bikotekideak lotura segurua eskaintzen badio. Bikotekidearekin lotura harreman ez segurua ezarri duen amak edo aitak, ordea, ziur aski lotura ez segurua ezarriko du bere eta semearen edo alabaren artean.

Krisi egoeraren bat igarotzen ari denean (etxeko genero indarkeria, adibidez), eredu lotesleak nahaspilatzera jotzen dute. Aitak edo amak bere emozioekin harremana izatea saihets dezakete, ingurukoak eraso ditzakete eta mendetasun eta erruduntasun handiagoa sor dezakete.

Lotura mota ez da fenomeno zurruna eta aldaezina gizakion arteko harremanetan. Aldatu egin daiteke gizarte testuinguruaren, familiaren, bizitzako unearen eta harremana ezarriko den pertsonaren arabera. Gerta daiteke haur baten eta amaren edo aitaren artean lotura segurua izatea lehenengo haurtzaroan, eta lotura hori ez segurua izatea senar-emazteen krisi aldien edo depresio aldien ostean. Baina beti dago lotura segurua eta egonkorra ezartzeko aukera. Haurrak denboran nagusitu dena ikasiko du, alegia, bere bizitzan irudi lotesle nagusiekin behin eta berriz gertatu dena ikasiko du.

Jarraian, hainbat gai azaldu dira; hala nola, lotura mota nagusiak (segurua, ez seguru saihestailea, ez seguru anbibalentea edo kezkatia eta lotura nahaspilatua), lotura horiek irudi loteslearen -amaren, aitaren edo haurra zaintzeaz arduratzen den beste edozein helduren- ezaugarriekin duten harremana, helduak haurraren aurrean duen jarrera eta haurraren erantzunak, aitarekin edo amarekin duen harremana sustatzen duen lotura motaren arabera:

*i) Segurua:*

Aitaren edo amaren ezaugarriak:

- Eroso sentitzen da dituen harreman afektiboetan.
- Hurbilekoa eta hurkoa eta, era berean, autonomoa izan daiteke.
- Bere buruaren eta ingurukoen ikuskera positiboa du.
- Indartsu sentitzen du bere burua etxean eta lanetan askotariko egoerei aurre egiteko.

Aitaren edo amaren jarrera haurrarekiko:

- Haurraren eskaerak entzun eta atseginez betetzen ditu.
- Haurrarengandik urrun daiteke baina behar duenean bere ondora itzultzen da, eta babesa eta laguntza ematen dio haurrak «arriskutsu»tzat jotzen dituen egoeretan.
- Ez du haurraren erantzunei dagozkien itxaropen zehatzik; jarrera malgua eta abegikorra du haurrak adierazten duenaren aurrean.

Lotura segurua duen haurraren ezaugarriak:

- Haur seguruak negar egiten du ama urruntzen denean eta lasaitu egiten da hurbiltzen

denean; zaharrago denean, ondo jasaten du banaketa.

- Libreki jolasteko gai da, badakielako babestuta dagoela.
- Harreman ona du bere parekoekin, ez du biktima eginkizuna hartzen eta ingurukoak ere ez ditu biktima egiten. Egia esan, adiskideek positibotzat eta prestutzat dute.
- Ez du porrotaren beldurrik, gurasoek ziur baitute xedetzat hartzen dituen gauzak lor ditzakeela.

*ii) Ez seguru saihestailea edo arduragabea:*

Aitaren edo amaren ezaugarriak:

- Gehiago balioesten du independentzia.
- Uko egiten dio hurkotasunari, babesteko modu gisa (barru-barruan, ordea, ingurukoen maitasunaren beharra duen arren).
- Bere buruari buruzko eta bere sentimenduen inguruko berri gutxi ematen du.
- Zailtasunak izan ohi ditu pertsonen arteko harremanetan.
- Hobeto sentitzeko joera izaten du lan arloko gaietan, harreman pertsonaletan baino.
- Ez du bere burua gai ikusten bere hersturei eta beldurrei eusteko; saihestu eta ukatu egiten ditu eta ingurukoengan uzten ditu, maiz bere seme-alabengan edo bikotekidearengan.

Aitaren edo amaren jarrera semearekiko edo alabarekiko:

- Haurraren atxikimendu jokabideei uko egiteko joera izaten du.
- Ukimen harremanek ezinikusia sortzen diote.
- Haurra izateak eragin dion gogaitaz hitzez eta bestelako moduetan kexatzen da.

Lotura ez segurua edo saihestailea duen haurraren ezaugarriak:

- Ohikoago izaten da gizonezkoetan.
- Ez du erakusten atxikipen irudiekiko erantzun afektiborik edo interes erantzunik; interes handiagoa erakuts dezake arrotzekiko, amarekiko baino.
- Bere buruaren eta bere emozioen artean «oztopoak» jartzeko joera izaten du, apatiko izaten da, ez da maitekorra eta uko egiten dio harreman fisikoari.
- Gizartean zailtasunak izaten ditu, adiskideekin oldarkorra izateko joera baitu.

*iii) Ez seguru anbibalentea edo kezkatia:*

Aitaren edo amaren ezaugarriak:

- Antsietate jarraitua erakusten du.
- Gauzetan gehiegi sartzen da.
- Mendekotasun harremanak sorrarazteko joera du.
- Zailtasun handiak izaten ditu harreman afektibo asegarriak izateko.
- Maiz bakardadea eta tristura sentitu ohi du.
- Semearengandik edo alabarengandik banantzea zail egiten zaio.

Aitaren edo amaren jarrera semearekiko edo alabarekiko:

- Nahasgarria izan ohi da; aitak edo amak batzuetan berotasuna adierazten du eta beste batzuetan haserrea, nahiz eta horretarako arrazoi logikorik izan ez.
- Haurraren seinaleen aurrean ez du erantzun egonkorrik ematen; ez dio uko egiten, baina ez da gai magalean haurra lasaitzeko.
- Maiz, bere hitzek seme-alaben autonomia adoregabetzen dute.
- Haurrarekin harreman ona ezartzea zail egiten zaio, eta ez daki gertatzen zaiona «irakurtzen».

Lotura ez segurua/anbibalentea edo kezkatia duen haurraren ezaugarriak:

- Herstura eta kezka handia eragiten dio atxikipen irudiak egiten duenak edo egiten ez duenak, eta horrek bere azterketa eta jolas jarduerak gauzatzea eragozten dio.
- Aita edo ama ez berarekin ez izateak estresatu egiten du, baina haiek berarekin izateak ere bai; aita edo ama hurbil izateak ez du kontsolatzen, ez eta lasaitzen ere.
- Bikotearen artean gatazkak daudenean, haurrak tartean sartzeko eta errudun sentitzeko joera izaten du. Horrek oso mendeko jokabideak sorrarazten dizkio, eta bietako baten alde jartzen da.

*iv) Nahaspilatua:*

Aitaren edo amaren ezaugarriak:

- Psikopatologia larriak dituzten gurasoek edo zaintzaileek sorrarazten dute lotura mota hau.
- Depresiboak izan daitezke, edo antsietate handikoak, eta desoreka bipolarra, drogomendekotasunak edo asaldura larriak izan ditzakete.
- Oro har, beren harremanetan tratu txarra eta/edo indarkeria izaten da.
- Ziur asko, aurretiazko egoera traumatikoak izango dira.

Aitaren edo amaren jarrera semearekiko edo alabarekiko:

- Maiz, jokabide kontrajarriak erakusten dituzte (haurrarekiko hurbilketa eskatzen dute, baina gero distantzia jartzen dute).
- Ez dira haurra lasaitzeko gai, eta haurraren eskaerek beldurtzen dute.
- Eginkizunak alderantzikatzen dituzte; haurrak segurtasuna eman diezaien bilatzen dute.
- Maiz, jokabide sexualizatuak edo hurbilegiak izaten dituzte haurrarekin luzaroan.
- Afektibitatezko eta hitzezko urruntasuna dago.

Lotura nahaspilatua duen haurraren ezaugarriak:

- Jokabide eredu kontrajarriak, hala nola, atxikipen jokabide oso sendoa baina, bat-batean, saiheste jarrera, harreman hotza edo jokabide harrigarriak.
- Antolakuntzarik eta orientaziorik eza erakusten duten adierazgarriak, besteak beste, orientaziorik gabe noraezean ibiltzea, adierazpen nahasiak edo harrigarriak, eta afektu aldaketa azkarrak eta ugariak.
- Herstura adierazten du baina, bere atxikipen irudiarengana hurbildu ordez, saihestu egiten du.
- Jokabide oldarkorrak erakusteko eta hiperaktiboak izateko joera izaten dute, eta ikaskuntzan zailtasunak izan ohi dituzte.

## C. AITAREN LOTURA ETA FIGURA

Eta, zer gertatzen da aitaren eta seme-alaben arteko harremanetan? Zein zeregin du aitaren eta seme-alaben arteko harremanak, haurren garapenean?

Bistan denez, aitak seme-alabekin duen elkarrekintzak (amaren kasuan ere, berdin) lotura du familia bizitzaren inguruko gizarte eta erakunde giroarekin, bai eta aitak seme-alabekin nolabaiteko harremana ezartzeko aitaren borondate pertsonala garatzearekin ere (gauza bera, amaren kasuan). Gizarteko jokabide aukerak eta gurasoek haurtzaroan izan dituzten esperientziek eragina dute beren autoestimuaren garapenean, beren sentimenduen eta beren buruarekiko eta hurbileko harremanekiko itxaropenen bitartez. Beraz, gurasoek seme-alabekin duten elkarrekintzaren kalitatean ere eragina dute.

Haurrek beren garapenean aitaren figura izatea oso garrantzitsua da. Historian haurrak zaintzeko ardura nagusia amek izan duten arren, aitek onura asko ekar dakizkieke haurrei beren garapenerako. Bistakoa da, gaur egun, zenbait esparrutan, amaren eta aitaren eginkizunak parekatzen joan direla. Ildo horretan, dagoeneko ezin da aitaren eginkizun bereziari buruz hitz egin, biek bete baititzakete eginkizun biak (aitaren eginkizuna eta amarena). Amak bakarrik edo aitak bakarrik ere gauza ditzakete bi eginkizunak, hurbileko bestelako irudien laguntzarekin. Dena den, garrantzitsua da aitak seme-alaben garapen egokian laguntzeko bete ditzakeen eginkizunak aipatzea:

- **Haurrarekin duen zuzeneko** harremanari dagokionez, aitak, amak bezala, haurraren autonomiarako segurtasuna eta babesa ematen lagun diezaioke. Halaber, haurraren sexu nortasuna behar bezala indartzen lagun diezaioke, arau eta muga argiak ondo barneratzeko erreferentziazko irudia izan daiteke eta logistikoki eta ekonomikoki lagun dezake, haurraren behar guztiak betetze aldera.
- **Aitaren zeharkako** eginkizunak **zerikusia du amari laguntza eta babesa eskaintzearekin**, hark haurdun dagoenetik lehen mailako hazkuntza zereginak gauza ditzan. Behar bezalako aita izateak lagundu egiten du amak segurtasuna, laguntza eta babesa senti dezan haurdunaldian eta haurraren hazkuntza prozesuan. Aitaren figurarik ez badago, haren eginkizunak amaren laguntza sareek gauzatu behar dituzte. Haurraren hazkuntzako lehen mailako zereginetan amak laguntza eta babesa duela sentitzea da garrantzitsua. Ildo horretan, garrantzitsua da argitzea amak ere aitari laguntza eta babesa eman behar diola haurra hazteko lanetan, lotura afektibo egokia sustatze aldera.

Familian tratu txarra ematen duen aita izateak seme-alaben garapen afektiboa kalte dezake.

Bestalde, seme-alabekiko elkarrekintzaren edukiek eginkizun garrantzitsua dute gurasoen beren kabuzko ordezkapenean edo norberaren irudia eratzean, bai eta aitatasuna gauzatzean beren esperientziaren deskribapenean ere, eta ez soilik seme-alamen garapenean. Gurasoek seme-alabekiko elkarrekintzan duten eginkizunari dagokionez, Barudyk (2005) azaldu zuen seme-alaben zaintza lana beren gain hartzen duten gizonezkoek, oro har, presio patriarkaletik irteteko aukera eman dieten eta beren seme-alaben gorputz zaintzei eta samurtasunari beldurra galtzea ahalbidetu dieten emakumeen laguntza izaten dutela.

Oraindik bide luzea duten arren egiteke, esperientzia berrienek jardute berriak aurkeztu dituzte; hain zuzen ere, eremu publikoetan eta pribatuetan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko harreman modu berriei dagozkien dinamika sozialei eta botere dinamikei loturiko aitatasun harremanen jardute berriak. Horrela, gizonezkoen nortasuna eratzeko ereduak harreman eredu

sentiberagoak proposatzeko joera du. Horrek, bere aldetik, gizonezkoak hazkuntza prozesuetan sartzea erraztu du eta, era berean, ereduok generoen arteko harremanetan hierarkia baztertzaileak eta esanekotasuna, mendekotasuna eta indarkeria sustatzen duten belaunaldiak ezarri dituen gizonezko nortasunaren funts menderatzaileak eta botere abusua berriz azterrarazi dituzte.

Gaur egun, gizonezko askok erakutsi dute familian, alderdi emozionaletan eta afektiboetan, amak duen bezain zeregin protagonista gauzatzeko joera. Emakumearen aurkako indarkeriaren protagonista izan diren aitei horrela heldu behar zaie, generoen eta belaunaldien artean afektuan, berdintasunean eta errespetuan oinarritutako bestelako harreman motak barnera ditzaten.

# 5. GENERO INDARKERIAK HAURRENGAN DITUEN ONDORIOAK

Genero indarkeriaren aurrean izateak aurkako ondorio esanguratsuak izan ditzake haurren garapen emozionalean, sozialean, kognitiboan eta akademikoan. Azken ikerketek adierazi dutenaren arabera, indarkeria horren aurrean izateak ondorioak izan ditzake epe luzean eta eragina izan dezake haurrek heldu direnean izango duten bizitzako funtzionamenduan.

Azken urteotan, gero eta kontzientzia handiagoa sortu da emakumeen aurkako genero indarkeriak duen eraginaren gainean. Hala ere, ez da kontzientzia bera sortu seme-alaben beharren inguruan.

Jarraian, genero indarkeriak haurrengan dituen eragin nagusiak azalduko ditugu, haiekin eta haien amekin esku hartzen duten profesionalen esku-hartzea eta diagnostikoa errazte aldera.

## A. Eraginak haurren garapenean

Genero indarkeriaren biktima diren emakume asko haurdun izaten dira. Estresak kortisol hormona-mailan eragina du, eta horrek fetua gutxi haztea eragiten du. Gainera, garunaren garapen ahularekin eta hiperaktibitate sindromeei uztartzen zaizkien mielinizazio akatsekin lotzen da.

Genero indarkeria traumatikoari egotz dakizkieke haurdunaldiaren aurkako zenbait ondorio, hala nola, bat-bateko abortua, jaiotzean pisu txikia izatea, erditzean fetua hiltzea edo ezgaitasunak dituen haurra jaiotzea. Indarkeriak eragindako estresak eta abusuak bestelako ondorioak ere izan ditzakete, besteak beste, amak elikadura, atseden eta osasun zaintza egokiari dagokionez haurrari arreta nahikoa eman ezin izatea, behar horiei erantzuteko aukera ematen ez dion egoera afektiboan izateagatik.

Jaiotzean, haurren garunaren pisua helduen garunaren % 25 da, eta lehenengo urtea betetzen duenean % 66. Garunaren garapena zaurgarriagoa da garai horretan esperientzia traumatikoen eraginaren aurrean, eta **garunaren antolaketa** alda dezake. Horrek, geroago, estresa menderatzeko zailtasunak ekar ditzake. Estres kronikoak **immunitate sistemaren depresioa** eragin dezake, bai eta garunaren kontrolpean dauden bestelako sistemen depresioa ere. Beraz, ez da harrigarria osasun okerragoa duten haurrak edo jokabidean suminkortasuna, loaren asaldurak eta beldurrak bezalako aldaketak erakusten dituztenak ikustea.

Oro har, haurren % 70, batez beste, lotura segurukotzat jotzen da. Etxeko indarkeria jasan izan duten amen lagin batean, haurren % 50 inguru «lotura nahaspilatu»dun haur gisa sailkatu ziren. Atxikipen irudia (ama, horrelako kasuetan) beldur iturri nahiz lasaitasun eta erosotasun iturri da, eta tratu txarra jasan duen amak estresa jasaten badu, haurrek beldurtiak izateko joera izaten dute. Inguruabar horietan, haurrak ez dira gai izaten amaren laguntza eta lasaitasuna eskuratze aldera estrategia iraunkorra edo koherentea garatzeko. (Zeanah eta beste, 1999).

Errazagoa da haurrek ageriko jokabide arazoak erakustea aita edo ama indarkeriazko egoera ukatzen saiatzen badira, edo haurrek zuzenean ikusi edo entzun dituzten familiako gatazka larriak kontuan izan gabe familia lotura handia nabarmentzen dutenean. Familia asko bikotea banantzeak seme-alabengan kaltea eragingo ote duen beldur izaten dira. Egoera oso gatazkatsuak eta/edo genero indarkeria baldin bada, ordea, indarkeria ziklo hori bukaraztea familiako kide guztien onerako izango da.

Haur asko jasaten ari diren edo jasan duten indarkeriari garrantzi txikia ematen saiatzen dira, horrek eragiten dien minetik babesteko modu gisa. Haur gutxik hitz egiten dute gertatzen zaienaz, edo emozio arloan bizi duten babesgabetasun sentimenduaren inguruan. Haurrak esperientziaren inguruan dituen sentimenduak eta pentsamenduak zatikatu eta desantolatu daitezke, eta gertatzen denari zentzua edo azalpena emateko zailtasunak izaten dituzte. Ama indarkeriatik «banandu» daiteke eta, horrela, indarkeriazko gertakaririk ez dagoenean, ezer txarrik gertatu izan ez balitz bezala jokatu ahalko du.

Nahiz eta amak uste izan bere semeak edo alabak ez duela jasan gertatutakoaren eraginik, edo haurrak gaizki dagoela erakusten ez duen edo gertatutakoaz hitz egiten ez duen arren, horrek ez du esan nahi, nahitaez, genero indarkeriak ez duela haurrarengan eraginik izan. Hori dela eta, beharrezkoa da genero indarkeriaren aurrean izan diren haurren segimendu sozio emozionala egitea, behar duten laguntza emate aldera.

Etxean genero indarkeriaren aurrean dauden haur askok ez du sufritzen dutena jakinarazten, eta ez zaie arretarik ematen, gurasoek uste dutelako arazoak bikote artekoak direla, eta ez dagozkiela seme-alabei.

Indarkeriak haurrengan dituen eraginei buruzko askotariko ikerketak eta dokumentuak aztertzea abiapuntu hartuta, hauek dira eragin garrantzitsuenak:

1. Sozializazio arazoak:
    - Isolamendua
    - Segurtasunik eza
    - Oldarkortasuna
    - Gizarte gaitasunak murriztea
2. Depresio sintomak:
    - Negarra
    - Tristura
    - Autoestimu urria
    - Isolamendua
3. Beldurrak:
    - Beldur ez espezifikoak
    - Txarra den zerbait gertatuko delako bihozkadak
    - Heriotzaren aurreko beldurra
    - Ama galtzeko beldurra
    - Aita galtzeko beldurra
4. Loaren asaldurak:
    - Amesgaiztoak
    - Bakarrik lo egiteko beldurra
    - Gauetako izualdiak
5. Sintoma erregresiboak:
    - Enuresia
    - Ekopresia
    - Atzerapena hizkuntzaren garapenean
    - Duten adina baino gazteago diren haurrek bezala jardutea
6. Integrazio arazoak ikastetxean:
    - Ikasteko arazoak
    - Arreta jartzeko eta aditasuna mantentzeko zailtasunak

- Eskola errendimendua jaistea
- Beste haur batzuekin partekatzeko zailtasunak

7. Emoziozko eta jokabidezko erantzunak:
   - Amorrua
   - Gogo aldartea bat-batean aldatzea
   - Antsietatea
   - Babesik ez dutelako sentsazioa eta mundua mehatxagarri dela bezala bizi izatea.
   - Erruduntasun sentimendua (gurasoen arteko gatazken edo gertatutakoaren erantzule izatea, edo indarkeria saihesteko ezer egin ez izana).
   - Emozioak adierazteko eta menderatzeko zailtasunak.
   - Indarkeriazko egoera ukatzea edo bizi izan duten egoerari garrantzia kentzea.
   - Sufrimendua eta erasoa normalizatzeko joera, eta harremanak izateko modu naturaltzat hartzea. Indarkeriazko ereduak ikastea eta eredu horiek beraiek errepikatzeko aukera, biktima edo erasotzaile gisa, eta okerreko genero eginkizunak barneratzea.
   - Gurasoen gatazken aurrean betiko izateak harreman gatazkatsu gehiago eta mendekotasunak izatera eraman dezake nerabea.
   - Etxean indarkeriari loturiko estresak eragin dezake nerabeak arrisku eta ihes jokabideak har ditzan, eta etxean indarkeriazko jarrerak erakusten has dadin.
   - Etxetik ihes egitea.
   - Gurasoen harremanek, gainera, eragin handia izan dezakete nerabeek beren lehenengo harreman sentimentalak ezartzeko moduan.
   - Gero eta eraso maila handiagoak, orduan eta aukera gehiago izango da ingurukoen jokabidean kontrako asmoak ikusteko eta defentsa gisa indarkeriaz erantzuteko.

8. Trauma ondoko estresaren sintomak:
   - Insomnioa
   - Amesgaiztoak, behin eta berriz
   - Fobiak
   - Antsietatea
   - Trauma berriz esperimentatzea
   - Disoziazio arazoak

9. Haurrak parentalizatzea
   - Guraso eta babes eginkizunak beren gain hartzea, anai-arreba gazteagoekiko
   - Ama babesteko guraso eginkizuna beren gain hartzea

10. Batzuetan, heriotza

Indarkeriak eragina du haurrek munduaren eta beren buruaren inguruan duten ikuspegian, bizitzaren zentzuari eta xedeari buruzko ideietan eta etorkizunean zoriontasuna lortzeko itxaropenen gainean.

Adinaren arabera, haurrek familiako genero indarkeriaren ondorioz jasaten dituzten ondorioak askotarikoak dira[44]. Ondorio horiek kontuan izateak eragin horiek identifikatzen lagun dezake, adierazle jokabidezkoen, emozionalen, fisikoen, kognitiboen eta sozialen bitartez.

[44] Baker eta Cunningham (2004)

| | HAURTXOAK ETA HAUR TXIKIAK | ESKOLA AURREKO ADINEKOAK | ESKOLA ADINEKOAK | NERABEAK |
|---|---|---|---|---|
| Jokabidezkoak | Suminkortasuna | Oldarkortasuna, jokabide arazoak | Oldarkortasuna, jokabide arazoak, desobedientzia | Indarkeriazko jokabideak, ihesaldiak, delinkuentzia |
| Emozionalak | | Beldurra, antsietatea, tristura, amarekiko ardura, trauma ondoko estresaren asaldura, zailtasun afektiboak | Beldurra, antsietatea, depresioa, autoestimu urria, erruduntasuna, lotsa, trauma ondoko estresaren asaldura | Depresioa, bere buruaz beste egiteko ideiak, trauma ondoko estresaren asaldura |
| Fisikoak | Lo egiteko eta jateko arazoak, herstura | Jarduera maila handia, arreta deitzeko eta atxikitzeko saiakerak, ekintza erregresiboak | | Substantziekin gehiegikeriak |
| Kognitiboak | Ulertzeko zailtasunak | Ulerkuntza mugatua, erruduntasun sentimenduak | Erruduntasuna, errendimendu arazoak eskolan, indarkeriaren aldeko jarrera | Indarkeriaren aldeko jarrera |
| Sozialak | | Arazoak parekoekin edo helduekin elkarrekintzan jardutean, harreman anbibalentea amarekin edo zaintzaile nagusiarekin | Parekoekiko harreman gutxiago eta kalitate txikiagokoak | Indarkeriazko jokabideak erakusten dituzten (bikote) harremanak |

Aurkeztu ditugun eraginak aurki daitezkeen batzuk baino ez dira. Esan beharra dago, baina, hainbat kasutan bestelako jokabideak ere ikus daitezkeela, eta askotan kontrajarriak direla eman dezakete. Eskola errendimendua da horren adibide bat: maiz, genero indarkeriaren biktima diren haurrek arazoak izaten dituzte ikastetxean, arreta jartzeko eta ikaskideekin harremana izateko zailtasunak, eta abar. Baina haur askok guztiz kontrajarriak diren jokabideak izaten dituzte, bikaintasun maila oso handia eskolan, esate baterako. Haur horiek oharkabean pasatzen dira irakasleen aurrean jarrera egokia dutelako, beren eginkizunen arduradun direlako, eta abar (oso ohikoa da hori lehen aipatu dugun seme/alaba perfektuaren eginkizunean). Horrek argi eta garbi adierazten du adierazleak orientagarriak baino ez direla, eta ez direla faktore erabakigarritzat hartu behar. Erabateko moduan kontuan hartzeak zaildu egingo luke esku-hartzea eta diagnostikoa egitea.

## B. Eraginak guraso irudien eta seme-alaben arteko harremanetan

Genero indarkeriak eragin zuzena du haurren hazkuntzako jarraibideetan, sufrimenduak berak zaildu egiten baitie bikoteko kideei haurrekiko prestasun emozionala izatea eta hazkuntzako arauetan bat etortzea. Bikotearen arteko desadostasunek eta etsaitasunak zuzeneko eragina dute seme-alaben hazkuntzarako erabakietan eta, horrek, etxeko arauen eta aginte diziplinako neurrien

gaineko desadostasunak ditu ondorio[45]. Desadostasun horiek nabarmenago egiten ditu bikotekideen arteko urruntasun emozionalak, etsaitasunak eta bestearen izen ona galtzeak, eta haurra triangulazioaren erdian izaten da.

Hirugarren kapituluan azaldu zen bezala, atxikipen teoriaren arabera, haurraren segurtasun sentimendua bere atxikipen irudiekin oso gazte denetik duen loturaren mende izaten da, eta harreman horien kalitateak harreman eredu gisa balioko dio helduaroan. Etxean indarkeria izateak eragotzi egiten du konfiantza edo segurtasun sentimendua garatzen. Ikusi izan da etxean indarkeria ikusten duten haurrek helduen haserreari estres handiarekin erantzun diezaieketela eta, era berean, haur horiek oldarkorragoak izateko joera dutela beren parekoekin.

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeengan sortzen den depresioak eta autoestimu baxuak segurtasuna eta asertibitatea kentzen dizkie seme-alaben hazkuntza zereginetan[46]. Indarkeria egoeraren ondorioz, **amak** arrisku handiagoa izaten du trauma ondoko estresaren sintomak erakusteko eta, horrekin batera, seme edo alabarekiko harremanetan kalitate txikiagoa. Era berean, amaren psikopatologia eta amaren eta semearen edo alabaren arteko harremanaren kalitatea seme-alaben jokabide arazoekin lotu izan da[47].

Tratu txarra jasan duten amen hazkuntza jarraibideak oso aldakorrak izan daitezke, tratu txarra ematen dion bikotekidean berarekin izan ala ez izan. Bikotekidea berarekin badago, ama gogorrago eta autoritarioago ager daiteke. Aldiz, bikotekidea ez badago, ama jokabide horiek gehiegizko maitasun eta permisibitate jokabideekin orekatzen saiatuko da. Hazkuntza estiloak kontrajarriak badira, haurren sintomatologia nabarmenagoa izango da[48].

Bikoteko gatazkek eragina dute hazkuntza sentikorrean eta maitasunezkoan, bereziki **aitaren** kasuan. Hainbat lanek adierazi dutenez,[49] aitaren eta semearen edo alabaren arteko harremanak zaurkorragoak dira bikotekideen arteko gatazken aurrean, amaren eta semearen edo alabaren arteko harremanak baino. Eta, oro har, ikusi izan da gizonezkoek harreman eredu bat garatzera jotzen dutela, eta eredu horretan, emaztearekin gatazkaren bat dagoenean, seme-alabengana hedatzen duela. Emakumeek, ordea, gehiago bereizten dituzte familian dituzten eginkizunak (ama, emaztea).

Datu klinikoek eta zenbait ikerketetakoek adierazi dute joera handiagoa dutela bikote harremanetan egoera gatazkatsuak eta oldarkorrak bizi dituzten aitek eta amek haurren aurka hitzezko eraso edo eraso fisiko gehiago erabil ditzaten (bereziki mutilen aurka), eta afektibitate eta onarpen txikiagoa izaten dute seme-alabekiko[50].

Haurrekin esku hartzeko orduan, garrantzitsua da kontuan izatea, maiz, genero indarkeriak haurrengan dituen ondorioak, etxean bizi izandako indarkeriarekin ez ezik, bizitzako bat-bateko aldaketekin ere baduela zerikusia, esate baterako, etxetik irtetearekin, ikastetxez aldatzearekin eta adiskideak aldatu beharrarekin.

---

45 Ikus O'Leary eta Vidair (2005).

46 Ikus Davies, Sturge - Apple eta Cummings (2004).

47 Ikus Lieberman, Van Horn eta Ozer (2005).

48 Ikus Holden eta Ritchie (1991) autoreen eta Rossman eta Rea (2005) autoreen lanak.

49 Ikus Kerig, Cowan eta Cowan (1993), Clark eta Phares (2004).

50 Ikus Justicia eta Cantón (2005), Krishnaukumar eta Buehler (2000).

## C. ARRISKU FAKTOREAK

Haurrek hainbat modutan erantzun dezakete familiako genero indarkeriaren aurrean. Haurrek askotariko jokabide psikopatologikoak erakuts ditzakete, edo kalte gutxi jasan dezakete horrelako esperientzietatik. Jarraian, erantzun horietan eragina duten hainbat elementu azalduko dugu[51].

- Bikote bakoitzak beren gatazkak bideratzeko duen moduak, kanporatzeko moduak eta seme-alabei jakinarazteko erak eragina dute haurrek pertsonen arteko harremanak ulertzeko duten moduan.
- Bestelako arrisku faktoreak, besteak beste: substantzia psikoaktiboen gehiegizko kontsumoa, alkohol gehiegi edatea, amaren depresioa, aitaren izaera antisoziala, kontrako egoera ekonomikoak edo gizarteko isolamendua.
- Bikotekide batek edo biek patologiaren baten sintomak garatu arteko eragin pertsonala jasatea (depresioa, antsietatea, egoera paranoidea, eta abar), eta horrek seme-alabekin duen lotura eta ematen dieten hezkuntza negatiboki alderatzera eramatea.
- Haurrak erasoetatik hurbil izatea, erasoen lekuko izaten direlako.
- Indarkeriaren gogortasuna eta kronikotasuna.
- Haurra egoeraren partaide egitea, edo gatazka egoeren «arrazoi»etako bat izatea, edo triangulazioa egotea eta gurasoetako baten «alde azaltzera» behartuta izatea.
- Haurra, gurasoen zainketarik ez duelako, arduragabekeria egoeran bizi izatea; adibidez, haurra bere garapenerako oinarrizko zenbait baliabide fisiko ez izatera behartuta izatea, edo haren behar fisikoak, emozionalak edo gizartekoak bete gabe izatea.
- Genero indarkeriaren eraginez, egunerokotasuna nabarmen aldatzea eta haurra amarengandik edo aitarengandik bereizita izan beharra.
- Haurra, gainera, aitak edo amak emandako tratu txar fisikoaren edo emozionalaren biktima zuzena izatea.
- Haurren berezko ezaugarriak: izaera, adina, errealitatea interpretatzeko modua, bere loturen segurtasuna, gizarteko trebetasunak eta emozioak adierazteko eta laguntza eskatzeko gaitasuna.
- Emozionalki babes ditzaketen edo laguntza eman diezaioketen eta gurasoen zainketarik ez izatea gozatu dezaketen bestelako lotura irudiak izatea.
- Haur horiei arreta emateko erantzukizuna duten erakundeek erantzun azkarra eta eraginkorra ematea.

51 Levendosky eta Gram. - Bermann (1998)

Era berean, garrantzitsua da genero indarkeriaren aurrean izan diren haurrek ahalik eta kalte txikiena jasan dezaten lagun dezaketen babes faktoreak aztertzea:

- **Haurren ezaugarriak**, hala nola, izaera lasaia eta erraza, gaitasun kognitibo handiak.
- Haurren berezko baliabideak sustatuko dituen eta haurren **erresilientzia gaitasuna sendotuko duen helduren** bat izatea.
- **Gurasoen jokabide egokia**, haurren behar fisiologikoak, afektiboak eta gizartekoak beteko dituena.
- **Amaren erantzun egokia**. Ikusi izan da, hainbat ama, dituzten arazoak gorabehera, gai direla beren seme-alabei arreta emateko han izateko, beren inguruabarrak gorabehera afektua erakusteko eta mugak jartzeko, seme-alabek heziketa osasuntsua izan dezaten. Ama askok ahalegin handia egiten dute etxean bizi izandako indarkeriak seme-alabengan izan duen eragin negatiboa orekatzeko.
- **Amaren gaitasuna gizarte sarean parte hartzeko eta babesteko**. Ildo horretan, genero indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzen dieten zerbitzuak eta baliabideak garrantzitsuak dira emakume horien errekuperazioan eta haien autoestimua eta amatiar gaitasunak sendotzean.
- **Amek seme-alabekin** ikusi duten gatazken inguruan **hitz egiteak** txikiagotu egiten du haurrek jokabide arazoak eta ageriko indarkeria erakusteko aukera, betiere elkarrizketa horretan bikotekidearen aurkako etsaitasunezko, erruduntasun edo amorru sentimendurik ez baldin bada.
- **Familia zabalaren laguntza** lasaitasun iturri izan daiteke haurrentzat, amarentzat, bai eta hezitzaileentzat eta emakumeei arreta ematen dieten profesionalentzat ere.
- Gurasoen arteko **indarkeria bukatzea** eta gurasoen artean harreman atsegina eta indarkeriarik gabea izatea, behin banantzea erabaki dutenean.
- Nerabezaroan, kohesioak eta **parekoen taldearen laguntzak** eragin positiboa izan dezakete.
- Familia sistemen teoriak iradokitzen duenaren arabera, **senar-emazteen azpisistemaren eta seme-alabenaren artean mugaketa argiak** lotura du haurren funtzionamendu hobearekin (horrela, seme-alabak gurasoen gatazketan nahastea saihesten da). Aldiz, muga argiak ez izateak errazago egingo du disfuntzioak ager daitezen.
- Babes faktore garrantzitsua da **aitak edo amak semeari edo alabari esleitzen dion eginkizuna** egoera gatazkatsuaren barruan. Hau da, haurrek eragin handiagoa jasaten dute gurasoen arteko bitarteko eginkizuna hartzen badute beren gain, edo gurasoek bien artean jartzen badituzte eta, horren bitartez, jakinarazpen oldarkorrak egiten badituzte, edo gurasoek seme-alabei helarazten badie beren amorrua, izen ona kentzearen edo kritika suntsitzaileen bitartez. Gai hori luze eta zabal landuko da bosgarren kapituluan.
- Genero indarkeriaren biktima diren **emakumeei arreta ematen dieten profesionalak prestatzea** babes faktorea da etxean indarkeria mota hori ikusten duten haurrentzat.

# 6. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN HAURREKIN ZUZENEAN ESKU HARTZEA

Kapitulu honetan, genero indarkeriaren biktima diren haurrekiko zuzeneko esku-hartzea azaldu da. Horretarako, kapituluaren hasieran emakumeak aztertu dira beren ama-eginkizunetik eta, jarraian, ama horiek erakuts ditzaketen askotariko jarrera-hartzeak aurkeztu dira. Haur horiek ulertzea ahalbidetuko duten elementuak ere hartu ditugu hizpide, bai eta adierazleak ezagutzea erraztuko duten balioztatze irizpideak eta behaketa teknikak ere. Azkenik, haur horiekin egindako azterketa-elkarrizketen inguruko zenbait behaketa aurkeztu dira, orientabide hezitzaileetara eta laguntzazkoetara eta babes emozionalera iritsi ahal izateko.

Kapitulu honetan, genero indarkeria jasan duten haurrekin familia giroan esku hartzeak zer nolako garrantzia duen erakutsi asmo dugu baina, era berean, esku-hartze horrek espezializatua eta haurrei zuzendua izateko duen beharra nabarmendu dugu.

Emakumearen arreta zerbitzuetan ezingo da beti emakumeen seme-alabekin esku hartu, giza baliabideak edo denborazkoak direla eta, edo beste edozein arrazoi dela medio. Oso garrantzitsua da gogoan izatea ezin duela edozein profesionalek haurrekin esku hartu.

Familiako genero indarkeriarekin lanean dihardugun profesional taldeek espezializazio oso argia dugu, eta badakigu zer nolako eragina duen indarkeriazko inguruak emakumeengan, nola eragiten duten alderdi pertsonal eta testuinguruzko jakinek, eta zein diren familiako dinamika ohikoenak. Emakume horien seme-alabekin lan egiteak espezifikotasun handiagoa eskatzen du eta, batez ere, haurrek beren ingurua nola ulertzen duten eta han nola garatzen diren sakon ezagutzea.

Hori dela eta, kapitulu honen helburua ez da emakumeei arreta emateko taldeetan lan egiten dutenek emakume horien seme-alabei ere arreta eman diezaieten lortzea; aldiz, indarkeria egoera haurren ikuspegitik ikus dezaten du xede kapituluak. **Datozen orrialdeei esker lortu asmo dena da genero indarkeriaren biktima diren emakumeetan espezializatutako profesional taldeek emakume horien seme-alabak uler ditzaten eta, kasurik hoberenean, eskatzen duten arreta emango duten baliabide profesionalak izatea.**

Ondoko orrialdeekin emakumeei arreta ematen dieten profesionalek haurren sufrimendua ikus dezaten, haurrok kontuan hartzeak zer nolako garrantzia duen uler dezaten eta haiekin esku hartzeko beharra helaraz dezaten lortzen bada, kapitulu honek bere xede nagusia lortuko du.

Ez datza profesional talde guztiek familia giroko genero indarkerian tartean diren pertsona guztiei arreta ematean. Egoeraren biktima oro ikusteko begiak prest izatea da garrantzitsua, eta tresnak izatea haurrak genero indarkerian eta haurretan espezializatutako profesionalek emango duten arreta psikoterapeutikora bideratu ahal izateko.

Edozein profesionalek ezin die arreta eman genero indarkeriaren biktima diren haurrei, baina haur horren amak kontatzen duenaren bitartez ikus dezake. Emakumeari azal diezaioke bere semea edo alaba nola ari den egoera bizitzen. Haurra ulertzeko eta arreta espezializatua emateko tresnak eta baliabideak bila ditzake, eta bilatu behar ditu. Amari bere semea edo alaba babesten lagundu behar dio.

## A. ESKU-HARTZEA INGURUNEAN NOLA TXERTATU

### *i. Amekin esku hartzea: lana ingurunean nola txertatu*

Amak nahitaezko eginkizuna du seme-alaben suspertzean; edozein haurrentzat, ama oinarrizko bizi-erreferentea da eta, horregatik, emakumea seme-alaben irudi babeslea izan dadin saiatu behar da. Oro har, genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeekiko esku-hartzeak betidanik jarri izan du arreta emakume horien suspertze pertsonalerako prozesuan, baina ez du hor bukatu behar. Hori nahitaezko elementua da, jakina, beste edozein esku-hartzeren aurretik egin edo aldi berean egin. Izan ere, seme-alaben laguntzari aurre egin ahal izateko, beharrezkoa da emakumeak berak suspertze pertsonalerako prozesu bat gauzatu izatea.

Garrantzitsua da emakumeari bere prozesu pertsonalean laguntzea, baina ezinbestekoa da, halaber, tratu txarrak seme-alabengan ere eragina duela ohar dadin laguntza ematea. Emakumeek indarberritzeko duten erritmoa errespetatzea oinarrizkoa da haiekin eta seme-alabekin lanean jarraitu ahal izateko, baina kontuan izan behar da zer nolako arriskuan izan daitezkeen haurrak. Arrisku maila handia bada, haurrak babesteko neurriak hartu beharko dira, bai eta emakumea babesteko ere, ahal baldin bada.

Emakumeekin aurrez egiten den prozesu pertsonalean emakumeen autoestimua eta erruduntasun sentimendua lantzen dira, besteak beste, eta bizi izan duena uler dezan laguntzen zaio. Garrantzitsua da, ahal den guztietan, ama gutxieneko baldintza psikologikoetan izatea seme-alabekin prozesua hasteak berekin dakarrena bere gain hartu ahal izateko. Horren **asmoa ez da haurrak bigarren mailan jartzea, izan ere, biktima zuzen gisa hartu behar baitira, eta ez aldeko eragin gisa. Haurren suspertze prozesuan amaren laguntza izatea garrantzitsua dela esan nahi da.**

**Garrantzitsua da gogoan izatea haur horiek ezin dutela beren suspertze prozesuan aurrera egin beren kabuz; helduren baten laguntza behar dute (amarena, ahal den guztietan)**. Genero indarkeriaren biktima diren haur horiek hurbileko erreferente bat behar dute, eta erreferente horrek segurtasun emozionala emango die, beren emozioak adieraz ditzaten behar duten testuingurua emango die, muga osasuntsuak ezarriko dizkiete eta komunikazio afektiboa sustatuko du, haur horiek bizitzea tokatu zaien egoera uler dezaten.

Emakumearekin lan pertsonala hasi eta gero, garrantzitsua da esku-hartze hori bere ama eginkizunera eramatea, bere seme-alaben suspertzean gako den elementu bihur dezan: amekin egiten den esku-hartzeak familia nukleoa berreskuratzeko prozesuaren barruan jabekuntza eta eginkizun aktiboa ematen dizkie emakume horiei. Amek beren burua bizi izan duten indarkeria egoerako elementu pasibo gisa ikusteari uzten diote, ez dira laguntzen eta bideratzen dituen esku-hartzearen hartzaile soil sentitzen; beren bizitza nola zuzendu nahi duten erabakitzeko sentipena berreskuratzen dute, eta bai eta seme-alabei beren garapenean nola lagun egin behar dien erabakitzeko ere. Laguntzarako eta babeserako eginkizun aktibo hori oso garrantzitsua da, maiz, beren bizitzaren kontrola dutelako sentipena ere galdu duten emakumeentzat.

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeekiko esku-hartzean arreta emakumeen ama eginkizunetik jartzea garrantzitsua da emakumearekin berarekin eta bere seme-alabekin esku-hartze osoa lortzeko. Halaber, familia giroko genero indarkeriaren biktima diren beste pertsona horiek ikusteko lanean aurrera egiteko beste modu bat ere bada: alegia, emakume horien seme-alabak.

**Familia giroko genero indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabek zuzeneko esku-hartzea eta zeharkako esku-hartzea behar dute, eta hori amekin lan egitearen bitartez gauzatzen da, beren hobekuntza prozesua indartzen duen testuingurua sortzean.**

Haurrekin egin beharreko lana antolatzeko orduan oinarrizkoa da, ahal den guztietan, emakumearekin seme-alaba bakoitzarekin azterketa egiteko beharra lantzea. Garrantzitsua da emakumeak ez dezala sentitu bere ama eginkizuna zalantzan jarri dela. Guztiz kontrakoa: seme-alabei errekuperatzeko lan zailean lagun egiteko profesionalek ematen dioten laguntza gisa bizi behar du. Emakumeak bizi izan duen balio galtze eta indar kentze egoera dela eta, agian, seme-alabekiko esku-hartzea aurkezten zaionean, zenbait unetan, zalantzan jarri dutela sentituko du, eta nolabait aurre egin dezake edo zailtasunak jar ditzake. Emakume asko seme-alabak babesteko gai ez izanagatik errudun sentitzen dira eta, horregatik, garrantzitsua da prozesuko une horretan beharrezko denbora eta arreta eskaintzea.

Amarengandik urrundutako seme-alabekiko esku-hartzea egoera jakin batzuetan baino ez da egin behar, esate baterako: emakumeak seme-alabei lagun egitea ahalbidetuko ez dion buru nahasteren bat edo droga mendekotasuna duenean, haurra bakarrik utzi duenean, amak ere bere seme-alabekin indarkeria modu sistematikoan gauzatzen duenean, edo adingabearentzat arrisku handikoa den bestelako edozein egoeretan.

*ii. Amek seme-alabekin esku hartzeko proposamenaren aurrean ematen dituzten askotariko erantzunak*

Genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeek autoestimua oso kaltetuta izan ohi dute eta horrek eragina du beren autonomia gaitasuna ikusteko duten moduan. Emakume askok ez dute sentitzen beren seme-alaben beharrei aurre egiteko besteko indarrik dutenik eta, horregatik, maiz «ezer gertatzen ez delako itxura ematea» erabakitzen dute. Horrelako jardueren atzean beldur handia izan ohi da, eta garrantzitsua da profesionalek emakumeei gogoraraz diezaietela beraiei lagundu dieten modu berean lagunduko dietela seme-alabei ere.

Horrelako egoera askotan, amek ez dute itxaropenik izaten oraindik egiteke duten guztiaren aurrean, bisita erregimena erabakiko duten egoera judizialen aurrean eta atzean utzi nahi dituzten beren bizitzako uneak berriz argitara ateratzearen aurrean. Emakumeei une hori igarotzen laguntzeko garrantzitsua da seme-alabekin lotura afektiboak sendotzeak duen garrantzia gogoraraztea, bai eta horrelako egoeretan sortzen diren askotariko beharren barruan landu beharreko lehentasunen zerrenda egiten laguntzea ere. Funtsezkoa da amek ez dezatela izan, besteak beste, seme-alaben aita aldatzeko itxaropenik edo irtenbide bakarra aldeko ebazpen judiziala izango delako esperantzarik. Izan ere, horrek ahalegina beraiengandik eta seme-alabekiko harremanetik kanpo egitea eragingo baitu. Une horretan duten energia eta motibazio guztia beren burura eta seme-alabekiko harremanera bideratu behar dute.

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeek beraiekin eramaten duten zama emozional hori guztia dela eta, ez dute beti onartzen seme-alabekiko esku-hartzea hastea, proposatzen zaien unean. Honako hauek izan daitezke horren arrazoiak: beldurra, akidura sentipena, gertatu dena ahazteko gogoa edo mota horretako esku-hartzea antolatzeko une egokia ez izatea. Horrela, bada, amarekiko lanaren une honetan, amen askotariko erantzunak edo jarrera-hartzeak aurki ditzakegu eta, horien arabera, gehiago nabarmendu beharko ditugu alderdi batzuk besteak baino.

● Seme-alabekin esku hartzea ez dela beharrezkoa uste duten amak, haurrak babestuta daudelako eta gertatzen denaz ohartzen ez direlako ustean

Horrelako kasuetan beharrezkoa da emakumeak seme-alaben sufrimenduaz jabe daitezen, eta lagun egin behar zaie motela eta mingarria izan ohi den prozesu horretan. Horrelakoetan, funtsezkoa da ama gisa duen eginkizunaren eta seme-alabekin duen loturaren garrantzia sendotzea.

Amari laguntzeko, indarkeriak haurrengan izan ditzakeen ondorioak azal diezazkiokegu. Askotan, baliagarria izaten da:

- Berak jasan dituen ondorioekin alderatzea, eta eguneroko bizitzan seme-alaben sufrimendua berak non ikusten duen erakusteko adibideren bat ematea. Amak berak kontatu dituen egoerak abiapuntu hartuta, bera triste edo kezkatuta ikustean, seme-alabek ere ondorioak jasaten dituztela onar dezan laguntzea, haurrek aita iristen denean urduritasuna ikusten dutelako edo aurreko gauean zergatik egin zuten eztabaida galdetzen dietelako.
- Seme-alabekin enpatia sustatzea, tratu txarra jasan zuen aldian nola sentitu ziren azaltzearen bitartez, eta egoera horrek haiengan zer nolako ondorioak izan dituen ikustea.
- Une horretan amek zeren beharra zuten azal dezaten erraztea (norbaitek entzuteko beharra, jendeak ez zezan epaitu, edo beren negarra eta amorrua adierazteko beharra, esate baterako).
- Amarekin hitz egitea indarkeriak seme-alabengan izan dituen ondorioei edo eraginei buruz eta, orduan, une horretan amek zer sentitzen zuten eta seme-alabek orain zer behar dezaketen estrapolatzea. Jarduera hori egitean, maiz, amek antzekotasunak ikusten dituzte beraien sufrimenduaren eta seme-alaben sufrimenduaren artean, eta errazago egiten zaie haurren beharrak identifikatzea, beren beharrekin bat etortzen baitira.
- Gogoeta eta eztabaida egitea amak seme-alabekiko eta indarkeriarekiko aurkeztuko dituen mitoen inguruan; adibidez, seme-alabak ez zirela ezertaz ohartu, beraiek eztabaidan aritzen zirenean haurrak lo zeudelako.

● Seme-alabekin lan egiten bada gerta daitekeenak beldur handia sorrarazten dizkien amak, izan ditzakeen ondorioak direla eta

Horrelakoetan, emakumeak profesionalaren proposamena mehatxu gisa ikusten du aukera gisa baino gehiago, eta horixe da emakumeekin landu beharreko lehenengo gaia. Halaber, garrantzitsua da emakumea, bere erritmoari jarraikiz, bere beldurrak eta mesfidantza ageriko egiteko gai izan dadila.

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeek esku hartzeko proposamenaren aurrean senti ditzaketen beldur nagusiak hauek dira:

<u>- Beren ama eginkizuna zalantzan jarriko den beldurra:</u>

Genero indarkeria jasan duten emakumeek agintea eta mugak jartzeko aukera baliogabetzen joan diren harremanean bizi izan dira. Horren eraginez, emakumeak ezgai sentitzen dira edozein alderditan. Ama eginkizuna izaten da emakumeak zalantzan jartzen duen azkena eta, horregatik, garrantzitsua da kontu handiz lantzea; izan ere, emakumeak bere bizitzako alderdi hori kritikatzen dela sentitzen badu, are balio gutxiago duela senti baitezake. Ohikoa da, bere amatasuna zalantzan jartzen bada, haurrekin esku hartzeko proposamenaren aurkako erantzunak erakuts ditzatela.

- Bizi izan dutenari eta sentitzen dutenari buruz hitz egin eta gero, seme-alabak kaltetuago izango direlako beldurra:

Zenbait emakumek uste du, seme-alabek bizi izan duten egoerari buruz hitz egiten dutenean, haien egoerak okerrera egingo duela. Horrelakoetan, ama askok mito sozial asko partekatzen dituzte seme-alabei azaldu behar zaienaren gainean, gorroto edo amorru sentimenduak irten ez daitezen gertatutakoaz ez hitz egitea hobea delako ideiaren gainean. Garrantzitsua da ama horiei azaltzea seme-alabek dituzten emozioak izaten jarraituko dutela nahiz eta gertatutakoaz ez hitz egin; ordea, horretaz ez hitz egiteak kalte handiagoa egingo die eta ulertezintasun eta bakardade handiagoa eragingo die.

- Seme-alaben zaintza kenduko dioten beldurra:

Genero indarkeria jasan duten emakumeak gehien beldurtzen dituen ondorioetako bat justiziak seme-alaben zaintza kentzea da. Beldur hori erasotzaileek emakumeei egiten dizkieten mehatxuek eragiten dute. Izan ere, erasotzaileek, nahi baldin badute, seme-alabak ken diezazkietela egiten diete mehatxu emakumeei. Gainera, beren kabuz ez direla gai izango haurrak zaintzeko esaten diete eta, hori dela medio, salatu egingo dituela. Zoritxarrez, maiz, banandu eta gero, emakumeek borroka egin behar izaten dute seme-alabak zaintzeko duten gaitasuna zalantzan jartzen duten prozesu judizialekin eta/edo perituen balioztatzeekin. Arlo horretan, garrantzitsua da emakumeak lasaitzea seme-alaben zaintza galtzeari dagokionez. Baina beti errealista izan behar da eta ez da ezkutatu behar erasotzaileak zaintza eska dezakeela, maiz, emakumeari tratu txarra ematen jarraitzeko edo bere ondora itzul dadin estutzeko bestelako modu gisa.

### ● Seme-alabak berreskuratzeko erantzukizuna profesionalen esku uzten duten amak

Jarrera horren atzean ezintasun sentimendua, erantzukizuna beren ingurukoen gain jartzeko joera edo semeak edo alabak amak nahiko lukeen bezala erantzun ez duelako etsipen sentipena izan ohi dira. Horrelakoetan, nahitaezkoa da emakumearekin lan egitea sentimendu horiek adieraz ditzan, horixe baita bere lankidetza lortzeko modu nagusia. Seme-alabak berreskuratzean izan behar duen eginkizun aktiboa sendotu behar da.

Ama horiek gainezka sentitu ohi dira eta, maiz, ezin izaten dute konektatu seme-alaben sufrimenduarekin. Gerta daiteke seme-alaben aldaketan tartean direla sentitzeko gai ez izatea, edo arazoa seme-alabek dutela pentsatzea.

Horrelako kasuetan profesionalen esku-hartzeak erraztu egingo du amak semearen edo alabaren alderdi onak eta osasuntsuak ikus ditzan. Horrela, lotura sendotuko da eta laguntza bideragarriagoa izango da.

### ● Esku-hartzean hasieratik laguntzeko gai diren amak

Ama horiek seme-alabekiko kezka adieraz dezakete, eta indarkeria egoerak bere inguruan eragin duen minarekiko enpatia erakusteko gaitasun handia eman dezakete aditzera.

Emakume horiek jatorri familian indarkeria maila txikiagoa izan ohi dute edo, gutxienez, indarkeriarik gabeko harreman ereduekin bizitzeko aukera izan dute. Errespetuak eta seme-alabak zaintzeak zer esan nahi duen ikasteko aukera izan dute. Ondorioz, ez dituzte ekintza jakin batzuk normalizatzen, eta seme-alaben ondoezaren adierazleen aurrean erantzuteko gai dira.

### *iii. Genero indarkeriaren biktima izan diren haurrak ulertzea: ezaugarri bereizgarriak*

Laugarren kapituluan aipatu diren ondorioei berriz ekingo diegu eta, jarraian, haurrak igarotzen dituen zenbait egoera emozional azalduko ditugu, eta haurrekin esku hartzeko aukerak aurkeztuko.

Genero indarkeriaren biktima izan diren seme-alaben sufrimendua, jasan duten kaltea eta haiekin esku hartzeko beharra ulertze aldera, garrantzitsua da ezagutzea haurrak zer nolako jarrera hartzen duen gurasoen harremanaren aurrean indarkeriazko giroan. Jarrera hori askotarikoa izan daiteke kasu bakoitzaren arabera, baina familian indarkeria jasaten ari diren haurren ezaugarri bereizgarriak ikustea ahalbidetuko digu.

Jarrera-hartze horietako bakoitza deskribatzeak (Agustin et al., 2007) adierazle gisa balio diezaguke. Hala ere, kontuan izan behar dugu kokapen horiek dinamikoak direla eta denboran zehar aldatu egiten direla, haurraren, familiako gainerako kideen edo etxeko egoeraren bilakaeraren arabera.

- *Haurrak jokabide normalizatu gisa ikusten du indarkeria.*

Ziur aski, haur horrek ez du indarkeria arazo gisa bizi izango eta, hortaz, ez dela ezer gertatzen edo ez dela ezer aldatu behar uste izango du.

Haur hori bizi den inguruan emakumearen gaineko nagusitasuna zilegi izango da eta, haurrak eredu bera zertan jarraitu ez duen arren, ezin da zalantzan jarri harreman mota hori. Haur horiekin esku hartzean, bere sinesmenekin zuzeneko aurre egitea bizi dezan saihestu behar da; garrantzitsua da dituen harreman ereduak zalantzan jar ditzan sustatzea, baina beti errespetuz eta mehatxatuta senti dadin saihestuz.

- *Haurrak indarkeria dagoela ukatzen du, defendatzeko mekanismo gisa.*

Haurrarentzat mingarriegia da indarkeria onartzea eta, beraz, ez du horretaz inorekin hitz egiten. Norbaitek haurrari errealitate horrekin aurre egiten badio, haurrak ukatuz eta ihes eginez erantzungo du.

Haur horri indarkeria egoeren adibideak jartzen zaizkionean bere burua halakoetan ezagutzea kostatu egiten zaio eta, horregatik, beharrezkoa da konfiantza sustatzea eta haurraren urruntzea eta beldurra desagerraraziz joatea. Horrelakoetan, nahitaezkoa da haurraren erritmoa errespetatzea, eta ez zaio indarkeria horren inguruko galdera zuzenik egin behar. Profesionalak baldintzarik eta iritzirik gabeko laguntza eman behar dio, lotura ona lor dadin.

- *Haurrak indarkeriaren erantzuletzat du bere burua.*

Haurra sinetsita dago bera dela indarkeria leherrarazi duena eta bera izan ez balitz ez litzatekeela indarkeriarik izango. Oro har, ez du arazorik bizi izandako indarkeriaz hitz egiteko, eta bere buruarengan arreta jarriz hitz egiten du, familiako dinamikan arreta jarrita egin ordez. Baztertuta, errudun eta gaizto sentitu ohi da familian.

Haurrarekin landu behar den lehenengo gaia bere erruduntasun sentimendua hitzez adieraztea da, indarkeria ez duela ezerk justifikatzen erakuts diezaiogun eta, egiten duena egiten duela, helduaren indarkeriazko erantzuna beti dela neurriz kanpokoa azal diezaiogun. Horrelakoetan, haurrari erruduntasun sentimendua kenduko dioten mezu argiak eta agerikoak behar dira, mezu horiek entzuteko gai baita, eta horrela eragingo baita aldaketa bere diskurtsoan. Haur horiekin are nahitaezkoagoa da, ahal baldin bada, era berean amarekin lan egitea, erruduntasun sentimendua kenduko dion diskurtso berri horretan lagun egin diezaion.

● *Haurra triangelatuta dago.*

Gurasoen harremanaren erdian dagoela uste du, eta ez du gurasoetako baten alde ere egiten, dela gurasoek bitarteko gisa erabiltzen dutelako, dela erdian jartzen dutelako eta indarkeria bukatzeko helduengan eragiteko erantzule dela sentitzen duelako.

Haurra erdian izatearen arrazoi izan daiteke, alde batetik, lotura ona izatea bai aitarekin, bai eta amarekin ere edo, bestetik, bata aukeratzen badu bestea salduko duela sentitzea. Haurrak leialtasunaren inguruko gatazkan ikusten du bere burua. Haurra estu eta errudun sentitzen da; bere arreta behar bezala banatzen badu egoera konponduko dela pentsatzen du, eta erne izaten da uneoro. Egoera horrek «heldu egindako haur» bihurtzen du haurra; inguruan gertatzen den guztiari erne izaten da baina, era berean, helduen arreta eskatzen du.

Horrelakoetan, haurrak haur zeregina berreskuratu dezan lan egin behar da. Amarekin ere lan egin behar da, seme-alabek oraindik beraiei ez dagozkien zereginak eta eginkizunak beren gain har ditzatela ez diezaieten utzi. Haurrarekin, bere eskakizun maila behera dezan saiatu behar da, eta arreta bere adinerako egokia den horretan jar dezan eta erabakiak hartzeko arduradun helduak direla berriz ikus dezan lagundu behar zaio.

● *Haurrak amaren alde egiten du.*

Haurra zehaztuago dago harreman gatazkatsuaren barruan, baina segurtasun eza eta herstura oso agerian ditu. Horrelakoetan, amaren eta haurraren sintomatologia antzekoak izaten dira.

Zenbait haur amaren aurrean jartzen dira eta beste batzuk atzean, baina bi kasuetan haurrari bere emozioak adierazten lagundu behar zaio, bai eta aitaren inguruko ikuspegi errealista berreskura dezan ere, galdu badu behintzat (gai horretan amak oso eginkizun garrantzitsua du, alegia, aita gaizto gisa ez aurkeztea, baina maiz zeregin hori oso zaila izan ohi da amarentzat).

Haurra amaren aurrean jartzen denean erasotzailearen aurrean babesteko asmoz jartzen da baina, zenbait kasutan, amarekiko jokabide oldarkorrak ere erakuts ditzake, babesgabetasun sentimenduak eragindako ezintasunaren emaitza gisa. Lotura oso estua du amarekin eta, maiz, amak konfiantzazko lagun gisa hartzen du eta bere herstura haurrarekin partekatzen du; horrela, aita gaizto gisa aurkeztea errazten da. Uneren batean helduak adiskidetzen badira, amak traizioa egin diola sentitu ohi du haurrak eta, gero, horrek errudun sentiarazten du ama. Amarekiko harreman sinbiotikoa hausteko eta semearen edo alabaren adinera egokitutako burujabetasuna sustatzeko lan egin behar da.

Haurra amaren atzean jartzen denean babesgabe eta laguntzarik gabe sentitzen da; beldur handia izaten du eta amari erantzuki egiten dio egoera jasategatik. Maiz, egoeraren berri ematen dio haurrak konfiantzazko helduren bati (senitartekoren, irakasleren edo adiskideren bati), sentitzen duen ondoez handia dela eta. Garrantzitsua da amarekin lan egitea semeari edo alabari segurtasuna ematen eta heldu babeslearen irudia izanik gauzatu behar duen eginkizuna sustatzen laguntze aldera.

● *Haurrak aitaren alde egiten du.*

Horrelakoetan, arrazoia izaten da aitak pena ematen diola eta egoeraren biktimatzat jotzen duela (bakarrik dagoelako, etxetik joan delako, kartzelan izan delako edo zailtasun ekonomikoak dituelako), edo aitak arrazoia duela eta indarkeriaren errudun ama dela jotzen duela. Beste batzuetan, haurrak jarrera hori hartzen du anaia edo arrebaren bat amaren ondoan dagoela eta hori orekatzeko, edo aitak esandakoa barneratu duelako. Beste arrazoi bat izan daiteke, amaren

ondoan geratuz gero, horrek bera ere biktima gisa definituko duela uste izatea, eta horrek herstura eta beldurra sorrarazten dizkio.

Horrelakoetan, haurraren eta amaren arteko lotura oso kaltetuta izaten da eta, gainera, ohikoa izaten da ama balioa kenduta izatea, bizi izan duen indarkeriazko harremanaren ondorioz. Oso garrantzitsua da haur horrekin bai aitaren bai eta amaren inguruko ikuspegi errealista lortzerantz lan egitea, amaren izen ona gal dadin saihesteko. Halaber, nahitaezkoa da banantzean eragindako dolu prozesuan lagun egitea.

Amari dagokionez, garrantzitsua da amarekin haurrarenganako zenbait jarrera lantzea. Esate baterako: ez diezaiola haurrari galdeketa egin aitarekin izatetik datorren bakoitzean; hain zuzen ere, hori haurra afektibitateari dagokionez nahiz legez galtzeko beldurren eraginez egiten du. Horrelako galdera sortek herstura handia eragiten dute haurrarengan, eta amarengandiko urruntzea sendotzen dute.

Horrelako askotan, haurra aitarekin izatetik iristen denean asaldatuago etortzen da, amari erronka gehiago jotzen dio eta, maiz, iraindu ere egiten du edo ez duela berarekin bizi nahi eta nahiago duela aitarekin joatea esaten dio. Horrelako egoerak oso gogorrak dira emakumearentzat, semea edo alaba galtzen ari dela eta ezin duela ezer egin bere ondoan gera dadin sentitzen baitu, eta horrek ezintasun handia eragiten dio. Era berean, azpijoko horrek erasotzailearen aurkako amorru guztia piztu dezake emakumearengan, eta zail izan daiteke berarentzat haurraren aurrean hori kontrolpean izatea.

Horrelako egoeretan, garrantzitsua da emakumeari gomendatzea ez ditzala aintzat hartu haurraren hitzak, izan ere, aitak harekin izan den denboran esan edo egin dionak baldintzatuta izaten baita. Orobat, oinarrizkoa da une horretan emakumearengan azaleratzen diren sentimendu guztiak balioestea; aintzat hartzen ez baditugu, amarekin egingo dugun edozein esku-hartze alferrik izango da, itxaropenik ezak eta minak pisu handia baitute une horretan. Amari jarraitu beharreko zenbait estrategia azal diezazkiokegu, besteak beste:

- Ez diezaiola haurrari aurka egin, horrek eztabaida baino ez bailuke ekarriko, eta erraza izango bailitzateke izen ona galtzea.
- Haurrari esan diezaiola une horretan urduri dagoela eta hobe dela geroxeago hitz egitea.
- Eguneroko ekintzaren bat egin dezala, esate baterako, dutxa hartu edo afaria egin. Batzuetan, haurrak ez du lagundu nahi izango, eta garrantzitsua da ez behartzea horretan. Gero, pixkanaka, ekintza horietan sartzen joan daiteke.

Horrelako ekintzek arruntak direla eman dezakete, baina oinarrizkoak dira; izan ere, haurrak horien bitartez ulertzen du ama bere hersturari, amorruari edo haserreari eusteko gai dela, eta bere ondoeza kontrolpean mantentzen duen eta, gertatzen dena gertatuta ere, desagertzen ez den pertsona indartsu bezala ikusten du. Horrelako jokabideak segurtasun handia ematen dio haurrari, eta bizi duen nahasmendu egoeraren erdian erreferentzia puntua ematen dio.

Jazoera kritikoa pasatu denean (ez justu aitarekin izatetik iritsi eta berehala) garrantzitsua da amak haurrari azal diezaiola haurra bizitzen ari dena ez dela erraza, berak haurrak sufri ez dezan nahiko lukeela edo ahal duen guztia egiten duela egoera hobetu dadin. Funtsezkoa da, halaber, beste behin ere maite duela eta beti bere ondoan izango dela babes emateko agerian esan diezaiola amak semeari edo alabari.

Maiz, amak ezin izaten du horrela jokatu, eta garrantzitsua da normala dela nabarmentzea. Izan ere, berarentzat oso zaila den jokabidea aurkezten da, eta seme-alaben aitaren aurka sentitzen duen

amorruari eta haurrarengan ikusten duenaren aurreko itxaropenik ezari eutsi behar diolako. Garrantzitsua da amari helaraztea batzuetan horrela jokatzea lortuko duela eta beste batzuetan arazoak gainezka egingo diola eta bestela jokatuko duela. Oinarrizkoa da hori gogoan izan dezala eta ez dadila errudun sentitu. Amek horrela jarduten ikas dezakete seme-alaben larruan jartzea lortzen dutenean eta haurrek duten segurtasun beharra ulertzen dutenean. Era berean, bestela jardunez gero (haurrarekin eztabaida egiten badute, aita iraintzen badute edo azalpenak eskatzeko deitzen badio edo haurrari galdeketa egiten badio) haurra bien artean jartzen dutela ikusteak laguntzen die, eta, gero, haurra errudun senti dadin eta gaizki jokatu duelako ama gal dezakeela pentsa dezan eragiten dute.

## Haurrak bere egin ditzakeen askotariko eginkizunak:

Askotariko jarrera-hartzeak ikusi eta gero, bistakoa dirudi familiako edozein funtzionamendutan, kideek gainerako lagunekin elkarrekintzan ari direnean kontzienteki edo oharkabean gauzatzen dituzten eginkizunak hartzen dituztela edo ematen zaizkiela. Sekretuek, nahasmenak eta bizitzen diren egoerek eragindako beldurrak nabarmen baldintzatzen dituzte genero indarkeria dagoen familietan garatzen edo esleitzen diren eginkizunak. Jarraian azaldu diren eginkizunetako bat bera ere ez da lagungarri izango haurraren garapen osasuntsurako, eta ez dira hartu behar familia sistemaren barruko kokapen egonkortzat.

Baker eta Cunninghamek (2004) eginkizunen adibidetzat jarri dituzte hauek: eztabaidetan bitarteko, familiako haurtxoa, inoiz oker ezin daitekeen haurra, ingurukoen arazo guztien erantzule edo ardi beltza. Halaber, jokatzeko hainbat modu ere aipatu dituzte: erasotzaileari arreta galaraztea, anaia edo arreba gazteagoak handik beste nonbaitera eramatea edo ihes egitea.

Haur horiei esleitzen zaizkien edo bere egiten dituzten eginkizunak eta dituzten jokatzeko hainbat modu gurutzatzen saiatuz gero, haur horiek indarkeriaren aurrean dituzten askotariko familia eginkizunak ezarri ahalko dira. Baker eta Cunninghamek (2004) aurkeztu duten tipologiaren eta, aurrerago, Agustin et al. (2007) autoreek aipatutakoaren artean ez dago alde handirik, baina begirada beste ikuspegi batetik osatzen lagun daiteke.

Familiako eginkizunak aztertzeak laguntzen du familia bereko seme-alabek etxean gertatzen dena guztiz bestelako moduetan ikus dezaketela ulertzen. Jarrera horiek gogoan izatea da haur horiek genero indarkeria dagoen egoeretan nola sufritzen duten ulertzeko modu bat.

### ✯ Zaintzaile eginkizuna

Haur horiek anaia edo arreba gazteagoen eta amaren ama edo aita gisa jarduten dute. Etxeko ohiturez eta erantzukizunez arduratu ohi dira (janaria prestatu edo anai-arreba gazteenak lotara eraman), indarkeriazko egoeretan anai-arreba gazteenak salbu izaten laguntzen dute eta guztien ongizatea lortzen saiatzen dira (haur txikiak kontsolatuz edo amari sendagaiak eramanez).

Haur horiek zailtasunak izan ohi dituzte beren adinerako egokiak diren jokabideak eta jarrerak beren gain hartzeko. Haiekiko eta amarekiko esku hartzea haurren mundura itzul daitezen bideratua izan behar da, amari boterea ematearen bitartez eta haurraren aurrean pertsona babesle gisa erakustearen bidez, eta bere burua eta haurrak zaintzeko nahikoa indar duela ikusarazi behar zaio.

## * Amaren konfiantzazko lagunaren eginkizuna

Haurrak amaren sentimendu, arazo eta jarduteko plan guztiak ezagutzen ditu (ea haserre dagoen ala ez, arazo ekonomikoak dituen edo abokatuak amari dokumenturen bat eskatu dion). Indarkeriazko egoerak ikusi eta gero, haurrak ikusi duenak amari balio dio gertatutakoa gogorarazteko, batez ere erasotzaileak, gero, gertatu dena minimizatzen duenean edo gertatutakoaren inguruan gezurra esaten duenean.

Horrelako egoeretan, seme-alabek beraiei ez dagozkien erantzukizunak hartzen dituzte, aurreko rolean bezala; gainera, baina, bi gurasoetako baten alde egiten dute, argi eta garbi. Amarekin, garrantzitsua da semearen edo alabaren eginkizunaren mugak lantzea eta, era berean, semeak edo alabak aitarekiko sentimendu positiboak onartzeko aukera ikusten duenean sentitzen duen minean eta amorruan lagun egitea.

Horrelakoetan, oinarrizkoa da haurra amarenganako nahiz aitarenganako dituen sentimenduak identifikatzeko gai izan dadila, eta biekiko emozio positiboak eta negatiboak daudela onar dezala. Garrantzitsua da haurrak indarkeriazko egoerek berekin dakartzaten emozio guztiak ezagut ditzala, nahiz eta, maiz, kontraesankorrak direla iruditu edo amarekiko nolabaiteko leialtasuna puskatzen ari dela uste duen.

## * Erasotzailearen konfiantzazko lagunaren eginkizuna

Erasotzaileak hobekien tratatzen duen semeak edo alabak amaren aurkako erasoen zergatia justifikatzeko joera izan dezake. Amaren jokabidea zalantzan jartzera bultzatu daiteke haurra, eta hori egiteagatik saritu, pribilegioak emanez edo gainerako anai-arrebei baino tratu hobea emanez, esate baterako.

Horrelakoetan, esku-hartzea amaren eta gainerako anai-arreben minarekin enpatizatzera zuzendu behar da erabat, baina ez da ahaztu behar berarena. Maiz, eginkizun hori hartzen duten seme-alabek beren mina ezkutatzen dute, eta haien beharrak oharkabean igarotzen dira. Garrantzitsua da bere sufrimenduaren ezaguera lantzea, bai eta erasoetan edo geroago semeak edo alabak indarkeria gauzatzen duen pertsona «defendatzeagatik» erakuts dezakeen erruduntasun sentimendua lantzea ere, indarkeria jasaten duten pertsonak babestearen kaltetan.

## * Erasotzailearen laguntzailearen eginkizuna

Gauza iraingarriak esanez edo fisikoki eraso eginez amari tratu txarra eman diezaion aukeratzen edo horretara behartzen den semea edo alaba. Horrelakoetan, haur oso gazteak izaten dira, eta haur horiei «gonbita luzatzen» zaie amaren aurka indarkeriaz jarduteko, jolasa izango balitz bezala. Gogoan izan behar da manipulazio horiek seme-alabengan min izugarria eragiten dutela. Gainera, harremanak izateko eta jarduteko indarkeriazko modu hori barnera dezaten arrisku handia dago eta, haiekin esku hartzen ez bada, nerabezaroan edo helduaroan jokabide hori errepika dezaten eragin dezake.

Horrelakoetan, esku-hartzea, batez ere, semeak edo alabak erakuts dezakeen erruduntasun sentimendura bideratu behar da. Garrantzitsua da haien biktima izaera lantzea, baina ez biktima

egiteko helburuarekin; erasotzailearen manipulazioaren beste biktima bat izan den indarkeriazko testuinguruan kokatzeko xedearekin baizik.

Horrelakoetan, nahitaezkoa da amarekin ere lan egitea, semearen edo alabaren biktima egoera uler dezan eta, horrela, amaren eta semearen edo alabaren arteko lotura berreskuratzeko edo konpontzeko helburua betetzen saia dadin.

## * Haur perfektuaren eginkizuna

Haur horiek indarkeria prebenitzen saiatzen dira eta, horretarako, gauzak behar bezala egiten dituzte: eskolan ikasle bikain bihurtu, inoiz inorekin borrokarik ez egin eta eztabaidan ez aritu, inoiz ez jarki edo bere arazoak bere barruan izan, inorekin partekatu gabe. Beren buruarekin edo anai-arreba gazteagoekin pazientzia gutxi erakuts dezakete.

Bistan denez, haurraren jokabide hori okerra da, ezin baitu inolaz ere indarkeria kontrolatu. Baina, gainera, erruduntasun sentimendu oso handia eragiten dio ez duela lortu hurrengo indarkeriazko ekintza saihestea ikusteak. Horrek, haur horietan, eskakizun maila handiagoa sorrarazten du, hurrengoan indarkeria saihesten saia daitezen.

Horrelakoetan, esku-hartzea semearengana edo alabarengana bideratu behar da, indarkeriazko egoera ez dagoela bere mende eta berak ezin duela ezer egin hori aldatzeko onar dezan. Horrek esan nahi du semeari lagun egin behar zaiola (eta amari ere lagundu behar zaio) izango dituen amorru, ulertezintasun eta ezintasun sentimenduak bideratzen. Kasu horietan, amak etengabe adorea eman behar dio semeari edo alabari (ikastetxean, kirolean edo bestelako edozein egoeratan), nahiz eta «bikaintasun»ezko emaitzarik ez lortu. Horrela, haurrak ama bere ondoan duela eta, lortzen dituen emaitzak lortzen dituela, maite duela ere ulertuko du.

## * Epaile eginkizuna

Helduen artean bitartekotza egiten duten eta bakea mantentzen saiatzen diren haurrak dira. Horrelakoetan, haur horiekin lan egitean, oso kontuan izan behar dira erruduntasun sentimendua, erantzukizun gehiegi izateagatiko herstura edo akidura.

Lehenago aipatu ditugun triangulazio egoeretan azaldutako esku-hartzearen antzekoa gauzatu beharko litzateke hemen ere. Amari dagokionez, garrantzitsua da harekin semearen edo alabaren babesa lantzea, eta batera estrategiak bilatzea, haurra gatazka egoeratik atera dezan. Haurra, ama egoeraren ardura hartzeko gai dela eta bere burua eta seme-alabak babes ditzakeela ikusten duenean, lasaitzen hasiko da eta amari «zain dezan» utziko dio. Izan ere, une horretara arte, ama berak zaindu beharreko pertsona gisa ikusi baitu, eta ez irudi babesle gisa.

Horrelakoetan, seme-alabekiko esku-hartzea oso lotuta izaten da amak gauzatzen duen prozesuari, oinarrizkoa baita amak bere burujabetasuna eta segurtasun irudia berreskura ditzala seme-alaben aurrean. Hori lortzen hasten denean, haurrak babes eta errespetuzko testuingurua (edo irudia) eta segurtasunik gabeko eta aurretik ikusi ezin den egoera bereizi ahalko ditu.

## * Errudun eginkizuna

Familiako arazoen kausa gisa eta gurasoen arteko tentsioaren errudun gisa identifikatzen den haurra da. Bere jokabidea indarkeria justifikatzeko modutzat erabiltzen da, eta behar bereziak dituen edo erasotzailearekiko lotura egiten duen semea edo alaba izan ohi da.

Eginkizun hori hartu duen haurrak jasaten dituen ondorio larrienetako bat familia barneko isolamendua da, bai eta erruduntasun sentimendua ere, gurasoak banantzen baldin badira.

Horrelako kasuetan esku hartzean, oinarrizkoa da amarekin indarkeriaren azalpenaren eta arduradunen inguruan lan egitea, eta semearen edo alabaren «errudun» jokabidetik kanpo kokatzea. Behin emakumeak indarkeriaren erantzukizuna bere bikotekide(ohi)aren gain jartzen duenean oso errudun sentitzen da, eginkizun hori izan duen semeak edo alabak jasan duen mina dela eta.

Une horretatik aurrera, garrantzitsua da amaren eta semearen edo alabaren arteko lotura indar dadin lan egitea. Horretarako, komunikazioa sustatu behar da eta amarekin batera zenbait tresna bilatu behar dira, semeari edo alabari gertatu dena azal diezaion. Halaber, oinarrizkoa da seme-alabekin indarkeria egoeraren ondorioz errudun sentitu izanari loturik agertu ohi diren erresumin, amorru eta ezintasun sentimenduekin lan egitea.

## B. BALIOZTATZEA

### *i. Balioztatzeko unean aintzat hartu beharreko aldagaiak*

Genero indarkeriak haurrengan duen eragin maila hainbat aldagairen araberakoa izaten da, eta aldagai horiek kontuan izan behar dira haurraren egoera orokorraren balioztatzea egiteko. Kontuan izan beharreko elementu horiez gain, aintzat hartu behar da haur bakoitzaren banakotasuna ere; pertsona diren aldetik dituzten banako aldeak eta, aldagarritasuna bere testuinguruan hartuta, horren arabera haurrak igarotzen dituen askotariko uneak errespetatu behar dira.

Lehenago aipatu dugun haurraren jarrera hartzea kontuan izan beharreko elementu gakoa da, baina badira aintzat hartu behar diren bestelako alderdiak ere:

- Jasandako tratu txarren tipologia, gogortasuna eta maiztasuna.
- Ingururik hurbilenak haurrari ematen dion babes maila.
- Amarekiko loturaren indarra eta kalitatea.
- Haurraren beraren erresilientzia maila[52].
- Haurraren adina.

Oso garrantzitsua da aldagai horien pisua eta/edo elkarketa ezagutzea, haur bakoitzaren errealitatera egokitutako lan ildoak zehaztu ahal izateko. Hezkuntzako esku-hartzeak eta esku-hartze terapeutikoek ahalik eta egokituen izan behar dute haur bakoitzaren egoerara.

[52] Termino horrek fisikan du jatorria, eta haurren psikiatra Michael Rutterrek eta Boris Cyrulinkek (frantses neurologoa, psikiatra eta etologoa) sartu zuten psikologia arlora. Pertsonok tragediak edo oso traumatikoak diren gertakariak gainditzeko dugun gaitasunari dagokio.

*<u>* Jasandako tratu txarren tipologia, gogortasuna eta maiztasuna.</u>*

Puntu horretan, garrantzitsua da zenbait gairen inguruan dugun ezagutza berreskuratzea, besteak beste, genero indarkeriak emakumeengan eragiten duen moduaren edo tratu txarren tipologiak, tratu txarren gogortasunak eta maiztasunak emakumeek jasaten dituzten ondorioetan eragiten duten eraren inguruan. Luzaro uste izan da seme-alabak emakumeak jasaten duen indarkeriaren alboko biktima direla. Ondorioz, haur horiek ikusezin izan dira, eta ezin izan dira beraiek indarkeriaren biktimatzat hartu. Aurreko kapituluan, genero indarkeria jasaten den egoerek haurrengan sorrarazten dituzten eraginak azaldu direnean, haurrek sufritzen dituzten ondorio larriak nabarmendu dira, amak sufritzen dituenez gain.

Horrela, bada, haurrentzako balioztatze adierazleak bilatzean emakumeen kasuan, tratu txarren tipologiari, gogortasunari eta maiztasunari dagokienez, erabilitako berak baliatu beharko ditugu: ea etxean eraso fisikorik gertatu den, zein den indarkeriaren maiztasuna, ea tratu txarrak haurrengana ere zuzentzen diren (ea haiek ere irainak, izen ona galtzea, mespretxuak, kolpeak edo ostikoak jasaten dituzten, eta haien gauzak puskatzen dituen erasotzaileak, ea ez zaien lo egiten uzten edo ea nahi ez dituzten gauzak egitera behartzen dituzten), ea etxean suzko armarik dagoen edo ea indarkeriarekin batera helduek droga mendekotasunen bat duten.

*<u>* Amaren haurrarenganako babes maila</u>*

Garrantzitsua da haurren inguru hurbilena eta indarkeriazko egoeren aurrean helduek duten erantzuna balioztatzea. Orobat, haurrak babes dadin zer nolako tresnak dituen jakiteak ere garrantzia du. Balioztatu behar diren zenbait alderdi (halakorik baldin badago, eta zein mailatan dauden) laugarren kapituluan aipatu dira.

Zoritxarrez, oraindik mito eta estereotipo asko dago, haurrak erasoak gertatzen direnean aurrean ez daudelako gertatzen direnaz ohartzen ez direla pentsarazten dutenak, edo ageriko sintomatologia erakusten duten seme-alabek baino sufritzen ez dutela sinestarazten dutenak (oldarkortasuna edo depresio sintoma zorrotzak) edo, beste batzuetan, ama suspertzen bada, haurrak ere ageriko laguntzarik gabe suspertuko direla uste izaten da.

Haurrek jasan duten eta, gaur egun ere, jasaten duten ikusezintasuna dela eta, zaila da haurrak «etorkizuneko pertsona» gisa ez hartzea, jaiotzen diren une beretik eskubide osoak dituzten pertsonatzat jo ordez. Genero indarkeria dagoen testuinguruetan, gainera, zenbait profesional taldek tratu txarren biktima den emakumea bere seme-alaben sufrimenduaren errudun bihurtzeko beldurra izaten dute. Emakume askok, prozesuko uneren batean, sentipen hori hitzez adierazi ohi dute, seme-alaben aita gaizki aukeratu dutela, haurren sufrimendu guztiaren errudun direla edo seme-alabek bizi izan dutena bizi zezaten saihestu behar izan zuela esanez. Emakumearekin lan egitean, garrantzitsua da seme-alabek jasan duten indarkeriaren erantzule bakarra nor den gogoraraztea, eta erruduntasun sentimendu hori erantzukizunerantz birbideratzea, eta kontzeptu horrek inplizituki berekin dakarren aldaketarako aukera nabarmentzea.

Besteak beste, bi arrazoi horiek direla eta (ikusezintasuna eta emakumearentzat kaltegarri izan daitekeen esku-hartzearen beldurra), tratu txarra jasan duten emakumeen seme-alabekiko sentikortze falta handia dago. Baina, hain zuzen ere, emakumeari ekar diezaiokeenaren inguruko kezka hori dela medio, haien seme-alabekin esku hartzea beharrezkoa da, alde batetik, sufrimendua eta familian izaten dituen ondorioak kroniko bihur ez daitezen eta, bestetik, ondorioak, goiz edo berandu, ageriko egingo direlako seme-alabengan (asko edo gutxi), eta emakumearen erruduntasun sentimendua are handiagoa izan daitekeelako.

Haurrak ikusezin izaten laguntzen duen eta gizartean horren zabalduta dagoen ideia hori alde batera utzita, badira genero indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabekiko berariazko esku-hartzea aurkezteko orduan eragina duten bestelako mitoak ere. Mitoen gizarteko erabilgarritasuna arazo oso konplexuak sinplifikatzen saiatzeari dagokio eta, era berean, arazoei aurre egin ezin dien edo aurre egin nahi ez dien pertsonak lasaitzen saiatzeari. Hauek dira jendearen, biktima diren emakumeen edo profesional taldeen diskurtsoetan aurki ditzakegun zenbait gezurrezko uste:

- Haurrak egiazki egoeraren eragina jasango balu, begiratze soilarekin ikusiko litzateke, jokabide oldarkorrak edo desafiatzaileak erakutsiko bailituzke.
- Amak ere erantzukizun bera du tratu txarrei dagokienez, badakielako hura gertatzen ari dela, jakitun izanik edo inkontzienteki (batez ere, seme-alaben aurkako tratu txar fisikoen edo sexu abusuen kasuetan).
- Haurrek edo nerabeek amets egiten dute, istorioak asmatzen dituzte eta etxean gertatzen denaren inguruan gezurrak esaten dituzte; helduen arreta erakartzeko egiten dute, eta ez dituzte ondorioak aurreikusten.
- Tratu txarren eraginek ez dute garrantzirik izaten; denborarekin, dena normaltasunera bueltatzen da (batez ere oso gazteak diren seme-alaben kasuan).

Amen, irakasleen edo gizarteko esku-hartzeko profesionalen artean arruntak izan daitezke mito horiek eta, maiz, haurrek beharko luketen babes guztia ez jasotzea eragiten dute. Garrantzitsua da seme-alaba horien gainean dugun ikuspegia aldatzea eta haiekin enpatizatzen saiatzea, haien larruan jartzea; haur horien amei arreta ematen diegun profesionalok, nolabait, haur horiek babes ditzakegun edo babestu behar ditugun pertsona bihurtzen gara.

*__* Amarekiko loturaren indarra eta kalitatea.__*

Haurrak amarekin duen lotura nahitaezko elementua da. Horregatik nabarmendu da hainbeste amak, ahal den guztietan, haurren suspertzean parte hartzeak duen garrantzia. Haurrak testuingurua guztiz aurkakoa izanik ere, babesa eta segurtasuna helaraziko dizkion pertsona babesle gisa ikusten du ama, edo hala ikusi behar du. Eta amekin eta haurrekin egiten den esku-hartze profesionalak alderdi hori sustatu behar du, ahalik eta gehien.

Lotura pertsona jakin batzuen artean izaten den harreman afektibo sendoa baino ez da baina, era berean, banantze edo galera afektiboren baten emaitza den minaren zenbait forma azaltzea ahalbidetzen du, besteak beste, herstura, amorrua edo distantzia emozionala.

Haurrak amarekin duen lotura balioztatzean, kontuan izan behar ditugu alderdi hauek, hirugarren kapituluan aipatu ditugunez gain:

- Ama haurrari begira dago, eta haurra segurtasun bila hurbiltzen zaio. Ez da hurbiltze fisiko gisa bakarrik ikusi behar, hala ere baden arren; hurbiltze emozional gisa ulertu behar da.
- Haurrak ongizatea ematen dioten harremanetako zenbait une gogora ditzake, bizi duen testuingurua gorabehera.
- Ama gai da semeak edo alabak igortzen dizkion seinaleak interpretatzeko eta, horrela, haurrak maitatua dela ikus dezan eta bere buruak balioa duela uler dezan lortzen du.

*__* Haurraren beraren erresilientzia maila.__*

Erresilientzia gizarteko elkarrekintzetatik sortzen den eta haurrari bizitzen ari den egoerari aurre egiteko bere baliabideak berreskuratzea ahalbidetzen dion gaitasuna da. Baliabide horiek

amarekiko loturaren eta afektibitate, harreman edo gizarte mailako inguruko bestelako elikagaien bitartez sustatzen direnean, haurraren suspertzeko gaitasuna nabarmen handitzen da.

Beraz, garrantzitsua da inguruaren eta haurraren baliabideen arteko elkarketak pronostiko oneko aukera bat nola eskaintzen duten ikustea. Haurrengan badira zenbait faktore beren erresilientzia maila handia balioztatzeko balio dutenak:

- Haurraren aldetik hurbiltze aktiboa gertatzen da; haurrak bere esperientzia emozional mingarriak ebazten eta/edo partekatzen saiatzeko gerturatzen dela erakusten du.
- Haurrak gaitasuna du ingurukoen arreta positiboa bereganatzeko.
- Nolabaiteko baikortasuna erakusten du bere esperientziekiko.
- Bere etapa ebolutiboaren barruan erne eta autonomo ager daiteke.
- Esperientzia berriak bilatzeko eta ingurua aztertzeko (inguru fisikoa, kognitiboa eta emozionala) joera du.

Gogoan izan behar da alderdi horiek erakusten ez dituzten haurrak ere erabat suspertzera irits daitezkeela baina orduan, segur aski, haurrarekin lan egin beharko da, gutxika, bere erresilientzia maila goratu dezan. Lehen aipatu dugun oinarrizko laguntza eman beharko zaio, epe luzera, bere buruarengan eta bere gaitasunetan konfiantza handiagoa izan dezan lortzeko.

** Haurraren adina*

Laugarren kapituluan azaldutakoari jarraikiz, garrantzitsua da kontuan izatea indarkeriaren eragina ez dela bera haurraren adinaren arabera. Hau da, tratu txarren tipologia, laztasun eta maiztasun bereko egoeren aurrean, antzeko babes faktoreekin eta amarekiko lotura estu berdintsuarekin, indarkeria gertakariak gertatzen direnean haurrek duten adinak oso alde handiak eragin ditzake.

*ii. Adierazleak eta behaketa teknikak*

Genero indarkeriak autoestimua urritzea, eginkizunak errepikatzea (pasiboak edo oldarkorrak) edo helduen munduaren aurrean mesfidantza eragiten du haurrengan. Prozesu traumatikoek zenbait ondorio izaten dituzte. Ondorio horiek, era berean, modu jakin batzuetan adierazten dira eta modu horiek haurraren azterketa egitean behatu eta erabili ditzakegun adierazle gisa balio digute, nahiz eta ez modu kategorikoan.

Familian genero indarkeria egoerak bizi dituzten haurrek mina eta estresa eragiten dizkieten zenbait gertakari sufritzen dituzten, ezinbestez, maila batean edo bestean. Gertakari mingarri eta estresagarri horiek haurraren harreman esanguratsuetan kokatzen dira, eta haurren eta haien inguruko baliabide naturalak agortzen direnean haurren bizitza afektiboa, kognitiboa, jokabideena eta harremanena nahasten da, eta prozesu traumatiko bihurtzen da.

Prozesu traumatikoek kalteak eragiten dituzte hainbat mailetan eta zenbait gradutan, eta garrantzitsua da gogoan izatea bizipen horiekin joaten diren eduki emozionalak diagnostikoa eta lanerako plana egiteko adierazle onak izan daitezkeela.

Haur horiengan sortzen diren sentimenduak izaten dira, besteak beste, erruduntasuna, estigmatizazioa, ezintasuna, zerbait galdu izanaren sentipena, amorrua eta bereiztea. Laugarren kapituluan zehaztu dira emozio horietako bakoitzaren askotariko adierazpen psikologikoak eta jokabidezkoak. Adierazle horiek ez dira familian genero indarkeriaren biktima izan diren haurrengan ikus daitezkeen bakarrak, jakina. Tratu txarren eraginez haurrek jasaten dituzten ondorioetatik (ondorioak aurreko kapituluan azaldu dira) zenbait adierazle atera daitezke, eta

adierazle horiek, bistan denez, jasandako tratu txar motaren eta haurraren adinaren araberakoak izango dira.

Jokabidezko adierazpenak dira adierazle horiek aztertzeko modu nagusia. Hala ere, garrantzitsua da haurrak bere buruari buruz kontatzen dituen kontakizunak aintzat hartzea, bai eta nola deskribatzen duen bere burua, nola adierazten duen bere burua marrazkietan, alegiazko zein pertsonaiak duen bere antz handiena eta horren zergatia kontuan hartzea ere.

Maiz, genero indarkeriaren biktima diren haurrek hartzen dituzten bizirauteko estrategiak (Baker eta Cunningham, 2004) aztertzeko erraz edo ez horren erraz izan daitezkeen adierazle ere bihur daitezke:

| | AZTER DAITEZKEEN ADIERAZLEAK, HARTUTAKO BIZIRAUTEKO ESTRATEGIAREN EDO ESTRATEGIEN ARABERA.. |
|---|---|
| Buru blokeoa edo lotura emozionalik eza | ● «Sentikortasunik eza» emozioen aurrean edo pentsamenduak blokeatzen dituzte.<br>● Zaratatik eta kaosetik deskonektatzen dute, halakoak ez entzuten ikasten dute.<br>● Asko kontzentatzearen bitartez, beste pertsonaren bat direla uste izaten dute.<br>● Alkohola edaten dute eta/edo drogak kontsumitzen dituzte. |
| Ameskeriaren erabilera. | ■ Erasotzailearen mendekuan pentsatzen dute, erasotzailea hiltzearekin amets egiten dute.<br>■ Beste familia batekin biziz, bizitza zoriontsuagoa amesten dute.<br>■ Gurasoak dibortziatu ostean edo erasoak bukatuko direnean beren bizitza nolakoa izango den amesten dute.<br>■ Istripuren bat izatearekin amets egiten dute.<br>■ Super heroiren batek, poliziak edo printzeren batek salbatu ditzaten desiratzen dute. |
| Saihespen fisikoa. | ● Erasoak gertatzen direnean beste gela batera joaten dira edo etxetik alde egiten dute.<br>● Etxera ez itzultzeko aitzakiak bilatzen dituzte.<br>● Etxetik ihes egiten dute. |
| Maitasuna eta onarpena okerreko tokietan bilatzea. | ■ «Jendaila»ekin harremana izaten dute.<br>■ Intimitatea eta hurbiltasuna bilatzeko sexu harremanak izaten dituzte.<br>■ Nerabezaroan haurdun geratzen dira, maite dituzten norbait izan dezaten. |
| Zaintzaren bitartez toki (eginkizun) bat lortzea. | ● Neba-arrebak arriskutik babesten dituzte.<br>● Haurtxoak beren aita edo ama izango balira bezala zaintzen dituzte, eta aitaren edo amaren eginkizuna hartzen dute.<br>● Ama zaintzen dute. |
| Laguntza bilatzea. | ■ Ikastolako norbaiti, auzotarrari, amaren adiskideren bati edo antzekoei gertatzen dena kontatzen die.<br>■ Poliziari deitzen die.<br>■ Neba-arrebekin, adiskideekin edo esanguratsua den helduren batekin hitz egiten dute. |
| Laguntza lortzeko arreta deitzea. | ● Ekintza ausartegiak egiten dituzte edo beren buruaz beste egiten saiatzen dira.<br>● Beren burua zauritzen dute.<br>● Haserrealdi eztandak izaten dituzte, oldarkorrak dira beste pertsona batzuekin, borrokak izaten dituzte. |
| Emozioak jarduera positiboetarantz bideratzea. | ■ Kirola egiten dute, korrika egitera ateratzen dira, jarduera fisiko handia dute, eta abar.<br>■ Idatzi egiten dute, marraztu, poesia egin, antzerkia edo bestelako jarduera sortzaileak.<br>■ Emaitza akademiko bikainak lortzen dituzte. |
| Erasotzailearen jokabidea iragartzen, azaltzen, prebenitzen edo kontrolatzen saiatzea. | ● «Ama gaiztoa izan da» edo «Gaiztoa izan naiz» edo «Aita estresatuta dago, lana dela eta» pentsatzen dute.<br>● «Nik, nire jokatzeko modua aldatzen badut, indarkeria geraraz dezaket» edo «hurrengo erasoa noiz izango den jakin dezaket» pentsatzen dute.<br>● Haur perfektua izaten saiatzen dira.<br>● Gezurrak esaten dituzte gauza txarren bat estaltzeko (adibidez, eskolako emaitza txarrak), kritikak saihesteko, edo erasoak edo familian estres egoera ekiditeko. |

## c. NOLA LAGUNDU BEHARRAK ETA JASANDAKO INDARKERIA ADIERAZTEN. AZTERKETA-ELKARRIZKETETARAKO JARRAIBIDEAK

Seme-alabekin, azterketa era bakunean eta neba-arreba bakoitzarekin banaka egin behar da. Batzuetan, azterketa seme-alabekin egiteak arriskuan jar dezake emakumea, batez ere oraindik erasotzailearekin bizi bada. Horrelakoetan, garrantzitsua da amari laguntzea bere babes funtzioa bereziki nabarmenduz, eta amaren bitartez seme-alaben *zeharkako* azterketa egin daiteke. Bistan denez, jarduera hori haurrak bizikidetzan bizitzen ari diren arriskuari atxikita izango da eta arriskua desagertzen den unean azterketa zuzenean egingo da seme-alabekin, jakina.

Azterketa-elkarrizketak hasi aurretik, garrantzitsua da topaketa horiek proposatzeko moduaren inguruko zenbait gomendio gogoan izatea (Baker eta Cunningham, 2004), informazioa biltzeko orduan dauden mugak direla eta:

- Hainbat informatzaile edo askotariko informazio mota erabiltzea ea kontraesanik dagoen ikusteko, beharrezkoa den kasuetan.
- «Haur biktima» edo «haur ez biktima» sailkapen bitarra saihestea eta muturretatik haratago ikustea ahalbidetuko duen lerro jarraitua erabiltzea. Adibidez, egitura bitarrarekin erraza litzateke haurrak muturretan jartzea, eta horrek zera pentsaraz lezake: «edo zuzeneko tratu txarren ebidentzia argiak erakusten ditu, edo ezin da biktimatzat jo hori adierazten duen elementu argirik ez dagoelako». Aldiz, bi muturren arteko ikuspegi jarraitutik begiratzeak biktima dela balioztatzea ahalbidetuko du, nahiz eta ebidentzia argirik ez dagoela iruditu.
- Egoera indarkeriaren laztasunaren arabera balioztatzea, maiztasunaren irizpidea oinarri hartuta egin ordez. Ideia honako hau izango litzateke: indarkeria gertatu zenean zer nolako larritasuna izan zen garrantzitsua, eta ez zenbat aldiz gertatu zen.
- Haurrarentzat bi erreferenteak kontuan izatea, hau da, aitaren eta amaren eginkizunak aintzat hartzea, arrisku adierazleak eta babes adierazleak lortu ahal izateko. Garrantzitsua da haurraren inguruan diren alderdi negatiboak bakarrik kontuan ez hartzea; haurrarentzat elementu sendo direnak ere bilatu behar dira.
- Indarkeriazko azken gertakizuna noiz izan zen jakiten saiatzea, gertatutakoa kontatzean eraginak minimizatu edo handitu baitaitezke. Hau da, haurrak ez du era berean azalduko zer gertatu zen, zerk kezkatzen duen, nolakoak diren aita eta ama edo zein den familiako eguneroko funtzionamendua, indarkeriazko gertakizuna berriki gertatu bada, edo gurasoek eztei-bidaia aldian denbora aldi bat badaramate, adibidez.
- Helburutzat izatea haurrari aitarekin duen harremanaren inguruan galdetzea. Maiz, amarekiko harremanean jarri ohi da arreta handiena, ama baita haurraren babes erreferentea. Baina garrantzitsua da, halaber, kontuan izatea aitak ere eginkizun aipagarria duela haurren historian, eta elkarrizketetan ez da ikusezin egin behar. Haurrek, nahi baldin badute, aitaz hitz egin dezaten tokia ahalbidetu behar da; ez dute sentitu behar aipatu ere ezin den gai tabua dela.
- Azterketaren unean haurraren adina kontuan izan behar da, baina beharrezkoa da diagrama kronologikoa egitea ere, haurrak indarkeria hasi edo larriagotu zenean zuen adina jakiteko, zenbat urte zituen banantze aldian izan zirenean, etxetik ihes egiteak gertatu zirenean, eta abar.
- Genero indarkeriatik haratagoko ikuspegi zabala izatea, txirotasun eta axolagabekeria egoerak, substantzien abusua, buru arazoak, ebazteke diren egoera judizialak, eta abar kontuan hartu ahal izateko.

- Gogoeta egitea, haurtzaroak, oro har, esan nahi duena kontuan izanik, elkarrizketatzen ari den haurrarengandik haratago. Hau da, gogorarazi behar da haurtzaroa oso etapa garrantzitsua dela edozein pertsonaren garapenean, edo nerabezaroa norberaren nortasuna bilatzeko aldia dela, esate baterako. Eta etapa horietan indarkeriazko eta gabezia afektiboak diren inguruan bizitzeak zer esan nahi duen kontuan izan behar da.

*i. Haurrarekin egiteko azterketa-elkarrizketen xedeak*

Haurrarekin egiten den lanaren xede orokorra haurrari bere emozioak, beharrak eta beldurrak partekatzeko aukera ematea da, eta jasan duen indarkeria adieraz dezan ahalbidetzea. Horretarako, nahitaezkoa da haurrak komunika daitezkeela eta entzunak izango direla sentituko duen eremua bermatzea; ahal bezain giro beroa eta erosoa sortu behar da.

«Komunikatu» hitza erabili dugu hitz egin erabili ordez. Izan ere, haurraren adinaren arabera, hitza ez da adierazteko bidea izaten eta, adinaren arabera izan daitekeen arren, zenbait haurrek beste modu batzuetan hobeto adierazten dituzte gauzak. Marrazkiekin, jolasekin, asmatzen dituzten istorioekin edo ipuinekin, profesionalak haurren beharretara eta aukeretara egokitzen dira, eta laguntzeko prest daudela erakusten diete. Hori da haurrarekiko lotura errazteko nahitaezko moduetako bat, bai eta, malgukortasunaren bitartez, helduengan berezkoak ez diren ameskerien eta bestelako mintzairen mundura hurbiltzea lortzeko ere.

Dena den, lehenengo azterketa-elkarrizketek berariazko xede oso zehatzak dituzte:

- Haurrarekin konfiantzazko harremana ezar dadin lortzea. Lehenengo elkarrizketaren xedea bigarren elkarrizketa izan dadin lortzea da, alegia, haurrak berriz joan nahi dezan lortzea.
- Haurrari azaltzea zein zerbitzutan dagoen eta nola funtzionatzen duen. Gurekin lanean jarraitzen badu zer nolako gauzak gertatuko diren jakinarazi behar zaio: jarduera motak, zein profesionalekin gauzatuko dituzten, isilpekotasuneko oinarrizko baldintzak, aldizkakotasuna, eta abar.
- Gertatu denaren edo haurraren emozioen inguruko informazioa haurrak berak konta dezan saiatzea.

*ii. Haurrarekin elkarrizketa egin aurreko informazioa*

Bistan denez, haurrarengandik zuzenean informazioa jaso aurretik egoeraren inguruko zenbait alderdi orokor argi izan behar ditugu, familia giroaren barruan haurra kokatzen lagunduko baitigute. Hau da, haurrarekin lan egin aurretik, amaren eta/edo bestelako profesionalen eskutik jasota, izan beharko genukeen informazioa:

- Familiaren historia edo indarkeriaren historia (mota, maiztasuna, nor den tartean...).
- Seme-alaben jarrera-hartzea, indarkeriazko gertakariek dirauten bitartean eta haien ostean.
- Helduen jokabidea indarkeriazko gertakariek dirauten bitartean eta haien ostean.
- Seme-alaba bakoitzari buruzko informazioa: haurdunaldia, garapen fisikoaren eta emozionalaren prozesua, eskolako eboluzioa, aisialdiko jarduerak, haurrak jasotzen duen edo jaso duen arreta mota, amak semearen edo alabaren gainean egiten duen deskribapena, haurrak gurasoekin eta neba-arrebekin duen harremana, eta abar.
- Haurraren inguruko gaur egungo babesgabetasun alderdiak.
- Indarkeriaren eraginez haurrarengan eragindako kalteak (emozionalak, kognitiboak, harremanetakoak eta jokabidezkoak).

- Haurraren beraren babes alderdiak, familia esparrukoak eta ingurukoak (ikastetxea, adiskideak, eta abar).
- Indarkeriazko egoeraren inguruan haurrari eman zaion azalpena.

Aurretiazko informazio horrek haurraren egoeraren inguruko ideia orokorra izaten laguntzen digu. Horrela, hobeto ulertu ahalko dugu zein testuingurutan gertatzen den haurrak zuzenean kontatuko diguna. Haurra aztertu aurretik, garrantzitsua da amarekin lantzea zer eta nola azalduko dion elkarrizketara etorri behar duela. Garrantzitsua da amak horri dagokionez dituen itxaropenak lantzea, eta haurrari emango dion azalpena ahalik eta errealistena izan dadin saiatzea.

Haurrari buruz dugun informazio hori guztia oso interesgarria eta beharrezkoa da, baina ez dugu informazio horrekiko uste itsua izan behar. Izan ere, hartaz gehiegi fidatzen baldin bagara, haurrak ekarriko eta aurkeztuko digun informazioarekin lan egin ordez, aurrez dugun informazioarekin lan egiten buka baitezakegu. Horrekin esan nahi dugu, nahiz eta informazioa garrantzitsua den eta nahitaezko testuingurua ematen digun, ez dugula informazio horrekin zurrun lan egin behar; informazioa zalantzan jartzeko, malgu egiteko, bestelako ikuspegitik irakurtzeko, bestelako ikuspuntuekin osatzeko eta antzekoak egiteko aukera kontuan izan behar dugu. Maiz, informazio hori haurraren gainean egiten diren pertzepzioak izaten dira (eta, batzuetan, aurreiritziak). Hortaz, arreta egokia emateko une horretan haurra nola dagoen profesionalarekin kontuan izanik hasi behar da, eta ez da hemen eta orain ez den bestelako informaziorik aintzat hartu behar.

«Haurra harremana ezartzen ari da, une horretan den bezala onartzeko prest dagoen norbaitekin, berari buruzko aurreiritzirik eta aurre juzkurik gabe. Bere bestelako alderdiren bat erakuts dezake, agian gurasoen edo irakasleen aurrean adieraztea zail egingo zaion bere alderdiren bat. Nirekin esanekoa bada eta jarrera harkorra badu, nahiz eta txostenek oldarkorra dela esan, edo neure testetan ere oldarkortzat jo, nik une horretan nirekin den moduan harremana izaten jarrai dezaket, alegia, orain izan nahi duen moduan. Aurpegi anitz dituen banakoa da, eta hainbat izaera erakusteko gai da» (Oaklander, 2005, 184. orrialdea).

*iii. Haurrari beharrak eta emozioak adieraztea errazteko estrategiak*

Haurrarekiko lehenengo harremana bereziki garrantzitsua da, haurrak ea konfiantzazko harremana has dezakeen ikusten baitu lehenengo aldi horretan. Hori dela eta, bere emozioak zentsurarik gabe eta zalantzan jartzen dela sentitu gabe adierazteko aukera ziurtatu behar diogu. Sentitzen duena da sentitzen duena, eta profesionalok ez dugu epaituko. Oinarrizkoa da haurrak eremu hori segurtasun eta babes gune gisa bizi dezan, eta heldua beraz kezkatzen dela eta lagundu nahi duela ikus dezan. Garrantzitsua da profesionalak haur bakoitzari *begirada berriarekin* eman diezaiola arreta, bere egoeraren eta inguruaren berezitasuna hauteman ahal izateko. Horrelako esku hartzeetan malgutasun maila oso altua behar izaten da (Agustin et al., 2007).

Normalean, haurrarekin lan egitea eta haurra suspertzea ahalbidetuko duen konfiantzazko harremana ezar daiteke, egoera hauetan:

- Haurrak norbaitek entzuten duela sentitzen duenean eta bere iritzia helduarentzat baliozkoa dela ikusten duenean.
- Haurrak aurrean duen profesionalak laguntza emango diola ikusten duenean baina, batez ere, bere denborak eta isiltasunak errespetatzen dituela ikusten duenean.
- Pertsona gisa errespetatua dela ikusten duenean, jatorri duen testuingurua alde batera utzita.
- Bera izateagatik dela garrantzitsu sentitzen duenean, norbaiten semea edo alaba izateagatik dela ikusi ordez.

- Bere gaineko juiziorik jasotzen ez duenean eta ez dela zalantzan jarri ikusten duenean.

Kontuan izan behar dugu helduen eta haurren arteko komunikatzeko modua hizkuntza loturak direla, eta horien mende dago haur bakoitzaren eboluzio unea. «Jolas eginez zein baldintzatan parte har daitekeen eztabaidatzeko gonbita luza dakioke haurrari: *zein izango litzateke horri buruz hitz egiteko modurik dibertigarriena? edo zer iruditzen zaizu horretaz beste moduren batean hitz egiten badugu (edo jolas egiten badugu)?* Hitzezko elkarrizketatik bestelako adierazpen moduetara pasatzea pentsatzen badugu, haurrek, normalean, jakiten dute zein lehentasun dituzten, gutxi gorabehera. Horrela ez bada, hainbat aukera aurkezteak funtzionatu ohi du» (Freeman, et al., 2001, 35. orrialdea).

Marrazkiak dira elkarrizketa horietan erabil daitezkeen bestelako tresnak. Haurrak marrazkiak egiten dituenean, marrazkiak egiteko prozesuan arreta jartzen badugu, hainbat gauza ikas daitezke haurraren inguruan: ea zalantza egiten duen, ea etengabe esaten duen ez dakiela marrazten, ea desordenatua den, ea kolore asko erabiltzen dituen, eta abar. Marrazkien gaineko interpretazioak ez dira erabili behar haurrak epaitzeko; aztertzeko eta gehiago galdetzeko erabili behar dira.

Profesionalaren erantzukizuna da haurrari bere barneko munduan sartzeko eta bere sentimenduak adierazteko bidea ematea. Horrela, ekarriko duen *materialarekin* elkarrekin lan egin ahalko da. Haurrekin erabiltzen diren teknika gehienek proiekzioa bultzatzen dute, eta haurren proiekzioetan dagoena beren esperientzietatik, ezagutzen dutenetik, beraientzat garrantzitsua denetik eta antzekoetatik ateratzen da. Hori dela eta, oso garrantzitsua da haurrak bere bizipenez, emozioez, harremanez eta abarrez hitz egitean duen erritmoa errespetatuz tratatzea.

Ez datza proiekzioak interpretatzean, bete-betean. Haurrak esan duena itzultzen saiatzean datza, aurkitzen ari den horretan lagun egitean eta bere ongizatean eragina izan duten sentimenduak eta/edo jokabideak hitzez adierazten laguntzean.

Teknikak ez dira gauzarik garrantzitsuena. Oso bestela da: jarritako helburuetara iristeko tresna bat baino ez dira. Haurrarentzat, profesionala prozesuan zehar bere ondoan duela sentitzea da nahitaezkoa. Maiz, saioetan ez da garrantzi handiko ezer gertatzen, baina haurra eta profesionala elkarrekin izaten dira; haurrak heldu batek den bezala onartzen duela eta berarekin zintzoa dela ikusten du. Elkarrekintza gertatzen den bitartean, beti ari da zerbait gertatzen, nahiz eta ez den informazio zehatza *ateratzen*, edo nahiz eta prozesuak ez duela aurrera egiten ematen duen. Haurrarekin izaten den elkartze bakoitza aukera bat da afektuan, konfiantzan, errespetuan eta antzekoetan oinarritutako harreman eredu bat eskaintzeko. Horrela, haurrarengan garrantzitsua delako eta arreta merezi duelako sentipena sustatzen da. Profesionalak haurrarekin egiten duen elkarrekintza bakoitzak segurtasun sentipena ematen dio haurrari. Prozesuari esker, segurtasun sentipen hori *kanpora* estrapolatu ahalko du eta mundua toki ez seguru eta arriskutsu gisa ikusteari utziko dio.

### *iv. Jasandako indarkeriaz hitz egiten hasteko estrategiak*

Lehen aipatu dugun giro beroa eta erosoa nahitaezkoa da haurrarekin harreman ona izateko, eta konfiantzaren oinarria finkatzen du, lan egin ahal izateko. Hala ere, ez da erraza haurrekin bizi izandako indarkeriaz hitz egitea, mingarria zaielako, zalantzan jarri dituztela senti dezaketelako edo ez diegula sinetsiko pentsa dezaketelako. Seme-alaba horiek aitaren edo amaren eginkizuna zalantzan jarri dela senti dezakete, eta ez dute nahi izaten aita salatzerik edo amaren sufrimendua ageriko egin dadin. Kasu gehienetan, haurrekin metaforak erabiltzea oso tresna baliagarria izaten da bizi izan dutenaz hitz egitea zergatik den garrantzitsua helarazteko. Metaforak haur bakoitzaren adinera, unera eta egoera emozionalera egokitu behar dira, jakina.

Haurrekin oso ondo funtzionatu ohi duen alderaketa besoko zauriarena edo ebakiarena da. Adibidez, bizikletatik erori eta besoan ebakia egin duela eta zauriak min handia ematen diola pentsa dezala eskatzean datza. Lehenik eta behin, guztiok zauria lotura batez estali eta minik hartu ez dugula ikusaraziko genukeela azaldu behar zaio. Aukera hori erosoa da hasieran, zauria ukitzen ez badugu ez digulako minik ematen. Baina arazoa sortzen da lurra zauriaren barruan geratzen denean eta zoltzen hasten denean. Orduan, besoak min ematen digu ukitzen dugunean eta, batzuetan, inork ukitu gabe ere bai. Beste aukera da amak sendagilearenera eraman gaitzala zauria senda diezagun eta zauri barruan dagoen lurra atera diezagun. Horrek min handiagoa ematen du hasieran zauria urez eta xaboiz garbitzen digulako sendagileak, edo alkoholez, batzuetan. Hori egiten badugu, zauria infekziorik gabe orbainduko da eta, denbora batez min emango digun arren, lotura kentzen dugunean besoa ukitzean ez dugu minik sentituko. Beti ikusi ahalko dugu geratu zaigun orbaina eta bizikletatik erori ginen eguna gogoratuko dugu, baina dagoeneko ez dugu minik sentituko.

Haurraren eta helduen burua ez dira berdinak, haurrenak, hein handi batean, irudimenaren eragina baitu. Hortaz, oso agerikoa den komunikazioa erabili ordez, haurrek beren ezagutzarekin eta irudimenarekin lotu dezaketen hezkuntza bilatzeko abestiak edo haurrentzako ipuinak erabil ditzakegu. Horrela, agian, haurrak jatorrizko ideiak eta bideak ireki ahalko ditu, eta haurraren munduan profesionala onartua eta aktiboa izango da. «Jolas-komunikazioak ahalbidetzen du haurrek arazoen erantzukizuna beren gain har dezaten eta arazoak konpontzeko argiak izan daitezen» (Freeman et al., 2001, 25. orrialdea). Bistan denez, erantzukizuna aipatzean ez datza helduen arazoren baten erantzukizuna beren gain hartzean. Aldiz, hobeto izateko aktibo izan daitezkeen toki txikietan sustatzean datza. Beren ongizaterako egokiak diren gauzak, ahal duten neurrian, beren kabuz egin ditzaten bultzatzean datza; esate baterako, laguntza eman nahi dioten profesionalen laguntza jasotzea.

Haurrentzat, jasan duten indarkeriaz (eta gai gehienez, oro har) hitz egin dezaten oso lagungarri zaien beste estrategia profesional bat da beren hitz berak erabiltzea, beren istorioetako pertsonaiak hartzea eta jolasteko erabiltzen dituzten panpinen izenak erabiltzea, haurrak ulertzen dugula ikus dezan. Horrela ez bada, haurrak berak zuzenduko gaitu, bere hizkuntzatik eta irudimenetik abiatuz.

Oso ohikoa izaten da, une horietan, haurrek bizi izandako egoerak eta beren erantzunak eduki emozional oso negatiboarekin kontatzea. Hortaz, garrantzitsua da ematen diguten informazioa modu positiboan berrazaltzea. Egoeraren beste alderdia erakustean datza, ahal den guztietan: kontatzen ari delako erakusten duen ausardia, profesionala hain gauza pertsonalez berarekin hizketan ari delako oso pozik dagoela, gertatutako guztia alde batera utzi eta eskolara joaten jarraitzeko duen indarra. Egoerak ez duela ematen aukerarik gauzak askoz hobeto joan daitezen azaldu behar zaio, bai eta berak ahal duen guztia egiten duela ere. Garrantzitsua da ez dugula gezurrik esan behar edo ez garela arinkeriaz aritu behar inolako kasutan, haurraren antsietatea arintzeko. Halakorik egiten badugu, gezurra esaten ari garela ohartuko da edo egoerak duen larritasuna ez dugula ulertzen sentituko du. Beti da askoz gomendagarriagoa bere herstura eta ondoeza jasotzea eta ulertzen dugula erakustea, denborarekin hobeto egon dadin moduak bilatuko direla esatea. Motibatu egin behar ditugu hobekuntza proiektuan parte har dezaten, eta beren suspertze prozesuan duten parte aktiboa helarazi behar diegu.

*v. Azterketa-elkarrizketetarako zenbait jarraibide*

Lehenengo elkarrizketa horiek egituratu ahal izateko, garrantzitsua da argi izatea zein informazio eman nahi diogun haurrari eta zein jaso nahi dugun. Honako hau izan daiteke lan hori hasteko proposamen bat:

- Profesionalaren eta haurraren aurkezpena.

Haurra saioen testuinguruan eta hitz egin ahala ezagutzen da, eta hortxe ezagutuko gaitu berak ere. Hori dela eta, oso garrantzitsua da geure burua nola aurkezten dugun ere. Profesionalak bere izena zein den esan behar dio haurrari, zerbitzu horretan zer egiten duen azaldu behar dio eta berarekiko eta kontatu nahi dionarekiko interesa erakutsi behar dio. Haurrekin lan egitean, nahitaezkoa da kontuan izatea ahotsaren tonua, hitzen berotasuna eta ez hitzezko komunikazioa, batez ere aurpegi adierazpena. Profesional batzuek onarpen fitxak erabiltzen dituzte informazioa biltzeko; beste batzuek, ordea, elkarrizketa eta marrazkiak baino ez dituzte baliatzen, tresna gisa.

Ikuspegi batzuek proposatzen dute haurrarekiko lehenengo harremana amarekin eta profesionalarekin batera egin dadin. Amarekin aurrez zenbait elkarrizketa egin beharko dira, eta haurra aurrean dela berriz arazoa azal dezan eskatuko zaio, haurrak gaizki dauden gauzen inguruan dituen fantasiak arin ditzan. Normalean, irudimenean duena askoz dramatikoagoa izan ohi da eta gertatzen denaren erruduna dela uste izaten du. Ikuspegi horrek ez du gomendatzen haurra itxarongelan uztea. Horrela, bere erantzunak eta amarekin duen harremana zer nolakoak diren ikusi ahalko da, eta bi aldeek gertatzen dena nola kontatzen duten entzuteko aukera izango da.

Horrela, haurrarekin konfiantzazko harremana ezartzen hasi ahalko da, profesionala inpartziala dela eta pertsona guztiekiko interesa duela ikusten baitu, bereziki berarekikoa. Ama hizketan ari den bitartean, garrantzitsua da haurrari ea entzuten ari denarekin ados dagoen galdetzea, eginkizun aktiboa ematea eta bere ikuspuntua adierazteko aukera eskaintzea. Lehenengo elkarrizketa horretan ez zaio garrantzirik eman behar haurrak hitz egin nahi ez izateari; profesionalak berak dioena entzuteko interesa duela eta errespetuz tratatuko duela hautemateak du garrantzia. Haurrarekin ez da harremanik izan behar nagusitasunetik, ez zaio ezikusi egin behar eta ez da aztertu beharreko objektu gisa tratatu behar.

Behin amak haurraren aurrean arazoa azaldu duenean, kanpoan itxaron dezan eska diezaiokegu. Orduan, profesionalak haurrari bere egoera hobetzen saiatzeko, berari buruzko eta etxean gertatzen ari direnaren inguruko gauzak deskubritzeko nahia erakuts diezaioke. Une horretatik aurrera, haurrak dagoeneko bere tokia izango du profesionalarekin harremana izateko, ama aurrean izan gabe. Eta, hortik abiatuz, segurtasun eta konfiantzazko eremua sortuko da.

- Haurrari zerbitzuan zergatik dagoen, zer espero den berarengandik eta zer eskain dakiokeen jakinaraztea.

Une horretan oso garrantzitsua da jakitea nola bizi izan duen amak azaldu diona eta zer ulertu duen berak, zer imajinatzen duen eremu horren inguruan eta zeren beldurra duen, halakorik baldin badu. Bere eskaera entzun behar da eta arreta emateko testuinguruko aukeretara egokitu behar da. Une egokia da zalantzak, kezkak, itxaropenak eta antzekoak argitzeko. Horrela, profesionalak lan egiteko garrantzitsutzat joko dituen alderdiak gehitu ahalko ditu, eta haurrarekin batera lehentasunak ezarri ahalko ditu.

Garrantzitsua da haurrak egiten dituen galdera guztiei erantzuna ematea, baina ez zaio inolaz ere gezurrik esan behar. Adina alde batera utzita, haurrak prozesuan parte hartzeko duen konpromisoak berekin dakartzan inplikazioak zein diren jakiteko eskubide osoa du.

- Informazioa biltzen hastea.

Inoiz ere ez da haurra behartu behar gogoko ez dituen edo une jakin batean egin nahi ez dituen jarduerak gauzatzera (marrazkiak, jolasak, eta abar). Oso kontuan izan behar da prozesuko fase horretan askoz ere garrantzitsuagoa dela harremanaren kalitatea, informazio kopurua baino.

Garrantzitsuena ez da zer gertatu den; haurrak nola azaltzen duen, nola bizi izan duen, nola sentitzen duen, zein nahi dituen eta antzekoek dute garrantzia. Terapia narratiboa haurrekin egiten den lanean eraginkorra dela erakutsi da. Terapia horretako arauei jarraikiz, ez dugu arreta guztia bideratu behar gertatu den horretara; haurrak gertatu zaionarekin egiten duen horretan jarri behar dugu arreta.

Azaleratzea horrelako uneetan laguntza handia ematen duen teknika da. Izan ere, haurra arazotik bereiztea ahalbidetzen du eta, horrela, erruduntasun sentipena murrizten da. Jolas elementuak sartzeak (txotxongiloak, marrazkiak, arazoaren eginkizuna beren gain hartzen duten irudizko pertsonaiak, eta abar) haurra arazoaren erdigune gisa ikusteari uztea eta haurrak arazoarekin -eta alderantziz- duen harremanean arreta jartzea ahalbidetzen du. Simulazio jolasek laguntza handia eman ohi dute horrelako uneetan. Helduentzat erabiltzeko zail izan daitezkeen arren, haurrei dena egin daitekeen eta inolako arriskurik gabe pentsatzeko tokia ikusteko aukera ematen die. «Inplizituki, edo, maiz, esplizituki, honako hau esaten diogu: *Arazoa zuregandik kanpo dagoela jolas egingo dugu, eta hortik jostatuko gara arazoarekin*» (Freeman et al., 2001, 32. orrialdea).

Une horretan sor daitezkeen galderek aurrera egiteko eta esperientzia sortzeko balio dute, eta ez informazioa biltzeko edo interpretazioak edo irizpenak egiteko. Galdera prozesuan eta haurraren kontakizunean aurrera egiteko beste tresna bat bihurtzen da. Galderak egiteko orduan oso garrantzitsua da haurra ez identifikatzea arazoarekin; arazoa haurraren nortasunetik kanpo kokatu behar da. Horrela, haurrak jarrera hotza eta kritikoa izan dezan lortuko dugu, eta zenbait gauza zalantzan jar ditzan aukera gehiago izango du.

Haurrarengandik zuzenean jaso behar den informazioa honela eskematiza liteke:

- Haurraren emozio egoera.
- Jasandako indarkeriak izan duen eragina.
- Nola kokatzen duen bere burua familiaren barruan.
- Haurrarentzat esanguratsuak diren beste pertsona batzuk eta haiekin duen harreman mota.
- Arazoei eta, zehazki, indarkeriazko gertakariei aurre egiteko estrategiak.
- Familiaren egoeraren eta indarkeriaren inguruan dituen pentsamenduak, nola azaltzen duen.
- Kezkak eta beldurrak.
- Nola ikusten duen bere burua (norbere hautematea eta autoestimua).

Lehenago esan bezala, informazio hori ez da nahitaez lortu behar galdera zuzenen bitartez, heldu batekin elkarrizketan izango bagina bezala. Beti da gomendagarria haurrarengandik informazioa jasotzea marrazkien, jolasen, buztinarekin jarduerak egitearen, musikarekin lan egitearen eta gorputz mugimenduaren eta abarren bitartez.

Dena den, haurra eta adina kontuan izanik (horrek, hala ere, ez du guztiz erabakigarria izan behar), eta betiere profesionala eroso badago, baliagarri izan daitezkeen bestelako zenbait tresna ere badaude:

<table>
<tr><th>0 eta 3 urte artean</th><th>4 eta 12 urte artean</th><th>13 eta 18 urte artean</th></tr>
<tr><td rowspan="2">Garapenaren behaketa bidezko eskala</td><td colspan="2">Haurraren harreman sarearen mapa*</td></tr>
<tr><td>Proiekziozko teknikak: HTTP, animaliaren marrazkiaren testa, familiaren marrazkiaren testa, Hanka Beltza, eta abar.</td><td>Elkarrizketa</td></tr>
<tr><td colspan="3">Harreman eta jokabide eremuak, eremu emozionalak eta kognitiboak behatzeko protokoloa (haurrarekin egingo diren banakako saioetan nahiz amarekin eta/edo anai-arrebekin egingo diren baterako saioetan erabil daitezke, bai eta harrera etxeak bezalako bizikidetza testuinguruetan eta antzekoetan ere).</td></tr>
</table>

* Harreman sarearen mapa haurrarentzako esanguratsuak diren pertsonekin armiarma sarearen antzeko itxura duen eskema egitean datza. Haurra eskemaren erdian jarriko da, eta handik irtengo dira garrantzitsutzat jotzen dituen pertsonak, testuinguru hauetakoak: bere zuzeneko familiakoak, familia zabalekoak, ikastetxekoak eta parte hartzen duen bestelako eremuetakoak (aisialdiko jardueretakoak, bizilagunak, eta abar). Gero, interesgarria izaten da ikustea haietako bakoitzarekin zein motatako harremana duen, zein distantziatan kokatzen dituen, jasotzen duen laguntza mota, eta abar.

<u>- Bildutako informazioa itzultzea eta arriskua balioztatzea.</u>

Azterketa-elkarrizketetan, biltzen den informazioak balio du profesional taldeak familia egoeraren, amaren eta haurraren egoeraren, haien artean dagoen harremanaren eta bien alde indartsuen eta ahultasunen erradiografia egin dezan. Jasotzen dugun informazioak arreta ematen diegun pertsonekin zerikusia duenez, nahitaezkoa da azterketa bukatzean jaso ditugun iritziak nolabait itzul diezazkiegula. Haurrarekiko lanaren fase hori bukatzean, amari eta semeari edo alabari ondoko alderdi hauek itzultzeko moduan izan beharko ginateke:

- Zer egin beharko litzatekeen une horretatik aurrera. Profesional taldeak familiari proposatuko dion lanerako plana.
- Zein zerbitzuk egin beharko lukeen. Ea toki horretatik bertatik beren gain har daitekeen edo desbideratu behar den; kasu horretan, nork eta nola egingo lukeen.
- Zein izango liratekeen haurrarekiko esku-hartzearen helburuak eta zein izango litzatekeen amaren eginkizuna.
- Zein izango liratekeen estrategiarik egokienak. Banakako esku-hartzea, taldekoa, amaren eta semearen edo alabaren baterako saioak, eta abar.

Itzultzeko orduan, garrantzitsua da arreta handia jartzea informazioa emateko dugun moduan. Izan ere, emakumearen eta haurraren alde ahulenak agerian uzten ari gintezke. Hori dela eta, nahitaezkoa da baterako gogoetatik bideratzea. Une horretan, kide guztiekin enpatizatu behar da (amarekin eta tartean diren seme-alaba guztiekin) eta kideren bat egoeraren errudun senti dadin saihestu behar da. Horrelakoetan, erraza da amak, edo familiaren barruan sintomatikoenentzat jotzen den semeak edo alabak, familiaren egoeraren errua bere gain hartzea.

Prozesuaren une horretan, askotariko erantzunak erakuts ditzakete bai amak, bai eta haurrek ere:

- Alderdi guztiak bat etortzea: bat-etortze hori egiazkoa dela eta atsegin emateko nahia ez dela edo proposamena onartu ez beste aukerarik ez delako sentipena ez dela egiaztatu behar dugu. Batzuetan, idatziz jartzea gomendatzen da bakoitzaren konpromisoak eraginkor bihur eta zehatz daitezen. Horrela baldin bada, haur txikienen kasuan, konpromisoa marrazki, buztinezko irudi edo antzekoren baten bitartez zehatz daiteke.
- Aldeetako batek gogoeta egiteko denbora eskatzea: familiaren erritmoa errespetatu behar da, baina garrantzitsua da erantzuna emateko epea hitzartzea ere. Epe hori beti izango da haurra jasaten ari den arrisku egoerari atxikia.
- Amak edo haurrak ez dezala proposamena onartu: proposamena berriz zehazten saiatu behar da, adostasunera iristeko. Ama ez badago ados, bere prozesuaren barruan lan egin behar da, betiere adingabekoaren arriskuak tarte hori ahalbidetzen duenean. Haurra ez badago ados, jarrera alda dezan saiatu behar da amaren laguntzarekin. Hori lortzen ez den bitartean, seme-alabekin esku hartuko da amaren bitartez, zeharka.
- Ez amak ez eta haurrak ere ez badute proposamena onartzen: errespetatu egin behar da, eta amarekiko prozesuarekin jarraitu behar da onar dezaten lortze aldera, betiere arrisku egoerak horretarako aukera ematen duenean. Lortzen ez bada, dagokien erakundeei jakinarazi beharko zaie, ofizioz jardun dezaten.

Azken kasu horretan, profesional taldea amari arreta emateko prozesua eta adingabea babestea bateragarri egiteko lan zailaren aurrean izango da. Zenbait ama oso kaltetuta izaten dira eta ezin izaten dute seme-alabak babesteko eginkizuna gauzatu, jasan duten baliogabetze eta mendetasun emozional handia dela eta. Argudio hori ageriko egin behar du profesional taldeak emakumearen aurrean, eta beharrezko denborazkotasunaren testuinguruan jarri behar da, emakumea susper dadin eta, etorkizunean, bere seme-alabez ardura dadin.

### *vi. Arriskua balioztatzea*

Seme-alabek duten arriskua balioztatzea nahitaezkoa da une horretan. Era berean, indarkeriazko egoerak dituen eta izan ditzakeen ondorioen larritasuna amari erakutsiko dion tresna ere bada. Halaber, tresna horrek amari seme-alabak babesteak duen garrantzia agerian jarriko dio. Arrisku faktoreak mahai gainean jartzearen bitartez, amak testuinguru faktoreak ikus ditzan ere ahalbidetuko da (ez soilik berari dagozkionak), hain zuzen ere, babesgabetasun egoera manten dadin egiten dutenak. Jarduera horrekin amak erruduntasun txikiagoa senti dezan lortzen bada, eta profesionalek ikuspegi integratzailea eta ez erruduntzailea dutela ikusten badu, amak bere babesteko erantzuna ager dezan erraztuko da.

Genero indarkeria jasan duten emakumeen seme-alabengan eragina duten arrisku faktoreak zein diren aurreko atalean azaldu da. Hala ere, arriskua balioztatzeko garrantzitsua da, haurrenez gain, amaren eta aitaren banakako faktoreak, familiakoak, ingurunekoak eta soziokulturalak ere aintzat hartzea.

| | | |
|---|---|---|
| GURASOEN BANAKAKO EZAUGARRIAK | Ezaugarri demografikoak | Estatus sozioekonomikoa.<br>Analfabetismoa.<br>Bazterturiko talde etnikoetako kide izatea. |
| | Hazkuntzaren historia | Tratu txarra edo gabezia afektiboak izatea.<br>Arretarik ez larria.<br>Desegituratzea.<br>Familia hausturak.<br>Abegi erakundeetatik igaro izana. |
| | Amaren edo aitaren eginkizunaren ezaugarriak | Haurtxoek elikadurari, ordutegiei, higieneari eta abarri dagozkienez dituzten beharrak ez ezagutzea.<br>Amatasun edo aitatasun goiztiarra.<br>Haurrei arreta emateko gaitasun ezegokiak.<br>Gehiegizko jarduera profesionala edo soziala. |
| | Nortasuna eta jokabidea | Isolamendua.<br>Inpultsibotasuna.<br>Gaitasun enpatiko urria.<br>Desoreka pasikopatologikoak.<br>Jokabide arriskutsuak: delinkuentzia, alkoholismoa, drogazaletasuna, prostituzioa, eta abar. |
| HAURREN BANAKAKO EZAUGARRIAK | Ezaugarri fisikoak | Haur goiztiarrak edo jaiotzean pisu gutxi izan zutenak.<br>Elbarritasunak.<br>Elikaduraren edo loaren eredu aldatuak dituzten seme-alabak, arrunki «haur zailak» deiturikoak.<br>Gaixotasun larrien historiak.<br>Gurasoen itxaropenak betetzen ez dituzten haurren ezaugarriak. |
| | Nortasuna eta jokabidea | Izaera zaila.<br>Hiperaktibitatea edo apatia.<br>Desobedientzia edo aurka egiteko jokabide suminkorrak.<br>Erantzukizun txikia.<br>Eskola porrota. |
| FAMILIAKO ALDERDIAK | Familiaren egitura | Familia ugaria, anai-arreben artean adin alde txikiarekin.<br>Hainbat haurtxo etxean.<br>Gurasoak nerabeak izatea.<br>Ea desira zituzten haurrak izan ziren.<br>Familia zabalaren laguntza.<br>Amaren eta haurraren aita biologikoa ez den bikotekidearen arteko bizikidetza ezegonkorra. |
| | Familiako elkarrekintza eta dinamikak | Familia integrazio txikia.<br>Estres iraunkorra.<br>Komunikazio txarra.<br>Ezkontideen etxebizitzan luzaro ez egotea.<br>Familia egitura hainbat aldiz puskatzea. |
| INGURUNEKO ALDERDIAK | Maila sozioekonomikoa eta kulturala | Langabezia.<br>Lanbideko autoestimu urria.<br>Lan arloan pozik ez izatea.<br>Estres ekonomikoa.<br>Lan arloan estresa. |
| | Etxebizitza | Etxebizitzarik ez izatea.<br>Pilaketa.<br>Haurrentzako bizitzeko egokitasunik eza. |
| | Gizarteko sarea | Isolamendua.<br>Gizartearen laguntza gutxi.<br>Gizarte baztertzea. |
| | Mugikortasun geografikoa | Atzerriratzea.<br>Etxebizitzaz maiz aldatzea.<br>Nomadismoa. |
| ALDERDI SOZIO-KULTURALAK | Ekonomia eta gizarte garapena | Krisi ekonomikoa.<br>Gizarte ongizatea.<br>Gizarte egituran aldaketak. |
| | Gizarte ideologia | Haurren, emakumearen, amatasunaren eta familiaren aldeko jarrera. |

Begien bistakoa irudi dezake esatea arrisku faktoreak horixe baino ez direla, alegia, haurrak gutxi-asko arriskuan jar ditzaketen faktoreak. Ezinbestekoa da elementu horiek ezaugarri mugatzailetzat ez hartzea. Denak elkartuta tratu txarra jasan duten emakumeen seme-alabak arrisku handiko egoeretara eraman ditzaketen eta, beraz, amak bere babesle funtzioa gauzatzeko eskaerari ezin badio erantzun jarduera irmoa gauzatzera behartu dezaketen alderdi gisa hartu behar dira kontuan.

Ofizioz jarduteko erabakia hartu aurretik, behin arriskua balioztatu denean, emakumeak bere seme-alaben alde jarduteko erabakia har dezan saia daiteke. Maiz, amari erabakia aurkezten zaionean eta taldeak, bere laguntza eta onespena izan nahiz ez izan, berdin-berdin egin beharko duela azaltzen zaionean, emakumeak erantzuten du. Muturreko unea da seme-alabak galtzeko beldurra duen aldetik, eta emakumeari erantzunarazi egingo dion eragile gisa balio dezake. Dena den, ez da erabili behar inoiz presioa egiteko neurri gisa, beharrezko ez denean.

Garrantzitsua da amaren erritmoa errespetatzea eta bere prozesuan lagun egitea, baina haurrek bizitzeko eta duintasuna izateko dituzten eskubideak aurretik jarri behar dira amarekin jarraitzeak muturreko egoerara eraman ditzakeen kasuetan. Emakumearekin gogoeta egin behar da haurrak babesteko beharraren inguruan, eta berak ezin baditu babestu, profesional taldeak ofiziozko babes jarduera bat balioztatu beharko du.

## D. LAGUNTZA EMOZIONALA

Haur horiei laguntzean oso kontuan izan behar da emozioak bizitasun handiz bizi dituztela, eta gehienetan zail egiten zaie izena jartzea eta bizitzen dituztenean identifikatzen jakitea. Sentitzen dituzten hainbat emozio kontrajarriak direla ere iruditzen zaie.

Haur horiek beren familia nukleoa nola puskatu den ikusi dute (dela gurasoak banandu direlako, dela familia batuta dagoela sentiarazten ez dien tentsio giroa antzematen dutelako). Ustez, segurtasunari eta lasaitasunari loturik dagoen eremua beldurrez eta hersturaz beteriko inguru gisa bizi izan dute.

ainera, haur horiek dikotomia oso argia izaten dute aitaren irudia ulertzeko orduan. Izan ere, pertsona berarekiko maitasunezko eta afektuzko sentimendu positiboak izaten dira baina, aldi berean, kide horixe da indarkeriazko egoerak eta beldurra sorrarazten dituena. Halaber, egia da amaren irudiak zenbait kontraesan sortzen dituela, izan ere, maiz, amak ezin izaten baititu haurrak beraiek behar duten moduan eta behar beste babestu. Ustez babes eta segurtasun ingurua eman behar dien helduak, maiz, bere prozesua dela eta, ezin izaten die halakorik eskaini.

### *i. Laguntza emozionaleko prozesuaren helburuak*

Edozein esku-hartzek oreka emozionala, gaitasun pertsonalak eta eginkizun psikikoak garatzea izan behar du xede. Helburuetako bat izan behar da pertsonak (kasu honetan, haurrak) bere barneko eta kanpoko errealitateekin harreman gehiago izan dezan lortzea. Bizipenak, emozioak eta beharrak bere inguruko pertsonekin eta objektuekin elkartzean datza (Torras de Beà, 2007).

Genero indarkeriaren biktima diren haurrekin lanean hasi aurretik, garrantzitsua da esku-hartzearekin zein helburu lortu nahi den argi izatea. Honako hauek izan daitezke jomugetako zenbait:

- Haurraren baliabideak sendotzea, indarkeriazko ingurutik ahalik eta gehien babes dadin.

- Haurrari lagun egitea, bere mina landu dezan eta bere emozioak adieraz ditzan.
- Haurrarekin lan egitea, bizi izandako indarkeriaren ondorioak hobeto eraman ditzan edo errotik atera ditzan, garapenean ahalik eta eragin txikiena izan dezaten.
- Indarkeria berarengandik kanpo jar dezan laguntzea, errua kentzea. Esperientzia traumatikoak baterabilduko dituen azalpena egin dezan laguntzea.
- Indarkeriazko harreman moduak berriz ager ez daitezen prebenitzea.

*ii. Esku-hartzearen une horretako oinarrizko alderdiak*

- Ikuspegi errealista:

Ahal den neurrian, haurrari eman beharreko tratamenduak haren anai-arrebei eta amari emango zaionaren antzekoa izan behar du, izan ere, familiako harremanetan aldaketa faboratzean baitatza, egoeraren biktima diren pertsonen babesa eta errugabetasuna sustatuz. Dena den, oso kontuan izan behar da ez dela aita munstro gisa ikus dadin eta ama idealiza dadin eragin behar, haurrak familiaren ahalik eta ikuspegi errealistena izan behar baitu. Familiako kideak muturreko tokietan kokatzeak eta kokapen sinplistek ez dute laguntzen haurren suspertze prozesuan.

- Haurra: prozesuko subjektua.

Garrantzitsua da haurraren baliabideetatik, bere gaitasunetatik eta trebetasunetatik lan egitea, eta une oro bere suspertze prozesuko subjektutzat hartzea. Kontuan izan behar da haur horietako asko ez dela bere familia giroan balioztatzen; maiz hutsaren hurrengo bihurtuak izan dira eta etengabe gogorarazten dizkiete beren gabeziak eta akatsak. Haur horiei eman beharreko laguntza emozionalean, beren kabuz egin ditzaketen gauzak aintzat hartu behar dira. Eta hori ez da diskurtso hutsean geratu behar; laguntza-harremanean gauzatu behar da.

Haurrekin egin beharreko edozein lan haurren irudikatze mailaren, eboluzio etaparen, harreman testuinguruaren eta abarren arabera taxutu behar da (Torras de Beà, 2007), esku-hartzeko protagonista bakar haurra bihurtu behar da eta haurra uneoro errespetatu behar da, bere prozesuko pertsona aktibo gisa.

- Hezitzailearen trebetasunak:

Halaber, horrelako prozesuetan nahitaezkoa dira pazientzia, jarraitutasuna, irmotasuna eta afektua. Erabat ulergarria da profesionalak haur batekin arazo bat konpondu nahi izatea (esate baterako, une jakin batean zer gertatu zitzaion edo nola sentitu zen kontatzea) eta frustrazioa sentitzea haurrak beste edozein gauzaz hitz egitea, marraztea edo jolastea nahi duelako. Arazoari modu zuzenegian ekiteak haurra urrun dezake. Hortaz, haurrak ematen duena baliatu behar du profesionalak (marrazki bat, jolasteko proposamena edo ikusi duen marrazki bizidunen filmaren kontakizuna) harremana sendotzeko eta haurrarekin konektatzeko.

Gogoan izan behar dugu emozioak, pentsamenduak eta esperientziak helduen eta haurren artean adierazteko mintzaira komuna jolasa dela. Haurrengana bideratutako edozein terapiatan, nahitaezkoa da haurraren izaera errespetatzea, baina haren komunikatzeko modua ere errespetatu behar da.

*iii. Laguntza eta babesa emateko prozesuan landu beharreko alderdiak*

Haurrak prozesu traumatiko bat bizi duenean, bere nortasuneko hainbat alderdik eragina jasaten dute eta haurrak minaren eta estresaren aurrean garatzen dituen defentsarako mekanismo gisa jarduten dute.

Laugarren kapituluan adierazitako zenbait alderdiri jarraikiz, esku-hartzeko une honetan kontuan izan behar dira eboluzio arloko zailtasunak (enpatia, autoestimua eta desoreka emozionalak), arlo kognitibokoak (asaldura kognitiboak, disoziaziokoak eta nortasunekoak), jokabide arlokoak (norberaren kalterako jokabideak eta indarkeria, ingurukoenganako), harreman arlokoak (funtsean, lotura asaldurak) eta gogoeta arlokoak, erreferentetzat dituzten helduengandik jasotzen duten eredu etikoa dela eta.

Barneko bizipen horietako bakoitzari askotariko eginkizun terapeutikoen bidez egin behar zaio aurre (Barudy, 1998). Bistan denez, orientabide horiek ez dira arau zurrunak, eta ez dira prozesu horietan bakarrik erabiltzekoak. Hala ere, haur horiekin horren gai konplexuak lantzeko eginkizun zailari aurre egiten lagun dezakete.

Haurrak erruduṉ dela pentsatzen duenez, familian gurasoen ordezkapen idealizatua babesteko eginkizuna duela sentitzen du. Hortaz, balantza oreka dadin lan egin behar da. Edozein haurrentzat, ama eta aita dira bizitzari zentzua ematen dieten bi oinarriak. Biak dira garrantzitsuak eta, ustez, biek maite dute haurra, babestu egingo dute eta haurrak hoberena izan dezan saiatuko dira, besteak beste. Horrela, aitak amari eta berari min ematen diela onartzeak semeari edo alabari familiaren inguruko ideiak berregituratzea dakarkio. Aukera bat izango litzateke aita erasotzailea berriz defini dezala, baina horrek semearentzat edo alabarentzat funtsezkoegia den ideia bat zalantzan jartzea dakar berekin. Beraz, haurrak bere burua definitzen du berriz, eta bizitzen ari den indarkeriazko egoeraren erruduntzat jotzen du bere burua.

Haurrari berak ez duela errurik sinestarazten eta gertatzen denaren erantzule gurasoak egiten saiatu behar da, baina munstro gisa ikus ditzaten lortu gabe. Hori egiteko modu bat da haurrari harremanak izateko bestelako modu bat eskaintzea. Haurrak jokabide negatiboa erakusten badu eta zigorrak baino ez baditu jasotzen, bere erruduntasun sentimendua areagotu egingo da. Beraz, haurrari hasieratik sinestarazi behar zaio espliziTuki ez dela errudun. Hau da, semeak edo alabak ezin duenez aitaren irudia berriz definitu, oharkabean jardungo du eta bere burua joko du arazoen sintomatzat.

Adibidez, aitak berari eta amari egin diena onartu ezin duen zazpi urteko neskatilari ezinezkoa zaio pentsatzea aitak zerbait gaizki egin duela, izan ere, aitak, haiekin bizi zenean, beti jolas egiten baitzuen neskatilarekin. Hala ere, haurrak tratu txarra zuzenean hauteman eta jasan du. Haurrak ez du uste arreta merezi duenik, gertatzen denaren inguruan bere buruari eman dion azalpenak, indarkeriazko egoerako berezko ekarpenekin batera, bera jotzen duelako «gaizto»tzat. Orduan, haurrak arreta ematen duen zerbitzuren batera jotzen duenean, eta maitasuna eta arreta merezi dituela eta ez dela gertatu denaren erantzule esanez ideia hori berriz defini dezan saiatzen denean, haurrak jokabide negatiboekin eta indarkeriazkoekin erantzuten du (ostikoak ematen dizkio profesionalari, gelako jostailuak puskatzen ditu, ihes egiten du eta amarekin joan nahi izaten du, eta hori oihuka edo negarrez adierazten du, eta abar). Horrela, haurrak ez du aldatu behar inguruko pertsonak eta bere burua hautemateko duen modua; ama eta aita onak dira, eta bera da gaiztoa. Modu horretan, familian gertatu dena azal dezake erreferente dituen eta mundu honetan bere bi oinarriak direnen inguruan ezer zalantzan jarri gabe. Bere burua «gaizto»tzat ikusteari utzi eta maitasuna merezi duela senti dezakeenean, gertatu denaren inguruko azalpena aldatuko da eta, orduan, aitaren eta amaren deskribapena eta eginkizuna ere aldatuko dira.

Estigmatizazioa lantzeko arazotik bereizten lagundu behar zaio haurrari, kanporatzea bezalako tekniken bitartez. Genero indarkeriaren biktima diren haurrek gainerako haurrekin alderatuta bestelakoak direla sentitzen dute etxean bizi duten egoera dela eta. Hortaz, eguneroko jarduera eta harreman guztietan berekin izaten duten pisua gainean dutela bizi dira.

Garrantzitsua da haurra egoeratik bereiztea (lehen aipatutako kanporatze tekniken bitartez) eta beren alde indartsuak eta gaitasunak berreskuratzea, nahiz eta familia giroa aldekoa ez izan. Horrela, haurraren baliabide erresilienteak suspertzen dira.

Ezintasuna baliaezintasunarekin batera joan ohi den sentipena da, eta haurraren irudian ondorioak izaten ditu. Profesionalak haurraren indarra eta emozioak erabiltzeko lan egin behar du, haurrak prozesu eraikitzailea (eta ez deuseztatzailea) landu dezan. Harreman terapeutikoak esperientzia indargarria izateko aukera eskain diezaioke, eta haurra bere prozesuko protagonista senti dadin lor dezake. Eginkizun aktibo horrek nolabaiteko kontrol, eraginkortasun eta balio pertsonaleko zentzua garatzea ahalbidetzen dio haurrari.

Genero indarkeriaren biktima diren haurrek galera sentimendu oso handia izaten dute eta beren sufrimendua adierazteko tokia eta denbora eskaini behar zaie. Behin haurrak izan ditzakeen traizio sentimenduak hitzez adierazi dituenean, bere mina lantzen, bizi duena ulertzen, lagundu behar zaio. Konfiantzan oinarritutako harreman terapeutiko ona tresnarik hoberena da haurrari munduan eta pertsonengan duen konfiantza konpontzen laguntzeko.

Haur horiek izaten duten oso ohiko beste emozio bat amorrua izaten da eta, horregatik, arau eta muga argiak eta koherenteak dituen eremu terapeutikoa behar dute. Garrantzitsua da haurrarekin esku hartuko duten profesional guztien lanaren plangintza ondo egitea, beren erasoen aurrean babestuta izango direla bermatu ahal izateko. Nahitaezkoa da modulazio afektiboa, gizarte gaitasunen garapena eta asertibitatea lantzea.

### *iv. Haurrei laguntzean ager daitezkeen zenbait zailtasun*

Maiz, haurrek ez dute profesionalak proposatzen diena egin nahi izaten eta, nahiz eta terapeutaren helburua aurre egite hori gainditzea den, errespetatu eta serioski hartu behar da. Haurrek hainbat modutan adierazten dute zerbaiti aurre egiten diela (zaratak eginez, irribarre urduriak, beren burua lurrera botaz, eta abar) eta horrek ez gaitu haserrarazi behar; errespetatu eta onartu behar dira.

Askotan, aurre egite horiek ez ditu jakitun dela egiten, baina haurra inhibituta edo urduri izaten da eta horrelako uneetan garrantzitsua da seguru sentiaraziko dituzten eta irudimena sustatuko dieten jarduerak proposatzea. Haur bakoitza den bezalakoa dela onartu behar da, eta jardueraren batek estutzen badu proposamena aldatu behar dugu edo ea zergatik eragiten dion halako estutasuna azal dezan saiatu behar dugu.

Haurrek arrazoi onen bat dela medio egiten diete gauzei aurre; beren burua babesten ari dira, eta konfiantza dutenean baino ez dira irekitzen hasten. Hortaz, aurre egite horiek gozotasunez eta abileziaz bideratu behar dira, eta ez mehatxagarria dela eman dezakeen moduan. Gure ikuspegia aldatu behar dugu eta ulertu behar dugu aurre egiteren batekin topo egiten dugun bakoitzean aurreratzen ari garela, une horretan haurrak ezin duela lehenago bezala funtzionatu eta galduta dagoela, laguntzarik gabe, eta horregatik saihesten saiatzen da.

Haurrarekin esku hartzen duen profesional taldeak oreka aurkitu behar du indarkeriazko egoera ez dramatizatzearen eta huskeriatzat ez hartzearen artean. Haurra bizitzen ari den sufrimendua baliozkotzean datza eta, era berean, erruduntasun sentimendua eta «bestelakoa dela»ko ideia kenaraztean. Horrela, baliozkotzearen eta onartzearen bitartez, haurren baliabide naturalak sendotzen dira, eta haien gaitasunak indartzen, familia egoeratik haratago, eta bere buruaren irudia hobetzen da.

## E. HAURREKIN EGIN BEHARREKO LANERAKO HEZKUNTZA ORIENTAZIOAK

Familian genero indarkeria jasan duten haurrekiko esku-hartzeko hezkuntzako aldeak berekin dakar gatazkak konpontzeko haurrekin indarkeriarik gabe lan egitea, emozioak kudeatzea emoziook identifikatu eta adierazi ahal izateko, bizi izandako egoerak ulertzea erruduntasunik eza sustatuz, haur horien erresilientzia eta jabekuntza sustatzea, eta abar.

Horrelako esku-hartzeetan, garrantzitsua da profesionalek bestelako harreman motak helaraztea, ezartzen den berezko elkarrekintzaren bitartez. Une gakoa da: memento horretan, haurrak helduen artean eta helduek beraiekin harremana izateko bestelako moduak ikus eta ikas ditzake.

*i. Hezkuntzazko esku-hartzearen helburuak*

Hona hemen haurrekin esku hartzean lehentasuna eman behar zaien zenbait hezkuntzazko helburu, esku-hartzea banakakoa nahiz taldekoa izan:

- Indarkeriaz hitz egin ahal izatea, eta gai hori tabua delako ustea alde batera uztea.
- Indarkeriazko jokabideak zehaztea eta haietatik datozen emozioak adieraztea.
- Norbere buruaren babesa sustatzea eta gatazkak indarkeriarik gabe konpontzen ikastea.
- Pertsonen artean berdintasunezko harremanak izan daitezkeela erakustea, eta mendetasunezko edo nagusitasunezko harremanak baino asebetegarriagoak direla ikustea.
- Autoestimua bultzatzea, adierazitako sentimenduak sendotuz eta baliozkotuz.

*ii. Ikuspegi sozialetik eta hezkuntzakotik landu beharreko alderdi nagusiak*

Dagoeneko hainbat aldiz esan den bezala, tratu txarra jasan duten emakumeen seme-alabekiko esku-hartzea amekin egiten den lanarekin batera gauzatu behar da, ahal den guztietan.

Haur orok behar du funtzionamendurako arau argiak izatea bai familiaren barruan, bai eta familiatik kanpo ere, baina genero indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabek eragin handiagoa eskatzen dute mugak ikastean, bizi duten familia egoera dela eta.

Ezinbestekoa da amarekiko modu paraleloan esku hartzea eta, amarekin baterako lana gauzatuz, profesional taldeek honako hauetara bideratu behar dute ahalegin guztia (Baker eta Cunninghan, 2004b):

- Genero eginkizunak malguago egitera:

Gizon erasotzaileek beren burura bideratzen dute arreta gehiena, eta harreman eredu oso txiroak eskaini ohi dituzte. Haur horiek ikasten dute boterea eta kontrola gauza daitekeela indarkeriazko estrategien bitartez eta, gainera, estrategia horiek ez dutela ondorio negatiborik izaten aplikatzen dituen harengan. Bizi izan duten indarkeriazko egoeraren arabera, haurrek ekintza kriminalak, substantziak kontsumitzea, arrazakeria eta jarrera matxistak baliozkotzen dituen eredua izan dezakete.

Garrantzitsua da haur horiei bestelako harreman ereduak eskaintzea, hain zuzen, errespetua, konfiantza eta afektua oinarri dutenak. Ama elementu gakoa da mota horretako ereduak helaraztean. Halaber, garrantzitsua da haurrek hori ikas dezatela emakumezko eta gizonezko profesionalengandik.

- Azalpen koherenteak sortzera:

Genero indarkeriaren biktima diren haurrak amak eta aitak ezartzen dizkien arauen artean harrapatuta sentitu ohi dira. Nahasmendu handia ere senti dezakete, arauak erasotzailearen umorearen arabera aldatzen baitira.

Genero indarkeria jasaten duten egoeretan, amek zapalkuntza eta baliogabetze egoera asko jasaten dituzte seme-alaben aurrean. Horrek haurren aurrean indarra kentzea dakar berekin eta, horrek, gero hezkuntzako mugak ezartzea zailtzen du. Une horretan, oinarrizkoa da amarekin lan egitea, baina garrantzitsua da haurrek arau egokiak, neurrikoak eta koherenteak beren inguruan gauza arrunta direla eta maite dituzten eta haien ardura duten pertsonek aplikatzen dituztela ikus dezatela. Esku-hartzean zehar, haurrekin lan egiten duten profesionalak haientzat heldu esanguratsu bihurtzen dira eta, hori dela medio, garrantzitsua da ildo horretan lan egin dezatela.

- Jokabide eta motibazio berriak sustatzera:

Haur horiek abusu emozionala jasan dute aitaren aldetik eta, ziur asko, mespretxuzko ezizenez deituko zituen, une bakoitzean zorrotz zuzenduko zituen, iseka egingo zien eta, agian, inoiz ez ditu nahikoa motibatu. Ziur asko, haur horiek porrotaren aurreko beldurra garatuko zuten, eta horrek gauza berriak probatzen ausart daitezen eragotziko die.

Maiz, haur horiei erasotzaileak esan izan die inozoak direla zerbait ikasteko zailtasunak izan dituztenean. Ondorioz, haien autoestimua epaitzen da, aurrera egin dezaten eragin ordez.

Oso garrantzitsua da haur horiekin esku hartzean garatuko dituzten jarrera eta jokabide guztiak aintzatestea, gauza berriak egiten saia daitezen motibatzea eta frustrazioa agertzen denean lagun egitea. Frustrazioa sentimendu normala dela, hori sentitzea ona dela eta aurrera egiten jarraitzeko aukera eman behar diela azaldu behar zaie.

- Zenbait erantzun emozional modulatzera eta bestelako aukerak bilatzera, azalpenak eskaintzera:

Indarkeriazko inguruetan eta giro gatazkatsuetan bizi diren haurrak zaratatik arreta desbideratzen saiatzen dira, irudimenaren edo blokeo emozionalen bitartez distraitzen dira eta, batzuetan, beren burua zigortzen ikasten dute. Guraso autoritario eta gogorrek modu oldarkorrean ematen dituzte aginduak eta berehalako erantzuna espero izaten dute. Horrela, maiz, haur horiek ez dute ulertzen zergatik eskatzen zaizkien gauza jakin batzuk. Irakaspen konstruktiboak ikasi ordez, gauzak «ondo izan behar dutelako» ikasten dituzte. Mota horretako diziplina apetatsua da eta ez da oso iraunkorra. Beraz, haurrak, azkenean, gaizki portatzen dira edo jokabide erasokorrak izaten dituzte.

Profesionalek haur horiekin egin beharreko zuzeneko esku-hartzea, bai eta amekin lan egitearen bitartez gauzatuko den esku-hartzea ere, eskaera jakin batzuk zergatik egiten diren azaltzera bideratu behar da, eta berekin dakarten osagai afektiboarekin lotu behar dira beti. Esate baterako, haur bati gauza jakin bat egin dezan eskatzen zaionean (dutxa hartu, janaria bukatu, ikastetxeko ikaskideekin hitz egin eztabaidan aritu ordez, eta abar) horrek berekin dakarren garrantzi afektiboa ere adierazi behar da: «amak maite zaituelako esaten dizu», edo «garrantzitsua da hori ikas dezazula, maite zaituen jendeak gaitzets ez zaitzan» edo «guk lagun nahi duguna zuri laguntzea da, hobe egon zaitezen» eta abar.

- Beren iritziak eta nahiak baliozkotzera:

Haur horiei, helduekin eta, batez ere, erasotzailearekin, izan duten harremanean, inoiz ez zaie galdetu beren lehentasunen, iritzien, nahien eta antzekoen inguruan. Horrek baliozko pertsona ez

delako sentipena eragiten du, eta ziurgabetasun handia sorrarazten du haur horiengan, bai eta autoestimu oso baxua izatea ere.

Haiekin esku hartzean, garrantzitsua da argi eta garbi azaltzea beren iritziak garrantzitsuak direla, baina haien ondorioak kontuan izanik jardutea ere bai. Hau da, lanerako plana aurkezteko orduan, adibidez, kontuan hartu behar da haien iritzia eta, beharrezkoa bada eta egokitzat jotzen bada, aldez aurretik ditugun ideiak aldatu behar ditugu, haurraren lehentasunei bidea emateko. Oinarrizkoa da haurrei sentiaraztea beren iritzia kontuan hartzen dugula, eta desira eta nahi dutena garrantzitsua dela inguruan dituzten pertsonentzat.

- Itxaropen errealistak ezartzera:

Tratu txarra jasan duten emakumeen seme-alabei, maiz, lortu ezin dituzten hainbat gauza eskatzen zaie, besteak beste, lasai izan daitezen, txukunak izan daitezen eta beste hainbat gauza. Horrek haurrek gauza desegokiak edo nahikoa ez direnak egiten dituztela sentitzea eragiten du. Esate baterako, zenbait gurasok ez daitezen zikindu eskatzen die haurtxoei, baina haurrek ezin diete eskaera horri erantzun.

Garrantzitsua da haur horiek hezkuntzazko esku-hartzea aprobetxatzeko aukera izan dezatela, haurtzarora itzul daitezen, egiten dieten zein eskaera den egokia berriz zehatz dezaten eta zein diren helduen erantzukizunekoak jakin dezaten. Gainera, beharrezkoa da agerian jartzea bizitzan jaso izan dituzten zenbait eskaera okerrak izan direla eta ez direla errudun sentitu behar ezin izan dituztelako eskaera horiek beren gain hartu.

- Helduen arazoen inguruan mugak sortzera:

Indarkeria dagoen familiako testuinguruetan, belaunaldien arteko mugak txikiak izaten dira eta, horrela, haurrek amaren gauza intimoak edo pribatuak entzun eta jakiten dituzte. Batzuetan, emakumeak jasaten dituen sexu abusuak entzun edo ezagutzen dituzte.

Horrelakoetan, garrantzitsua da amarekin lantzea zer nolako garrantzia duen haurrari kontatzen dizkion gauzetan mugak mantentzeak (epaiketa prozesuen egoera, indarkeriazko gertakarien xehetasunak, eta abar). Egiazki, erraz samarra da alderdi horren gainean esku hartzea. Zailagoa izaten da aitak kontatzen duenarekin edo semeak edo alabak etxean zuzenean bizi duenarekin lan egitea. Hori dela eta, garrantzitsua da haurrarekin zuzenean esku hartzea, eta zer nolako informazioa izan beharko lukeen eta zein izan behar ez lukeen berriz zehazten laguntzea. Halaber, oinarrizkoa da haurrari argi uztea informazio desegokiaren aurrean babesteko ardura ez dela berea, bere ardura duten helduena baizik.

- Beraiei denbora eskaintzea merezi dutela sentiaraztera:

Batzuetan, haur horietako askoren parekoek isolatu egiten dituzte, bereziki bizileku aldaketak, abegi etxeetara joatea eta antzekoak gertatzen diren familietan. Gainera, ama horiek egunerokotasunari aurre egiteaz akituta izan ohi dira eta ez dute nahikoa energiarik izaten beren seme-alabentzat. Aita erasotzaileek, beren aldetik, maiz ezikusi egiten die seme-alabei edo haiei arreta ematea eskaera desegokien edo manipulazioan oinarritutako eskaeren baldintzapean jartzen dute (esate baterako, berarekin bizitzen joango direnean jostailuak erosiko dizkiela esatea).

Horrelako egoeretan, seme-alabek zalantzan jar dezakete amak beraiekiko sentitzen duten maitasuna, arretarik ez zaiela ematen senti dezakete eta afektu falta antzeman dezakete edo, beste batzuetan, ez diete amari presio gehiagorik egin nahi izaten arreta eskatzen jarraituz. Horregatik, garrantzitsua da amarekin seme-alabekin jolas egiteko beharra lantzea eta eguneroko bestelako

alderdien aurrean horri lehentasuna eman diezaion laguntzea. Beharrezkoa da, haurtzaroan garapen ona izan dadin, ama jolasak, afektuak eta elkarrekintzak duten garrantziaz jabearaztea.

Seme-alabekin esku hartzeko orduan, agerian utzi behar da etengabe pertsona garrantzitsuak direla, direnak direlako eta diren bezala maite dituela jendeak (dituzten gauza onekin eta hobe ditzaketenekin, guztiok bezala). Halaber, haurraren adinaren arabera, eraginkorra izaten da ama nekatuta dagoela azaltzea eta, beren bakardade sentimenduarekin enpatizatzen duten era berean, amak beren onerako egiten duela argi uztea (jostailuak izan ditzaten, txangoetara joateko aukera izan dezaten, arropa berria izan dezaten, eta abar).

*iii. Taldea: hezkuntzako orientabideetarako eremua*

Taldeko esku-hartzea funtsezko estrategia da genero indarkeriak haur horiengan duen eragina lantzeko; bestelako parekoekin harremana izatera behartzen dituzten testuingurua da, eta eginkizunak, loturak, sinesmenak eta bestelakoak ageriko egiten ditu. Taldeek haurrak gatazkak nola konpontzen dituen ikustea ahalbidetzen dute, jarduteko beste modu batzuk ikus ditzakete, haurrek ez dute sentitzen beraiei bakarrik gertatzen zaiela, bizi izan dutena beste haur batzuekin parteka dezakete, eta abar.

## F. FAMILIA GIROAN GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN HAURREKIN ZUZENEAN ESKU HARTZEARI BURUZKO AZKEN GOGOETAK

Atal honetan, ibilbide bat egin nahi izan dugu genero indarkeriaren biktima diren eta emakumeari arreta emateko taldeetan laguntza jasotzen duten ametatik hasi eta beren seme-alabetara arte.

**Emakumeekin lan egiten duten profesionalentzat garrantzitsua da ama horien argumentuaren hariari jarraitu ahal izatea. Hari horrek beren seme-alabetaraino eramango ditu profesionalak.** Behin gune horretan gaudenean, garrantzitsua da haurra bizitzen ari daitekeenarekin enpatizatzea eta, horrela, amari azaldu ahal izatea bere semea edo alaba nola ari daitekeen egoera sufritzen.

Oso garrantzitsua da beti kontuan izatea emakumea nola ari den egoera bizitzen, izan ere, oso hurbileko eta bere beldurrak eta aurre egiteak errespetatuko dituen laguntzari esker baino ez baitugu lortuko ez dezan sentitu bere amatasuna zalantzan jarri dela.

Ama batentzat oso zaila izan daiteke bere semeak edo alabak indarkeriaren historian har ditzakeen askotariko eginkizunak eta jarrerak ulertzea. **Ama horiek laguntza handia behar dute hain zail eta mingarri diren egoera horiek ulertzeko. Beraz, ezinbestekoa bihurtu ohi da emakume horiekin egin beharreko lanean beren amatasun eginkizunaren eta seme-alabekin duen loturaren inguruko zenbait alderdi sartzea**. Emakume horiekin ikuspegi zabala izango duen esku-hartzea (eta bere amatiar alderdia sartuko duena, nahitaezkoa baita hori lantzea ama den edozein emakumerekin) gauzatzea bere seme-alabei laguntzeko eta haiek babesteko beste era bat da.

Haurrekin gauzatzen den zuzeneko esku-hartzeari dagokionez, atalaren sarreran adierazi den bezala, garrantzitsua da kasuak eskatzen duen espezifikotasuna kontuan izatea. Orrialde hauetan haurrekiko esku-hartzean kontuan izan beharreko adierazleak eta aldagaiak aipatu direnean, gure asmoa izan da, batez ere, **zenbait tresna ematea familian genero indarkeria jasaten duten emakumeen seme-alabak ageriko egiteko**.

Azterketa-elkarrizketetarako jarraibideak, bai eta esku-hartzerako estrategiak ere, orientatzeko dira, jakina, eta haur bakoitzaren adinaren eta gainerako berezitasun guztien arabera ulertu behar dira. Atal honetan idatzitako ezer ez da hartu behar arreta emateko taldeetan laguntza ematen zaien emakumeen seme-alaba guztientzat berdin balioko duen formula magistraltzat.

Familian genero indarkeria jasaten duten emakumeetan espezializatutako profesional taldeek arreta ematen dieten emakumeen seme-alabak aztertzeko berariazko prestakuntza izatetik garrantzitsua dena lehen aipatu den ideia da: **haur horiek ezin dute beren errekuperazio prozesuan aurrera egin beren kabuz; helduren baten laguntza behar dute (amarena, ahal den guztietan)**.

Hori dela eta, oinarrizkoa da emakumearekin modu espezializatuan lan egitea -dagoeneko egiten ari garen bezala- eta, gainera, ikuspegi hori amaren eginkizunetik gehitzea. Lehen esan den bezala, **familian genero indarkeria jasaten duten emakumeen seme-alabek zuzeneko esku-hartzea eta zeharkako esku-hartzea behar dute, eta hori amekin lan egitearen bitartez lortzen da, beren hobekuntza prozesua indartzen duen testuingurua sortzean**.

Hortaz, baldin genero indarkeriaren biktima diren emakumeekin lan egiten dugun profesional taldeok beren seme-alabekiko begirada sar badezakegu, **gure erantzukizun etikoa gauzatzeko beste modu bat aurkituko dugu: alegia, familian genero indarkeria jasaten duten biktimen seme-alabak babestea**. Eta garrantzitsua dena da gure eguneroko lanetik egin dezakegula, haurrak beren amen bitartez ikusita, haiekin enpatizatu eta **jasaten ari diren mina gainditzen eta genero indarkeria belaunaldiz belaunaldi transmiti ez dadin prebenitzen lagunduko dieten laguntza espezializatua bilatu behar diegula jakinda.**

# 7. ONDORIOAK

Save the Children erakundearen arabera, genero indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak ere indarkeria horren biktima dira, eta balioztatu egin behar dira, eta arreta eman. Eskuliburu honen helburua hainbat esparrutatik haur horiekin beren beharrei behar bezala erantzuteko lanean dihardruten profesionalei ezagutza eta estrategiak ematea izan da.

Baina «biktima» terminoa erabiltzean ez dugu asmo haurra subjektu pasibo gisa agertzea edo duen erresilientzia gaitasuna eta jasandako ondorioei aurre egiteko eta haietatik errekuperatzeko trebetasuna murriztea. Alderantziz: haur horiek laguntza eta babesa behar dutela nabarmentzen du, beren garapenean eragina jasaten dutelako eta eskubideak urratuta izaten dituztelako.

Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak planteatzen duenari jarraikiz, haurrak babes berezia izan behar du eta aukerak eta zerbitzuak izan behar ditu, fisikoki, mentalki eta gizartean modu osasungarrian gara dadin, bai eta askatasun eta duintasun baldintzetan ere. Haurraren interesa gailentzeak izan behar du funtsezko kontua. Biktima den haurra genero indarkeria gauzatzen den familian hazten denean, beharrezkoa da gobernuek emakumeei eta haien seme-alabei arreta emango zaiela berma dezatela.

Familian genero indarkeria bizi izateak haurren eskubide guztiak betetzea eragozten du, eta beren garapena kaltetzen; haurren eredu afektiboak aldatzen ditu eta arazoak eragiten ditu haien garapen emozionalean, sozialean, kognitiboan edo fisikoan, eskuliburu honetan luze eta zabal azaldu den bezala. Horrez gain, lesio fisikoak ere jasaten dituzte eraso fisikoen biktima direnean.

Eskudun erakundeek haurrak babesteko neurri egokiak hartzeko betebeharra dute, bereziki haurrak indarkeriazko inguruan bizi badira, hala nola, genero indarkeria gauzatzen den familietan.

Familian genero indarkeria jasaten duten emakumeen seme-alabek pairatuko duten eragina eta ondorioak haur horien baliabide emozionalen eta pertsonalen araberakoak izango dira, bai eta gurasoen erantzun egokiaren eta gurasoek egoera hori bideratuko duten moduaren araberakoak ere. Halaber, haurrak behar bezala errekupera daitezen funtsezkoak dira honako hauek: haurrari arreta emateko erakundeen erantzun eraginkorrak, gizarteko eta familiako laguntza sareak eta emakumeekin eta haien seme-alabekin lan egiten duten profesionalen prestakuntza egokia. Hori dela eta, beharrezkoa da babes sisteman biltzen diren diziplina anitzeko taldeen diseinua eta funtzionamendua egokitzea haurren beharrak balioztatzeko eta haiei arreta emateko, amengandik jasotzen duten arreta aparte utzita.

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabei erantzun egokia emateko beharrezkoa da bermatzea emakumeei arreta emateko zerbitzuetan lan egiten duten profesionalek behar besteko prestakuntza dutela haurrak genero indarkeriaren biktima diren aldetik ulertzeko eta haiei arreta emateko. Halaber, haur horiekin esku-hartze egokia bermatuko duten talde espezializatuak sortuko direla ere bermatu behar da.

Beraz, Save the Children erakundearen arabera, hauek lirateke genero indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabei eman beharreko arreta hobetzeko nahitaezko diren zenbait baldintza:

a. Indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak ere genero indarkeriaren biktima direla onartzea.

b. Genero indarkeriaren biktima diren haurrei buruzko datuak arazoaren inguruko informazioa biltzeko sistemetan sartzea.

c. Ikastetxeetan genero indarkeria prebenitzeko programak garatzea -gizonen eta emakumeen arteko berdintasun printzipioak oinarri izango dituztenak-, bai eta arazo horren inguruan jendea sentikortzeko kanpainak ere.

d. Genero indarkeriaren biktima direnei arreta emateko baliabideak diseinatzean indarkeriaren biktima diren haurren ezaugarri bereizgarriak kontuan izatea.

e. Emakumeei arreta emateko zerbitzuetako profesionalei haurrak balioztatzeko eta haiei behar bezalako arreta emateko egokiak izango diren baliabideak eta prestakuntza ematea.

f. Haurren beharrei zuzenean eta amak aparte utzita arreta emango dieten diziplina anitzeko talde espezializatuak sortzea, eta alderdi horiek amei arreta ematean sartzea, amak seme-alabentzako babes irudi eta lotesle gisa sustatuz.

g. Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko zerbitzuen eta haurrei arreta emateko zerbitzuen artean jarduera koordinatuak sustatzea.

# 8. BIBLIOGRAFIA

Agustín, Sonia; Alemany, Rosa; Álvarez, Marta; Córdoba, Laura; Maure, Laura; Pallejà, Silvia; Plaza, Montse; eta Saiz, Margarita (2007): Pautas orientativas de exploración e intervención con los hijos y las hijas de las mujeres atendidas por situaciones de violencia de género, Bartzelona, Bartzelonako Udala.

Barudy, Jorge (1998): El dolor invisible de la infancia. Una lectura ecosistémica del maltrato infantil, Bartzelona, Paidós argitaletxea.

Barudy, Jorge; Dantagnan, Maryorie (2005): Los buenos tratos a la infancia. Parentalidad, apego y resiliencia, Bartzelona, Gedisa argitaletxea.

Baker, Linda; Cunningham, Alison (2004): «What about me! Seeking to understand a child's view of violence in the family», Londres, lan honetan: Centre for Children & Families in the Justice System.

Baker, Linda; Cunningham, Alison (2004b): «Helping Children Thrive: Supporting Woman Abuse Survivors as Mothers», Londres, lan honetan: Centre for Children & Families in the Justice System.

Beebe, B. et al. (2003): An expanded view of intersubjetivity in infancy and its applications to psychoanalisis, Psychoanalitic Dialogues.

Indarkeriari buruzko aldizkaria. 2007ko martxoa. Emakumearen aurkako indarkeriaren Estatuko behatokia.

Bowlby, J.(1998): El apego, Bartzelona, Paidós argitaletxea.

Cantón Duarte, José; Cortés Arboleda, María del Rosario; Justicia Díaz, María Dolores (2007): Conflictos entre los padres, divorcio y desarrollo de los hijos, Madril, Pirámide argitaletxea.

Carlson, B. E. (2000): Children Exposed to Intimate Partner Violence: Research Findings and Implications for Intervention. Trauma, Violence & Abuse, 1 (4): 321 - 342.

Casas, Ferrán (1998): Infancia: perspectivas psicosociales, Bartzelona, Paidós argitaletxea.

Reina Sofía Zentroa (2007): Violencia contra la mujer en las relaciones de pareja. Estadísticas y legislación, webgune honetan: http://www.centroreinasofia.es/informe/11Informe.pdf

Cerdá Enrique (1971): Una Psicología hoy, Bartzelona, Herder argitaletxea.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia: La violencia sobre la mujer en la estadística judicia,. 2007ko bigarren hiruhilabetekoa.

http://www.observatorioviolencia.org/documentos.php?id=120

Crittenden, P. M. (2005): Attachment and Early Intervention, Keynote address, at the German Association of Infant Mental Health (GAIMH), Hanburgo, Alemania.

Crowell J. A. (1995): A review of adult attachment measures: Implications for theory and research, Social development, 4. 2944-327, New Yorkeko Estatuko Unibertsitatea, Stony Brooken.

Cunningham, A. (2004) (Eds.): Protecting Children From Domestic Violence: Strategies for Community Intervention, New York, NY, Guilford Press.

Cyrulnik, Boris (2002): Los patitos feos. La resiliencia: una infancia infeliz no determina la vida, Bartzelona, Gedisa argitaletxea.

Davies, Sturge-Apple, M.L. eta Cummings, E. M. (2004): «Interdependencies among interparental discord and parenting practices: The role of adult vulnerability and relationship perturbations», lan honetan: Developement and Psycopathology, 18, 707-735.

Dio Bleichmar, E. (2005): Manual de psicoterapia de la relación padres e hijos, Bartzelona, Paidós argitaletxea.

Edelson, Jeffrey L. (2006): «Should childhood exposure to adult domestic violence be defined as child maltreatment under the law?», artikulu gisa argitaratua, lan honetan: Jaffe, P.G., Baker, L.L. eta AJ Cunningham, BBR Rossman, JG: Family Court Review, 2006. Fantuzzo, J. eta Mohr, W. (1999): «Prevalence and Effects of Child Exposure to Domestic Violence», lan honetan: The Future of Children. Domestic violence and Children. 9. liburukia, 3. zk., 1999ko negua.

Emakume bananduen eta dibortziatuen elkartea. Webgune honetan:
http://www.separadasydivorciadas.org/violencia.asp

Fonagy, P. (1999): «Persistencias transgeneracionales del apego: Una nueva teoría», lan honetan: Aperturas psicoanalíticas, 3. zk., azaroa. www.apreturas.org

Frank J. Moncher (1999): Relación entre el tipo de apego de la madre y el riesgo de abuso físico infantil, Georgiako Medikuntza Fakultatea.

Friedberg, Robert D.; McClure, Jessica M. (2005): Práctica clínica de terapia cognitiva con niños y adolescentes. Conceptos esenciales, Bartzelona, Paidós argitaletxea.

Freeman, Jennifer; Epston, David; Lobovits, Dean; (2001): Terapia narrativa para niños. Aproximación a los conflictos familiares a través del juego, Bartzelona, Paidós argitaletxea.

Justicia eta Cantón (2005): «The role of gender and developemental level in the relation between marital conflicts and parenting practices», XIIth European Conference of Developemental Psycology jardunaldian aurkeztutako artikulua, Tenerifeko Lagunako Unibertsitatea.

Holden eta Ritchie (1992): «Linking extreme marital discord, child rearing and child behavor problems. Evidence from battered women», lan honetan: Child development, 62, 311-327.

Kerig P. K., eta Cowan, C.P. (1993): «Marital quality and gender differences in parent child interaction», lan honetan: Development Psycology, 29, 931-939.

Krisknaukumar eta Buehler (2000): «Interparental conflict and parenting behaviors: A metanalytic review», lan honetan: Family Relations, 49, 25-44

Indarkeriari eta osasunari buruzko munduko txostena (2002). Panamerikako Osasun Erakundeak Osasunaren Mundu Erakundearentzako ekindako txostena. Webgune honetan:
www.paho.org/Spanish/AM/PUB/Contenido.pdf

Lafaurie, María Mercedes (2007): «La violencia intrafamiliar y el maltrato a la infancia en Colombia», Erizaintzako Kolonbiako aldizkaria, 1. liburukia, 2. zk., 2007. urtea.

Levendosky, A.A. eta Graham-Bermann, S.A. (1998): «The moderating effects of parenting stress on children's adjustment in woman-abusing families», Journal of interpersonal violence aldizkarian, 13, 383-397.

27/2003 Legea, Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Agindua arautzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 183. zenbakian abuztuaren 1ean argitaratua.

1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzkoa, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 313. zenbakian abenduaren 29an argitaratua.

15/2005 Legea, banantzeari eta dibortzioari dagokionez Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldatzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 163. zenbakian uztailaren 9an argitaratua.

Lieberman, Van horn eta Ozer (2005): «Prescholer witnesses of marital violence: Predictors and mediators of child behavior problems», lan honetan: Developement and Psycopatology, 17, 385-396.

Lorente M, Sanchez de Lara C., Naredo C. (2005): El suicidio como consecuencia de la violencia de género. Emakume aurrerakoien elkartea.

McAlister B. (1999): «Mental Health Services for Children Who Witness Domestic Violence», lan honetan: The Future of Children. Domestic Violence and Children, 9. liburukia, 3. zk., 1999ko negua.

Main, M. (2001): «Las categorías del apego en el infante, el niño y en el adulto: Atención flexible versus inflexible bajo estrés relacionado con el apego», lan honetan: Aperturas Psicoanalíticas (8. zk., 2001eko uztaila) www.aperturas.org

Margolin, G. (2005): «Children's Exposure to Violence. Exploring Developmental Pathways to Diverse Outocomes», lan honetan: Journal of Interpersonal Violence, 20. liburukia, 1. zk., 2005eko urtarrila, 72-81.

Margolin, G, eta Gordis, E B (2000): «The effect of family and community violence on children», lan honetan: Annual Review of Psychology, 51, 445-479.

Mestre, Ma. V, Tur A. M^a^. eta Samper P. (2006): «Proyecto de intervención sobre mujeres y menores atendidos en centros de servicios sociales especializados para mujeres», lan honetan: http://uvalnoti.uv.es/intranet/ficheros/maltrato2.doc

Espainiako Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa (2006): La infancia en cifras, 2. zenbakia, Observatorio de Infancia bilduma.

Myers, Robert (1993): Los doce que sobreviven. Fortalecimiento de los programas de desarrollo para la primera infancia en el Tercer Mundo, Washington, Panamerikako osasun erakundea eta UNICEF, Latinoamerikarako eta Kariberako Eskualde Bulegoa.

Oaklander, Violet (2005): Ventanas a nuestros niños. Terapia gestaltica para niños y adolescentes, Txile, Cuatro Vientos argitaletxea.

Panamerikako Osasunaren Erakundea, Genero eta Osasun Unitatea (2004): Modelo de leyes y políticas sobre violencia intrafamiliar contra las mujeres, Washington, D.C.

O'Leary eta Vidair, H.B. (2005): «Marital adjustment, child rearing disagreements and over-reacting parenting: predicting child behavior problems», lan honetan: Journal of family Psicology, 19, 2, 208-216.

Osofsky, J. (2003): «Prevalence of Children's Exposure to Domestic Violence and Chile Maltreatment: Implications for Prevention and Intervention», lan honetan: Clinical Child and Family Psychology Review, 6. liburukia, 3. zk., 2003ko iraila.

Papalia, D. E. (1988): Psicología, Mexiko, McGraw Hill.

Patró R, Limiñana R., Víctimas de violencia familiar (2005): «»Consecuencias psicológicas em hijos de mujeres maltratadas», lan honetan: Anales de Psicología, Murtziako Unibertsitatea, 21. liburukia, 1. zk., (ekaina), 11- 17

Piaget, J. (1961): La formación del símbolo en el niño, Mexiko, Fondo de Cultura Económica argitaletxea.

Rossman eta Rea (2005): «The relation of parenting styles and inconsistencies to adaptative functioning for children in conflictual and violent families», lan honetan: Journal of family violence, 20, 261-277

Save the Children erakundea (2006): Atención a los niños y niñas víctimas de la violencia de género. Análisis de la atención a los hijos e hijas de mujeres víctimas de violencia de género en el sistema de protección a la mujer, Madril, Save the Children, Espainia.

Save the Children erakundea (1999): Educa, no pegues, Familian zigor fisikoaren aurrean sentikortzeko kanpaina, Madrid, Top Publisim, S.L.

Stern, D. (1991): El mundo interpersonal del infante: Una perspectiva desde el psicoanálisis y la psicología evolutiva, Bartzelona, Paidós argitaletxea.

Taylor, S. E. (2002): Lazos vitales: de cómo el cuidado y el afecto son esenciales para nuestras vidas, Madril, Taurus.

Vanistendael, Stefan; Lecomte, Jacques (2002): La felicidad es posible. Despertar en niños maltratados la confianza en si mismos: construir la resiliencia, Bartzelona, Editorial Gedisa argitaletxea.

Wachtel, Ellen F. (1997): La clínica del niño con problemas y su familia, Buenos Aires, Amorrortu argitaletxea.

Wolfe, D. Crooks, C., Lee, V, McIntyre A, Jaffe P. (2003): «The Effects of Children's Exposure to Domestic Violence: A Meta- Analysis and Critique», lan honetan: Clinical Child and Family Psychology Review, 6. liburukia, 3. zk., 2003ko iraila.

Zeanah, C, Danis, B, Hirshberg, L, Benoit, D, Miller, D, eta Heller, S, (1999): «Disorganised attachment associated with partner violence: a research note», lan honetan: Infant Mental Health Journal, 20, 1, 77-86.

## ALDERDI JURIDIKOEN BIBLIOGRAFIA

De Ángel Yagüe, Ricardo: Introducción al estudio del Derecho, Deustuko Unibertsitatea, 1978, 264. orrialdea.

Calvo García, Manuel, Zaragozako Unibertsitateko Soziologia Juridikoko Laborategia (Bilbo, 2005eko apirilaren 8a): Evolución de la respuesta jurídica frente a la violencia de Género. Análisis de la Ley Orgánica 1/2004, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género.
José Mª Lidónen[53]oroimenez emandako ikastaroa
Adi ‡ ikus 31-33. orrialdeetako ondorioak

Larrauri Pijoan, Elena, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Zigor Zuzenbideko irakasle titularra (Bilbo, 2005eko apirilaren 8a): ¿Se puede proteger a la mujer contra su voluntad?
José Mª Lidónen[54] oroimenez emandako ikastaroa

Tapia Parreño, José Jaime, magistratua (Vitoria-Gasteiz, 2005eko maiatzaren 12a eta 13a): La mediación en el Derecho Penal, Zigor Kodea aldatzeko, zigorrak betearazteko eta zigor bitartekotzarako ikastaroa, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Eusko Jaurlaritzak antolatua.

Cobo Plana, Juan Antonio: «Noticias Jurídicas», 2004ko urria: http://noticias.juridicas.com/. La violencia con historia, la doméstica y la de género: un punto de vista médico forense

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2005eko martxoaren 2koa, 3217. orrialdea. http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&F=20050302&S=2005042

3/2005 Legea, 2005eko otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzekoa eta babestekoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2005eko martxoaren 30ekoa http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&F=20050330&S=2005059

Besteak beste, ikus: Entzuna izateko eskubidea, 16. artikulua; eta Beren eskubideak defendatuak izateko eskubidea, 17. artikulua.

### Pentsioak bermatzeko funtsa:

15/2005 Legea, 2005eko uztailaren 8koa, banantzeari eta dibortzioari dagokienez, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldatzen dituena (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2005eko uztailaren 9koa); bai eta haren garapena ere, 1618/2007 Errege Dekretuak (2007ko abenduaren 7koa, Elikagaiak Ordaintzea Bermatzeko Funtsaren antolaketari eta funtzionamenduari buruzkoa) egina (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2007ko abenduaren 14koa).

Campagne pour combattre la violence a l'égard des femmes, y compris la violence domestique:
http://www.coe.int/t/dg2/equality/domesticviolencecampaign/default_FR.asp

### Estatuko Fiskaltza Nagusia

http://www.fiscal.es/fiscal/public

-3/2001 Zirkularra, 2001eko abenduaren 21ekoa, Fiskaltzak atzerritarrei dagokienez gauzatutako jarduerari buruzkoa.

53 Sartu ikastaroaren erreferentzia osoa.
54 Sartu ikastaroaren erreferentzia osoa.

- http://www.fiscal.es/fiscal/public/!ut/p/_s.7_0_A/7_0_9J/.cmd/ad/.ar/sa.spf_ActionListener/.c/6_2_6G/.ce/7_1_2BE/.p/5_1_1UU/.d/5/_th/J_2_9K/_s.7_0_A/7_0_9J?PC_7_1_2BE_spf_strutsAction=%212factionManager.do%213fCS_Param%3Dcid%253D1101371764843%2526docid%253D1101371765846%2526pagename%253DPortalFiscal%25252FPaginaPF%25252FwpsPortalFiscal_DchoConstitIMPFTpl_xml%2526c%253DPaginaPF#7_1_2BE

- 1/2007 Instrukzioa, 2007ko otsailaren 15ekoa, jurisdikzio jardunei eta adingabeen intimitateari buruzkoa

- http://www.fiscal.es/csblob/INSTRUCCIÓN%201-2007.doc?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fmsword&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1109248173454&ssbinary=true

- 4/2005 Kontsulta, 2005eko abenduaren 7koa, adingabeek zigor prozesuan abokatuen laguntza izateko eskubidearen inguruko gai zehatzei buruzkoa.

- http://www.fiscal.es/csblob/CONSULTA%204.-05.doc?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fmsword&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1109247932305&ssbinary=true

- 3/2005 Kontsulta, 2005eko abenduaren 2koa, Prozedura Zibilaren Legearen 250.1.8. artikuluko mantenuko judizioan Fiskaltzak duen esku-hartzeari buruzkoa, adingabeen alde agintzen denean.

- http://www.fiscal.es/csblob/Consulta%203%20alimentos.doc?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fmsword&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1109247932347&ssbinary=true

- 2/2005 Kontsulta, 2005eko uztailaren 12koa, adingabe atxilotuak espedientea ireki aurreko faseetan bere abokatuarekin elkarrizketa pribatua izateko duen eskubideari buruzkoa (eskubide hori eztabaidatua izan da).

- http://www.fiscal.es/csblob/consulta%202-05.doc?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fmsword&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1109247781006&ssbinary=true

- 1/2007 Zirkularra, 2007ko azaroaren 26koa, Adingabeen Zigor Legediaren 2006ko aldaketaren osteko interpretazio irizpideei buruzkoa.

- http://www.fiscal.es/csblob/CIRCULAR%201-2007.doc?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fmsword&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1109248303789&ssbinary=true

### Arartekoa

http://www.ararteko.net/

http://www.ararteko.net/webs/publicaciones-menor-cast.htm

### Reina Sofía Zentroa

Espainia: Adingabeei buruzko Legedia

http://www.centroreinasofia.es/leyes.asp?prog=Leyes%20menor

erreferentzia autonomiko interesgarria

### Nazio Batuak: Nazioarteko Zuzenbideko hitzarmenak

Nazio Batuen hitzarmenak: Nazioarteko Eskubideari buruzko Legedia

http://www.ohchr.org/spanish/law/index.htm

http://www.ohchr.org/SP/Pages/WelcomePage.aspx

## Haurren eskubideak:

* Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena
* Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmeneko hautazko protokoloa, haurrek gatazka armatuetan parte hartzeari buruzkoa
* Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmeneko hautazko protokoloa, haurrak saltzeari, haurren prostituzioari eta haurrak pornografian erabiltzeari buruzkoa
* Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmeneko hautazko protokoloa, haurrek gatazka armatuetan parte hartzeari buruzkoa
* Gutxieneko adinari buruzko hitzarmena, 1973
* Haurren lan okerrenei buruzko hitzarmena, 1999

## Gazteen Euskal Behatokia

Uriortu kalea 11, behea. 48007 Bilbo, Espainia. Telefono zenbakia: 944 031 640. Faxa: 944 031 641

gaztebehatokia@ej-gv.es

http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-7657/es/contenidos/informacion/3793/es_2890/es_13267.html

Gazteen Euskal Behatokia 1999ko abenduaren 10ean sortu zen, Eusko Jaurlaritzako Kulturako sailburuaren aginduz (pdf, 25 kb)[55], Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte planeko (pdf, 3,4 MB) ikerketa, informazio eta dokumentazio iraunkorreko eginkizunak garatzeko.

Euskal Herriko II. Gazte Plana, Euskal Autonomia Erkidegoa, 2002-2005

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia - Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz 2002

http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-7657/es/contenidos/informacion/3793/es_2890/adjuntos/IIPlanJoven.pdf

## Justizia Ministerioa

- Adingabeak: babes juridikoa, guraso ahala, zaintza eta harrera, adopzioa, nazioarteko adopzioa, adingabeen defendatzailea, emantzipazioa, adingabearen erantzukizun zibila eta penala, adingabeak gurasoen eskumenetik ateratzea eta beste estatu batera eramatea.

http://www.mjusticia.es/cs/Satellite?c=Page&cid=1151913189223&lang=es_es&menu_activo=1135609698330&pagename=Portal_del_ciudadano%2FPage%2FMenores

- berdintasunari buruzko araudia

4/2005 Legea, 2005eko otsailaren 18koa, Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunerakoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2005eko martxoaren 2koa, 3217. orrialdea.

-- EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko Plana, VIII. Legegintzaldiko Gidalerroak, 2006ko iraila (<http://www.emakunde.es/images/upload/IVPI_c.pdf>).

- Bizkaia: Genero indarkeriari buruzko behatokia, Bizkaiko Foru Aldundia (<http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/ca_documentos.html>)

## - Bizkaia: Gizarte Ekintza Saila

Bizkaiko Foru Aldundia. http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Emakumea/ca_emakume.htm

Arabako Foru Aldundia. http://www.alava.net/search.asp?q=departamento+de+acci%F3n+social

http://www.alava.net/search.asp?q=acci%F3n+social;

55 http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-7657/es/contenidos/informacion/3793/es_2890/adjuntos/Agindua1999_abe_10.pdf

Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.gipuzkoa.net/asoAccSocial-c.html

- Gipuzkoa: Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.gipuzkoa.net/index-c.html; http://www.gipuzkoa.net/

### Genero indarkeriaren inguruko aipuak

http://www.gipuzkoa.net/cgi-bin/gnetfinder.cgi?perfil=0&bsq=violencia%20de%20género

- Araba: Arabako Foru Aldundia

http://web.alava.net/ifbs/

Oinarrizko gizarte zerbitzuen mapa

http://web.alava.net/ifbs/servicios1.htm

### Justicia.net, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren webgune ofiziala

http://www.justizia.net/viodom/default.asp?accion=documentos&Idioma=sp

- Biktimei laguntzeko zerbitzua, Euskal Autonomia Erkidegoa

http://www.justizia.net/sav/default.asp?Idioma=sp

- Laguntza eta babesa emateko baliabideak:

http://www.justizia.net/viodom/default.asp?accion=medidas&Idioma=sp

- Babes agindua eskatzeko inprimakia [56]

http://www.malostratos.org/images/pdf/protocolo_sanitario.pdf

- Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua eraginkor izan dadin koordinazio protokoloa[57]

* Araba: http://www.justizia.net/Docuteca/ficheros.asp?intcodigo=2611&IdDoc=SP&Idioma=sp

* Bizkaia: http://www.justizia.net/Docuteca/ficheros.asp?intcodigo=2610&IdDoc=SP&Idioma=sp

* Gipuzkoa: http://www.justizia.net/Docuteca/ficheros.asp?intcodigo=2609&IdDoc=SP&Idioma=sp

### Genero indarkeria:

- 1/2004 Lege Organikoa, babes integraleko neurriei buruzkoa

1/2004 Lege Organikoa, genero indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa, Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2004ko abenduaren 29koa.

http://www.boe.es/boe/dias/2004-12-29/pdfs/A42166-42197.pdf

1/2004 Lege Organikoko (2004ko abenduaren 28koa, genero indarkeriaren kontrako babes integraleko neurriena) akatsen zuzenketa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2005eko apirilaren 12koa.

http://www.boe.es/boe/dias/2005-04-12/pdfs/A12505-12506.pdf

- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren 3/2003 Instrukzioa, 2003ko apirilaren 9koa, prozesu penalak banatzeari eta etxeko indarkeria informatika bidez erregistratzeari buruzkoa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 90. zk., 2003ko apirilaren 15ekoa -asteartea-). http://www.boe.es/boe/dias/2003-04-15/pdfs/A14756-14759.pdf

- 27/2003 Legea, 2003ko uztailaren 31koa, Etxeko indarkeriaren biktima babesteko agindua arautzen duena. (Estatuko Aldizkari Ofíziala, 183. zk., 2003ko abuztuaren 1ekoa -ostirala-). http://www.boe.es/boe/dias/2003-08-01/pdfs/A29881-29883.pdf

---

[56] Adi: inprimaki berria dago eskuragarri 2007ko urtarrilaren 1az geroz; haurren gaineko aipamena ere jaso da.

[57] Adi: protokolo berriak egin dira 2007ko urtarrilaren 1az geroztik.

2004ko maiatzaren 25eko Estatuko Aldizkari Ofizialeko akatsen zuzenketa http://www.boe.es/boe/dias/2004-05-25/pdfs/A19382-19382.pdf

11/2003 Lege Organikoa, 2003ko irailaren 29koa, herritarren segurtasunaren, etxeko indarkeriaren eta atzerritarrak gizartekotzearen arloan neurri zehatzak hartzekoa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 234. zenbakia, 2003ko irailaren 30ekoa -asteartea-). http://www.boe.es/boe/dias/2003-09-30/pdfs/A35398-35404.pdf

### - 14/10/2003 Legea, genero eraginaren azterketari buruzkoa

30/2003 Legea, 2003ko urriaren 13koa, Gobernuak egindako xedapenetan genero-eraginaren azterketa sartzeko neurriei buruzkoa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2003ko urriaren 14koa.

http://www.mtas.es/mujer/Ley30genero.pdf

### - Ministroen Kontseilua, 2005-03-08: Berdintasunerako neurriak.

Ministroen Kontseiluak erabaki bat onartu du, berdintasunerako neurri garrantzitsuak biltzen dituena. Ministerioaren sail guztiek ahalegina eta konpromisoak egin dituzte gobernuaren ekintza horrekin, eta bakoitzak bere ekimenak ekarri ditu.

http://www.la-moncloa.es/web/docs/pdfs/medidasigualdad.pdf

### - PRE/525/2005 Agindua: Berdintasunaren alde egiteko neurriak ezarri dituen erabakia

PRE/525/2005 AGINDUA, 2005eko martxoaren 7koa, Ministroen Kontseiluaren Erabakiari (emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna bultzatzeko neurriak ezarri dituena) publizitatea egitekoa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2005eko martxoaren 8koa.

http://www.boe.es/boe/dias/2005-03-08/pdfs/A08111-08114.pdf

### - 237/2005 Errege Dekretua: Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Gobernuko Ordezkaritza Berezia

237/2005 ERREGE DEKRETUA, 2005eko martxoaren 4koa, Emakumeen aurkako indarkeriari kontra egiteko Gobernuko Ordezkaritza Bereziaren eginkizunak eta maila ezartzen duena, 1/2004 Lege Organikoan (2004ko abenduaren 28koa, genero indarkeriaren kontrako babes integraleko neurriena) xedatua. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2005eko martxoaren 8koa.

http://www.boe.es/boe/dias/2005-03-08/pdfs/A08114-08116.pdf

### - 233/2005 Errege Dekretua, 2005eko martxoaren 4koa, 2005eko programazioari dagozkion emakumeari buruzko indarkeria epaitegiak sortzea eta eratzea agintzen duena.

http://www.boe.es/boe/dias/2005-03-17/pdfs/A09423-09424.pdf

### - JUS/1037/2005 Agindua, 2005eko apirilaren 19koa, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegi berriak abian jartzeko eguna agintzen duena.

http://www.boe.es/boe/dias/2005-04-21/pdfs/A13653-13653.pdf

### - APU/526/2005 Agindua: Estatuko Administrazio Orokorrean genero berdintasuna izateko plana

APU/526/2005 AGINDUA, 2005eko martxoaren 7koa, Ministroen Kontseiluaren 2005eko martxoaren 4ko Agindua (Estatuko Administrazio Orokorrean genero berdintasuna izateko plana onartzen duen) argitaratzea agintzen duena. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2005eko martxoaren 8koa.

http://www.boe.es/boe/dias/2005-03-08/pdfs/A08116-08119.pdf

### - IP/05/266 Brussels, 8 March 2005: Berdintasunerako Europako Institutua sortzea.

http://europa.eu.int/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/05/266&format=HTML&aged=0&language=EN&guiLanguage=en

### Botere judizialaren kontseilu nagusia, araudia aldatzea

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren 1/2005 Arauzko ERABAKIA, 2005eko apirilaren 27koa, 5/1995 Araudia (1995eko ekainaren 7koa, jarduera judizialen alderdi gehigarriei buruzkoa) aldatzen duena.

http://www.boe.es/boe/dias/2005-05-07/pdfs/A15644-15651.pdf

### - Magistratuak eta epaitegiak sortzea eta eratzea, 2005

481/2005 Errege Dekretua, 2005eko maiatzaren 4koa, kide anitzeko organoetan magistratu plazen horniketa eta 2005eko programazioan epaitegiak sortzea eta eratzea agintzen duena.

http://www.boe.es/boe/dias/2005-05-05/pdfs/A15323-15328.pdf

### - 515/2005 Errege Dekretua, kokapen iraunkorra

515/2005 Errege Dekretua, 2005eko maiatzaren 6koa, gizartearentzako lanen inguruko zigorrak, kokapen iraunkorrekoak, segurtasun neurri jakinei dagozkienak eta askatasuna kentzen duten zigorren gauzatzea baliogabetzeri dagozkionak gauzatzeko baldintzak ezartzen dituena.

http://www.boe.es/boe/dias/2005-05-07/pdfs/A15660-15664.pdf

### Etxeko eta genero indarkeriaren aurkako behatokia

http://www.poderjudicial.es/eversuite/GetRecords?Template=cgpj/cgpj/principal.htm

**Save the Children** gobernuz kanpoko erakundea da, plurala eta independientea. Haurren eskubideen sustapen eta babeserako lan egiten du, Nazio Batuen Haurren Eskubideen Hitzarmenari jarraituz (1989), eta ume guztientzako mundu justuagoaren aldeko borrokan dihardu.

**Save the Children** haurtzaroaren inguruko lehen GKE independientea da. 28 herrialdetan ditu nazio-erakundeak, **Save the Children** Nazioarteko Aliantza osatzen dutenak. Gainera, laguntza programen bidez 120 herrialdetan baino gehiagotan dihardu laguntza programen bidez.

Umeek lehentasuna izan behar dute eta beharrezkoa den tokietan aritzen da, edozein dela politika, etnia edo erlijioa. Horregatik, duela 80 urte eragiten dion hainbat arlotan egiten du lan: hezkuntza, osasuna, elikadura, haurren lana, sexu-indarkeriaren eta beste bortxakeria mota batzuen prebentzioa, gerren edo hondamendien ondorengo familien birbateratzea, eta abar.

**Save the Children Euskadiko Egoitza**
Manuel Iradier Kalea, 22 tarteko solairu, bulego 1,
P.K. 01005 Vitoria-Gasteiz
Tfnoa: 945134368
Fax: 945133847.
Email: euskadi@savethechildren.es
www.savethechildren.es



Lau urteko haur baten marraskia